

Euskadi Informazio
Gizartean Plana
Euskadiko Agenda Digitala

2010

Euskadi Informazio
Gizartean Plana
Euskadiko Agenda Digitala **2010**



www.euskadi.net

 stpesi2010@ej-gv.es

2.0
euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

AURKIBIDEA


| | |
|----------------------------|---|
| Lehendakariaren aurkezpena | 7 |
| Sarrera | 9 |

| | |
|---|-----------|
| Lehen zatia: Diagnostikoa eta estrategia | 15 |
|---|-----------|

| | |
|---|-----------|
| 1. Euskadin, non gaude? | 17 |
| 1.1. Herritarren erabilera eta eskuragarritasuna | 19 |
| 1.2. Aldeak Herritarren Artean | 21 |
| 1.3. Hornidura eta erabilera ikastetxeetan | 22 |
| 1.4. Enpresetan sartzea | 23 |
| 1.5. IKTen eta ikus-entzunezkoen sektorearen presentzia | 25 |
| 1.6. Administrazio digitala ezartzea | 26 |
| 2. Ingurunearen azterketa | 29 |
| 2.1. Etengabe aldatzen ari den munduan jardutea | 29 |
| 2.2. Erronka teknologikoei buruzko iritzia ematea | 31 |
| 2.3. Gizarte-inplikazioak txertatzea | 34 |
| 3. Erreferentzia esparruak | 37 |
| 3.1. Informazio gizartearen eragina beste espazio-eremu batzuetan | 37 |
| 3.2. Informazio gizartearen eragina Eusko Jaurlaritzaren ekimenetan | 39 |
| 4. Gizarte berri bat, plan berri bat | 45 |
| 5. 2010eko EGIP planaren Planteamendua | 51 |
| 5.1. 2010eko Ikuspegia | 51 |
| 5.2. Bost xede | 53 |
| 5.3. Ildo estrategikoak eta programak | 56 |
| 5.4. 2010eko EIGP planaren helburuak kuantifikatzea | 58 |

Bigarren zatia: Jardunean ari den plan bat

| | | | |
|---|------------|--|------------|
| 1. Herritar aktiboak | 63 | 5. Infoegiturak | 119 |
| 1.1. Aurkezpena | 63 | 5.1. Aurkezpena | 119 |
| 1.2. Bizitza osoko ikaskuntza | 66 | 5.2. Infoegitura aurreratuak irisgarritasunaren, segurtasunaren eta konfiantza digitalaren eremuan | 121 |
| 1.3. 2010eko ikastetxea | 71 | 5.3. Eguneratze teknologikoa | 123 |
| 1.4. Inklusioa | 74 | 6. Erakunde Agenda Digitalak | 125 |
| 1.5. Nire etxea interneten | 76 | 6.1. Aurkezpena | 125 |
| 1.6. Herritarren partaidetza | 78 | 6.2. Tokiko Agenda Digitalak bultzatzea | 127 |
| 2. Enpresa berritzailea | 81 | 6.3. Nazioarteko lidertza tokiko agenda digitalaren sustapenean | 129 |
| 2.1. Aurkezpena | 81 | 6.4. e-demokrazia | 130 |
| 2.2. Infozerbitzuak | 96 | 7. Ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa | 135 |
| 2.3. Enpresentzako eta eskaintzarentzako jardunak | 97 | 7.1. Bigarren belaunaldiko plan bat | 135 |
| 2.4. Administrazioak gidatutako inpaktu handiko proiektu integralak | 102 | 7.2. 2010eko EIGPren kudeaketa-egitura | 137 |
| 3. Zerbitzu publiko digitalak | 107 | 7.3. Komunikazio-plana | 141 |
| 4. Euskadi sarean | 111 | 8. Planaren finantzaketa | 143 |
| 4.1. Aurkezpena | 111 | | |
| 4.2. Euskal kulturaren eta euskal kultura-Ondarearen aldeko zerbitzuak | 114 | | |
| 4.3. Euskadik kalitatezko helmuga turistikoa gisa duen irudia indartzeko zerbitzuak | 115 | | |
| 4.4. Euskaraz erabateko esperientzia digitala ahalbidetzeko zerbitzuak | 116 | | |



Lehendakariaren
aurkezpena



LEHENDAKARIAREN AURREZPENA

Informazioaren teknologiak gure bizitzaren zati bihurtu zaizkigu. Gaur egun, egunerokotasunaren elementu arruntak dira, eta haien aplikazioek toki garrantzitsua hartu dute negozioetan eta gure harreman pertsonaletan, profesioaletan eta erakunde-harremanetan, baita geure etxeetan ere. Une batean pentsatzen badugu, nekez ulertuko ditugu egoera batzuk informazioaren teknologiarik gabe. Gogoratzen al da inor nola bizi ginen sakelako telefonorik gabe? Zer egingo genuke web-nabigatzaile batean gure intereseko gaia teklatu eta, besterik gabe, azken informazioa lortzerik ez bagenu?

Arretaz pentsatuz gero, azken urteotan informazioaren teknologiek eragindako aldaketa izugarria izan da, gogoratzen duguna edo irakurri duguna baino askoz handiagoa. Zenbaitetan, aurrerapen hori baimenik eskatu gabe sartu zaigu, eta ahalegin handirik egin gabe egin dugu bat harekin. Izan ere, alde on nabariak eskaintzen ditu, eta erraz eskura dezakegu. Beste batzuetan, berriz, teknologiaren sozializazioa ez da hain bizkorra izan, eta ahalegin handia eskatu du. Eraginpean hartutako kolektibo guztiek ez dute beti egin, edo ezin izan dute beti egin ahalegin hori, eta nolabaiteko arbuioa edo frustrazioa sortu da. Lanean jarraitu behar dugu inor atzean gera ez dadin. Izan ere, egoerarik okerrean daudenak tratatzeko moduaren arabera neurtzen da gizarte aurreratu baten garapenaren kalitatea.

Dirudienez, eraldaketa hori aurki izango dugu hemen, denbora kontua baino ez da, eta zeregin aktiboa bete behar dugu eraldaketa horretan. Eta, aldaketaren zain egon ordez, ahalik eta ondoen prestatuta egon behar dugu. Are gehiago, bigarren eraldaketa horren protagonistak izan nahi dugu, eta zeregin aktiboa bete nahi dugu, berrikuntzaren arloan erreferentziako herrialde izan gaitzen.

"Euskadi Informazioaren Gizartean" Planaren azken lau urteei begiratu bizkorra ematen badiegu, argi eta garbi ikusiko dugu Euskadin bilakaera hori nabaria eta etengabea dela. Datu-adierazleek islatzen dutenez, bide onetik goaz. Internet erabiltzeko ohitura duten herritarren ehunekoa bizkor ari da gora egiten, herritarren erdiak dira dagoeneko. Halaber, banda zabaleko konektagarritasuna errealitate bihurtu da lurralde osoan (gure herrian). Euskadin 10 langile baino gehiago dituzten enpresen artean, posta elektronikoa erabiltzen dutenen eta web-orria dutenen ehunekoa 27 herrialdeko Europar Batasunaren batez bestekoaren parekoa da, eta herrialderik aurreratuenen batez bestekotik hurbil dago. Nolanahi ere, irmotasuna bidelagun ona izango da aurrean ditugun erronketarako. Baliabide elektronikoen bidezko merkaturatzea eta saldu osteko zerbitzua, eta mikroenpresak aro digitalean txertatzeko aukera gaintu gabeko irakasgaiak dira oraindik. Gure isla izan behar duten herrialdeen estandarrak lortzeko, gaur egun haiekin parekatzeko geratzen zaigun distantzia ez ezik, datozen urtetarako aurreikusitako aurrerapena ere egin behar dugu. Alegia, haiek baino bizkorrago ibili behar dugu, eta hori ez da batere erraza. Izan ere, bilakaera hori, teknologikoa ez ezik, kulturala ere bada.

Eta kultura-aldaketa hori guztion artean egin behar dugu. Horixe da, hain zuzen ere, aurkezten ari garen plan berriaren erronka. Planaren espiritua izenburuan bertan islatuta dago: Euskadiko Agenda Digitala. Agenda da tresnarik egokiena erabaki, asmo eta konpromiso batzuk jasotzeko, bai eta horiek guztiak gauzatzeko baliabide zehatzak jasotzeko ere. Azken batean, herritar bakoitzak eta erakunde publiko edo pribatu bakoitzak helburu komun horretarantz beharrezkoak diren urratsak egiteko gida bat da agenda.

Eusko Jaurlaritzak Plana gauzatzeko jarri dituen baliabideak adimenarekin eta ikuspegi egokiarekin kudeatzen baditugu, eragin biderkatzailea izango dute gizartean.

Errealitatea oinarri duen agenda orok bezala, bizia eta dinamikoa izan behar du Planak, gure ingurunea ere halakoxea baita. Hori dela-eta, herritar guztiak, eragile ekonomiko, sozial eta politiko guztiak eta gizarte osoa bultzatu nahi ditugu datozkigun aldaketak identifikatzera, aldaketa horiek erronka eta aukera bihurtzera, eta estrategia eta ekintza berritzaileak eta zehatzak diseinatuz eta abian jartzera, eraldaketa horri alde aurreko jarrerarik onenarekin ekin diezaiozun.

Azkenik, azken helburua gogorarazi nahi nuke: euskal gizartearen garapen ekonomikoa eta iraunkorra lortzea, bizi-kalitatea hobetzea, askatasun arduratsuaren balio demokratikoetan aurrera egitea, eta egoerarik okerrean daudenekiko elkartasuna agertzea eta desberdintasuna onartzea. Azken batean, pertsonen eta pertsonentzat osatutako gizarte egitea. Eraikitzen ari garen informazioaren gizarteak hori guztia lortzeko eragileetako bat izan behar du. Horixe da nire eta Jaurlaritzaren konpromisoa.

Juan Jose Ibarretxe
Lehendakaria



Sarrera



SARRERA

Euskadin gizarte industrial tradizionaletik Informazioaren eta Jakintzaren Gizartera igartzeko — teknologia-, ekonomia-, gizarte- eta politika-alorrean erabateko aldaketa gertatu da eta pentsatzeko, lan egiteko, jarduteko eta bizitzeko modua aldatzen ari da— mailakako prozesu batean sartuta gaudelako uste osoa izateak eragin du eraikiko den gizarte-ereduari buruzko eta ekintza proaktiboari buruzko gogoeta sakona egitea.

1999. urtera jo behar dugu, urte horretan Internetarako sarbidea etheen % 6k zuen, eta Eusko Jaurlaritzak jardun batzuk sustatu zituen "Euskadi 2000Hiru Ekimenak" esparruaren barruan. Jardun horiek Euskadiko gizarte Informazio Gizartean erabat sartzea sustatzeko ziren, eta horretarako, indar handiz sortzen ari zen gune digital berria jarri zuen herritarren zerbitzura. Mundua digitalizatzen ari zen, eta aldaketa horien eraginaren eta aukeren aurrean Euskadik ezin zuen alde batera geratu eta, gainera, ez zuen geratu nahi.

Geroago, 2001ean, **Euskadiko Bigarren Eraldaketa Ekonomiko Handiari** ekiteko estrategia ezarri zen. Informazioaren eta jakintzaren Gizartea eraikitzea da estrategia horren oinarria. Lehenengo aldaketa handia laurogeiko hamarkadan hasi zen eta fabrikako produkzio-jardueren erabateko birmoldaketa eragin zuen.

Etorkizuneko apustu estrategiko horri eutsiz, plan batzuk gauzatu dira eta, horien artean, batzuk Informazio Gizartearen eremukoak dira. Gauzak horrela, 2002-2005 aldiko Euskadi Informazio Gizartean Plana (EIGP) sortu zen. Plan horrek hiru helburu hauek lortu nahi zituen: Europako herrialde aurreratuenekiko lehiakortasuna,

gizarte-kohesioa eta konbergentzia; horretaz gain, Euskal Administrazioaren jarduleen baterako ekintza bildu zuen eta finantza-arloko bultzada garrantzitsu bat sartu zuen aparteko horniduren bitartez.

Planak funtsezko hiru elementu zituen, eta horien gainean diseinatu zuen bere ekintza-esparrua. Lehenik, teknologia berrien erabilera motibatzen zituen eta horretan trebatuta zeuden ERABILTZAILAK lortu behar dira; horretarako, herritarrekin, enpresekin eta Administrazioarekin jardun zen.

Bigarrenik, Sarean dauden eta balio handia duten EDUKIAK ETA ZERBITZUAK eduki behar dira, eta horien gainean ahalegin handia egin da herritarrei e-osasunarekin, e-hezkuntzarekin eta hainbat edukirekin lotutako zerbitzuak eskaintzeko, baita mundu zabalari irekita dagoen gizarte digital honetan Euskararen presentzia bermatzeko ere.

Azkenik, Plana hedatzeko ereduak TEKNOLOGIKOKI AURRERATUTA ZEGOEN TESTUINGURU bat behar zuen, gainerako alderdien euskarri gisa jardungo zuen hirugarren elementu bat alegia, azpiegituren, araudiaren eta teknologia-egokitzapenaren eremuan lan handia egin behar baitzen.

Ahalegin horretan eta urte hauetan oinarrituta, Euskadik Informazio Gizartearen elementuak sartu ditu pixkanaka. Herritarrek, Administrazioak eta erakundeek badituzte, jada, Informazio Gizartearen funtzionaltasunetara sarbidea izateko behar diren baliabideak eta gaitasunak.

Legealdi honetan, Gobernuaren osatzeko (VIII. Legealdia) koalizio-akordioan ikusten da "hazkunde iraunkorren bidean aurrera egiteko, industria-sarearen lehiakortasuna bultzatzen jarraitu behar dugula, enpresa berriak sortzen eta enpresaburu txiki eta ertainei lagunduz, gizarte-ekonomia bultzatuz, teknologia, berrikuntza eta kalitatea indartzuz, **informazioaren gizarte berria sustatuz...**"

Akordio horretan bertan informazioaren gizarte berriari buruz hitz egiten duen atalean honako konpromiso hau zehazten da: "biztanleriaren kultura aldatuko duten politikak sustatu behar dira teknologia berriak erabiltzeko, horretarako IKTen (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) hedapena eta alfabetatze digitala sustatuko dira zailtasun handienak dituzten edo teknologia horiek lortzeko arazo handienak dituzten taldeetan batik bat.

Euskadi Informazio Gizartean Plana (2002-2005) teorikoki amaitu zenetik aurrera, Jaurlaritzak etengabe bultzatu du Informazio Gizartea. Bultzatzeko ekintza hori honako bi ibilbide hauetan gauzatu da:

- Euskadi Informazio Gizartean Planaren berariazko aurrekontu-programari eutsi zaio ondorengo aurrekontu-ekitaldietan ere. Eusko Jaurlaritzak estrategikotzat hartzen dituen proiektuak laguntzen jarraitu du programa horrek, hain zuzen ere, teknologiek eskaintzen dituzten aukerak Euskadiko gizarteak bere egiteko proiektuak.
- Euskadi Informazio Gizartean estrategian sartuta dauden Jaurlaritzaren hainbat plan onartu dira. Plangintza-lana oso garrantzizkoa izan da, eta, esate baterako, 2006-2009 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Plana eta 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana onartu dira. Bi plan horiek Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak koordinatu ditu eta gaiari buruzko aipamen garbiak dituzte.

Beste sail batzuk Euskal Administrazioak IKTen inguruan erabili duen strategiari buruzko beste plan batzuen buru izan dira; horien artean, esate baterako, honako hau aipatuko dugu: Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren

2006-2009 aldiko Informatika eta Telekomunikazioak Plana (ITP). Horretaz gain, eta IKTen zeharkako izaera dela medio, Jaurlaritzaren plan askok teknologien aplikazioari buruzko esanbidezko aipamenak dituzte.

Elementu horiek, etengabeko bultzada ahalbidetzeaz gain, Jaurlaritzaren jardun garrantzitsuei buruzko oinarri estrategiko berrikusiak, sendoak eta bat datozenak ezartzen dituzte, eta, ondoren, Informazio Gizartean egindako jardunak berriz diseinatzen dira oinarri horien gainean.

Une horretan, errealitateak erakusten digu Europar Batasuneko batez bestekoarekiko konbergentziarekin alderatzen badugu, IKTen hornidura- eta erabilera-mailak emaitza aipagarriak lortu dituela. Nolanahi ere, bide luzea geratzen zaigu oraindik; izan ere, emaitzak ez dira berdinak biztanleria talde eta enpresa-tamaina guztientzat, eta 2002-2005 aldiko EIGP planean konbergentzia lortzeko helburua indarrean dago oraindik.

Horretaz gain, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aurrera egiten ari dira norabide askotan, eta espero ez ziren emaitzak lortzen ari dira. Gero eta sofistikatuagoak diren zerbitzu aurreratuak garatzeko aukera berriak daude. Zerbitzu horiek eragin handia dute erakundearen lehiakortasunean, baita zuzeneko eragina ere pertsonen bizi-kalitatean. Aurrerapen horiek, halaber, erroka berriak ekartzen dituzte, hornidurak eta azpiegiturak etengabe eguneratzea ez ezik edukiak, zerbitzuak, gaitasuna eta lortutako jakintzak aberastea eskatzen dutenak ere.

Era berean, etorkizuneko apustua askoz ambizio handiagokoa da eta honako honetan zehazten da: "Euskadik Europako erreferente izan behar du berrikuntzari dagokionez" (Politika Orokorrari buruzko 2007ko irailaren 28ko hitzaldia).

Horrela, bada, jakintzaren bidez bizi-maila altua lortu nahi da; horretarako, nahitaezkoa da berrikuntza gizarte guztiarengana iristea. Eremu horretan, informazioaren

teknologiak bultzada bikoitza ematen duten tresnak dira: erakundeen eraginkortasuna bultzatzen dute (eraginkorra izatea) eta berrikuntza ahalbidetzeko mekanismoak dira (desberdina izatea). Berritzea ideiak balio bihurtzea da, eta teknologiak funtsezkoak dira mundua ikusteko, balioaren kate osoan eraginkortasunez jarduteko, eta erakundeak aldatzeko, merkatuetatik sortzen diren aukera berriak aprobetxatuz. Hortaz, informazioaren teknologiak berrikuntzarako palanka dira.

Era berean, plan honek bultzatzen duen berrikuntza gobernantza-sistemaren gainean pentsatu behar da. XXI. mendeko herrialde garatuetakoa erakundeek, eta hortaz Euskadiko erakundeek, honako hauek erantsi behar dizkiete beren antolamenduari eta herritarrei informazioa emateko nahiz herritarrekin elkarriketan jarduteko mekanismoei: teknologiek eskaintzen dituzten abantailak Irekitzeko, Administrazioan eta bere goi-karguetan korporazio-kultura aldatzearen eta Demokrazia hobetzeko abantaila horiek aplikatzearen aldeko apustu orokorra bultzatzeko dagoen premiarekiko konpromisoa hartu behar dute.

Argi dago ingurumen-arloan iraunkorra den ingurunean herritarren bizi-kalitatearen mailak eta Administrazio Publikoen, enpresen eta gizarte-erakundeen eraginkortasuna eta lehiakortasuna nabarmen igotzea ahalbidetzen duten informazioaren teknologietan eta komunikazioetan oinarritutako zerbitzuak erabiltzen dituen euskal gizarte parte-hartzailea lortzea aurreko planeko orientazioa eta proposamena eguneratzen haratago dagoela.

Euskadi Informazio Gizartean Plan berri bat landu behar da, baina ikuspegi estrategikoa aldatuz: IKTak erabiltzen dituen gizarte bat izatetik hazkunde iraunkorra sortzen duen, erabakiak hartzerakoan baterako erantzukizunaren eta partaidetza zibikoaren kotak hobetzen dituen eta jakintza oinarri hartuta kalitatea hobetzen duen gizarte bat izatera igaro nahi da.

Ikuspegi estrategikoa berri horrek erakunde-, ekonomia- eta gizarte-arloko eragile guztien bultzada eta partaidetza

aktiboa behar du, eta, horretarako, jarduteko berariazko plan bat diseinatu da. Plan horrek 2008. urtetik 2010. urtera bitarteko aldia hartzen du. Plan horrek hamarkadaren amaiera arte jardungo duenez gero, **EIGP 2010** deitu zaio, baita **Euskadiko Agenda Digitala** ere; izen motz horrek planteamenduaren zati handi bati buruzko informazioa ematen du.

Agenda Digital hitzak dokumentu biziaren izaera sartu du, eta adierazitako Informazioaren eta Jakintza Gizartea egiteko erronkei erantzuteko diseinatutako jardun-ildoak biltzen ditu. Epe motzera, ertainera eta luzera hedatzeko proiektu-zorro bat biltzen dute eta aldi berean egiten dute aurrera adierazitako helburuak lortzeko.

Plan hau Eusko Jaurlaritzaren (sail guztien inplikazioarekin) konpromisoa da, eta proiektu multzo batean gauzatu da aurrekontu-esparru koordinatuaren barruan. Proiektu horiek **EIGP 2010** planaren erdigunea osatzen dute. **Euskadiko Agenda Digitala**.

Eusko Jaurlaritzaren konpromiso irmoa izateaz gain, planak gainerako eragileak eta erakundeak gonbidatu nahi ditu kultura-aldaketa horretan modu aktiboan txerta daitezen. Horretarako, txertatze hori ahalbidetu eta erraztuko duten hainbat mekanismo arautu ditu Planak.

Hortaz, egoki iritzi diogu Eusko Legebiltzarrak diseinatutako laneko plana 2010eko EIGP planean txertatzea, teknologia berriak beti erabiliz, ordezkaritza-erakundeak irekitzen laguntzeko. Legebiltzarraren planaren arabera, irekitzea erabakitze eta parte hartzeko prozesuei buruzko gardentasuna eta informazioa ematen duen kontzeptua da. Ordezkaritza-erakundeak antolatze eta horietan lan egiteko beste modu bat sustatu nahi du Planak, herritarrak eta erakundeak elkarrekin harremanetan jartzeko beste aukera batzuk eskaintzen baititu. Era horretan, herritar aktiboak suspertu nahi dira eta herritar horien jakintza eta lankidetzaren erakunde publikoen erabakitze-prozesuen eraginkortasunaren alderdi gisa txertatu nahi dira.

Eusko Legebiltzarra arlo honetan gauzatzen ari den laneko planak bi dimentsio ditu; alde batetik, barruko dimentsioa, Eusko Legebiltzarraren erakunde-erloto eginkizuna eta ikuspegia eraldatu dituen, erakunde horren XX. urteurrenean hasi zen prozesuan; eta beste alde batetik, kanpoko dimentsioa, 2003az geroztik Europako Eskualdeetako Batzar Legegilearen Konferentziaren (EEBLK) demokrazia elektronikoaren lan-taldearen buru diharduela aintzat hartuta.

Dokumentu honetan **EIGP 2010** aurkeztu dugu: **Euskadiko Agenda Digitala**, diziplina anitzeko gogoeta-prozesuaren emaitza da, laneko eta eztabaidarako taldeak sortuz eta Euskal Administrazio barrukoen eta kanpokoen lankidetzari handiarekin.

Dokumentuak bi zati ditu. Lehenengo zatian egoeraren diagnostikoa egiten da, xedeak definitzen dira eta estrategia egokienak ezartzen dira; bigarren zatian, aldiz, helburu hori lortzeko diseinatutako jardunak zehazten dira.

Lehenengo zatiaren hasieran Informazio Gizarteak Euskadin dituen adierazleen emaitza nagusiak interpretatzen dira. Emaitza horiei esker, lortutako aurrerapenak baliozta daitezke, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabat gizarteratzeko bultzada berriren bat behar ote den ere.

Bigarren kapituluak Jakintza Gizartea lortzeko bidean sortzen diren erronkak zerrendatzen dira, eta honako hiru alderdi hauetan identifikatu eta biltzen dira: etengabe aldatzen ari den munduan jarduteko dagoen premia, erronka teknologikoen aurrean iritzia emateko dagoen premia eta aldaketa sozialak txertatzeko dagoen premia.

Ondorengo atalean 2010eko EIGP planarekin zerikusia duten eta planaren erreferente izan diren eta indarrean dauden planak edo ekimenak —kanpoko norbaitek edo Euskal Administrazioak berak proposatutakoak— zerrendatzen dira.

Azkenik, laugarren eta bosgarren kapituluetan Planaren estrategia deskribatzen da, baita ikuspegia eta ezartzen diren xedeak eta horiek lortzeko diseinatutako ekimenak ere. Halaber, helburu kuantitatibo egokienak zehaztu eta neurtzen dira helburu horien eginkizunen arabera.

Aurreko planari dagokion helburu kuantitatibo globala Europarekiko konbergentzia zen; Jaurlaritzaren akordioan azaltzen denak, aldiz, honako hau dio hitzez hitz: "informazioaren teknologien erabilerrari dagokionez, Estatu-eremuan Euskadi aitzindari izan dadin sendotzea, eta Interneteko erabiltzaileen indizeak Europako batez bestekoa gainditzea". Plan honen helburua, ildo horretatik, honako hau da: Informazioaren eta Jakintzaren Gizarte erabatekoa sendotzea eta aurrera egitea berrikuntzari dagokionez Euskadi Europako erreferente bihurtu arte. Asmo hori ezin da ulertu palanka diren alderdien, hots, IKTen ibilbidea ere paraleloa ez bada. Hortaz, helburu nagusia Europako herrialde aurreratuenekiko konbergentzia lortzea da berriz ere.

Dokumentuaren bigarren zatian planak landu nahi dituen zazpi ekimenak xehatzen dira.

- Pertsonen dagokienez, **herritar aktiboak** proposatzen ditu, herritar horiek trebatu eta horien partaidetza sustatu nahi du ongizate indibiduala eta kolektiboa handitzeko. IKTak modu homogeneoan hartu ez dituzten, bazterkeria digitalaren arriskuan egon litezkeen eta ekintza proaktiboekin edo prebentiboekin (ekintza horietarako plan honetako euskarriak erabil ditzakete) erantzun behar duten herritarrak. IKTak aukera gisa eta ez handicap¹ gisa hartzen dituzten herritarrak.


¹ "Informazioaren gizarte berria herritarren askatasuna eta partaidetza errazten duen gune bat da, baina, era berean, pertsonak eta lurraldeak bereizteko harresi berri bat "hesi digitala" izenekoa— sortzeko arriskua izan dezake" Gobernuaren osatzeko koalizio-akordioa (VIII. Legislatura).

- Enpresei dagokienez, **enpresa berritzailea** proposatzen du. Enpresa horrentzat informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera intentsiboak eta estentsiboak lehiakortasunaren igoera nabarmena ekarriko du produktu eta zerbitzu aurreratuak sortzeari dagokionez berrituz, baita negozio-prozesuak eta bere inguruko eragileekiko harremana eraldatuz eta antolamendurako eredu berriak sortuz ere. Enpresa berritzaile horrek, halaber, IKTen eta ikus-entzunezkoen edukien sektorea indartu nahi du, herrialdearen lehiakortasunerako euskarri izan dadin, nazioartekotutako sektore gisa sendotu dadin eta euskal ekonomian garrantzi handia izan dezan.
- Administrazio Publikoarentzat konpromiso bat da kultura aldatzeko eta zerbitzu publiko digitalak eta eduki aurreratuak betetzera egokitzeko
- Horretaz gain, **Euskadik sarean** presentzia izango duela bermatzen du, ingurune digital berrietan bertako kultura eta hizkuntza babestuko baitira eta turismo-baliabideen eskaintza jarriko baita Interneten erakuslehoan.
- Konpromisoa hartu du Informazio Gizartean sartzeko behar dituen **Infoegiturak** emateko Euskadiri, geografiako edozein gunetara helaraziz. Infoegiturak telekomunikazioen azpiegituretatik haratago doaz, Interneten kalitatea bermatuko duten tresnak ematen dizkie, sarerako eskuragarritasuna eta harekiko segurtasuna nahiz konfiantza bermatuz.
- Tokiko Administrazioari berariazko gonbidapena luzatu dio gizarte horren aldeko apustua egin dezan, bere Agenda propioa egin dezan; eta horretan laguntzeko, halaber, **Erakunde Agenda Digitalen** izenarekin hizkuntza komun bat eta estrategia konektatu bat sortu nahi du Euskadiko Administrazio guztientzat.
- Eta, azkenik, proiektu honek **kudeatzeko** modu berritzaile bat diseinatu du beretzat, ekintza partekatua eta parte-hartzailearen bitartez *traktore* izeneko proiektu batzuen inguruan, proiektu horiek diziplina askotarikoak izan daitezzen, garrantzi handia izan dezaten edota Sail edo erakunde bat baino gehiago edo Administrazioetik kanpoko eragileak mugiaraz ditzaten.

Administrazio Publikoa kudeatzeko edo kudeaketa ulertzeko modu berri hori Planaren beste helburu bat da. **Partaidetza eta baterako erantzukizuna nortasun-adierazgarriak izatea herritarren jakintzari balioa emateko sektore pribatuaren berrikuntzarako eta produktibitateko eta politika publikoak eraginkorrak izateko.**

Dokumentuaren amaieran Plana gauzatzeko Euskal Administrazioak aurreikusten dituen finantza-baliabideak azaltzen dira. Baliabide horiek EAEko Aurrekontu Orokorrekoak dira.

Hartutako konpromisoaren guztizko zenbatekoa 285.435.200 eurora iristen da 2007-2011 aldian. Dirukopuru hori 144.993.200 euroko ezohiko finantziario-partidek betetzen dute. Partida horiek ohiko finantza-ahalegina osatzen dute eta berariazko aurrekontu-programa batean azaltzen dira, aurreko Planean ezarri zen bezala.





I ZATIA:
DIAGNOSTIKOA
ETA
ESTRATEGIA



Euskadin,
non gaude?



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

EUSKADIN, NON GAUDE?

Euskadi Informazio Gizartean –2010eko EIGP planak gizarte horren gainean egingo ditu bere jardunak– garapenaren egoeraren diagnostikoak Informazioaren eta Jakintzaren Gizarteko adierazle garrantzitsuenei eta eskuragarri daudenei buruzko diagnostikoa izan behar du.


Adierazle horiek aztertzen hasi aurretik, gogoeta metodologikoa egin behar da; izan ere, Informazio Gizartean estatistiken erdigunea osatzen duten adierazleek problematika bikoitza dute: zatituta egotea eta erreferentzia-esparrua aldakorra izatea. Adierazitako estatistikak estatistika-erakunde nagusiek (Eustat, EIN eta Eurostat) argitaratu zituzten: horien partzelazioa eta erreferentzia-esparru aldakor baten existentzia.

Ez dago Informazio Gizarteari buruzko ezaugarri interesgarri guztiak biltzen dituen erreferentziako estatistikarik, baizik eta Informazio Gizartean alderdiak aztertzeko balio duten informazio batzuk daude. Horretaz gain, teknologien erabilerari eta eskuragarritasunari buruzko joeren aldaketak sendotzen ari dira; adierazleen adierazgarritasuna, aldiz, etengabe ari da berritzen, ikuskatzen eta aldatzen. Ez dago erabiliko diren estatistika-adierazleak biltzen dituen eta hitzartutako eta nazioartean aldera daitekeen balorazioa egitea ahalbidetzen duen azterketa-esparru egonkorrik.

Zailtasun horiek gainditzeko, 2010eko EIGP planaren egoera-diagnostikoa zatika egituratu da, adierazle taldeak kontuan hartuta, eta azterketa egin ondoren gertatutakoari buruzko ikuspegi argiagoa izatea ahalbidetzen dutenak aukeratu dira.

Nolanahi ere, esan dezakegu, azken urte hauetan izandako aurrerapen nabarmena erakusten dutela adierazleek, oro har. Adibide gisa, familietan hornidura sartzek eta sarerako sarbideak 2000. urtetik aurrera izan duten bilakaera ikus dezakegu.

IKTak gizartean sartzek izan duen bilakaera (guztirako familiak %-etan)



Iturria: Eustat

Adierazleen emaitzei esker esan dezakegu Europako batez bestekora hurbiltzeko ibilbidea positiboa izan dela, erreferentzia hori nahitaezkoa da, zeren aurreko planean batez besteko horretaranzko konbergentzia bilatzen baitzen. Hala eta guztiz ere, oraindik badago bidea egiteko. Hain zuzen ere, aipatutakoen oinarritzko adierazleari dagokionez (etxean Internetarako konexioa izatea), adierazi behar dugu Euskadiko etxeen % 44,5ek daukala konexioa, UE27ren batez bestekoa, aldiz, guztizkoaren % 54 zen 2007an.

Adierazleen aurretiazko ibilbidearen pertzepzioa ere zehaztu behar da plan honetan; izan ere, etorkizunean nahi den benetako konbergentzia Europako herrialde aurreratuekikoa da, eta orain arte lortutako emaitzak Europako² herrialde aurreratuenetatik –informazioaren

eta komunikazioaren teknologien gizarteratzea ia erabatekoa da— urrun daude oraindik. Hortaz, IKTEak sartzeari eta horien erabilerari dagokionez, aurreko urteetan lortutako mailari eutsi behar zaio.

Halaber, hainbat biztanle-kolektibo edo - talderi dagokionez, eta zenbait alderditan, alde handi samarra dago kolektibo edo talde horiek Informazio Gizartean sartzea azkartuko duten neurriei heltzen jarraitzeko.

Jarraian, eskuragarri dauden adierazleak zehaztuko ditugu. Adierazle horiek azalpen-arloa kontuan hartuta bilduta daude eta horiei esker, egoerari buruzko eta Euskadiko Informazio Gizartea hobetzeko landu behar diren alderdi garrantzitsuei buruzko balioespen handiagoa egin ahal izango da.

² Europa mailan, Informazio Gizarte arloan sailkapenean gailentzen diren herrialdeak: Danimarka, Suedia, Finlandia, Herbehereak, Erresuma Batua

Datu hori oso garrantzitsua da; izan ere, adierazten du Euskadiko herritarrak Internet sartzen ari direla beren eguneroko ohituretan, aldaketa hori trebakuntza handiagoa izatearekin eta Interneten ahalmena ahalik eta gehien aprobetxatzeko jakintza handiagoa izatearekin lotu behar da.

Beste alde batetik, biztanleria erabiltzaileak zer erabilera ematen dio sareari? Interneterako sarbidea informazioa lortzeko edo kontsultak egiteko erabiltzen da batez ere (% 99 web-orrietan sartzen da) eta posta elektronikoa erabiltzeko (erabiltzaileen % 83). Interneteko erabiltzaileen % 36k txatetan eta online bidezko foroetan parte hartzen du.


Informazioa lortzeko eta prentsa irakurtzeko erabiltzen da, batez ere, Internet. Hainbat alderdik —hezakuntza, edo Administrazioarekiko harremana, esaterako— asko igo behar dute oraindik. Merkataritza elektronikoaren sarrerak igoera izan du, erabiltzaileen % 27,8k erabiltzen baitu. Erosketa motari dagokionez, honako hauek nabarmentzen dira batik bat: bidaiak eta txartelak erostea eta alojamenduak eta oporrak erreserbatzea (biztanleriaren % 51k erosi zituen ondasunak eta zerbitzuak sarearen bitartez 2007an). Kopurua askoz txikiagoa da ikuskizunetarako txartelak eta sarrerak

erosteari dagokionez (erosketen % 11,5), baita liburuak eta aldizkariak edo material informatikoa erosteari dagokionez ere (% 10).

Azkenik, biztanleriaren % 38,8k erabiltzen ditu sareko banku-zerbitzuak; ehuneko hori Europako batez bestekoa baino txikiagoa da (% 44) eta Europako herrialde aurreratuenetako % 69tik oso urrun dago.


Beste alde batetik, herritarrak normalean etxean sartzen dira Interneten, ondoren, lantokian, eta azkenik, ikastetxeetan.

Interneten konektatzeko ohiko lekuak 2007an (16-74 urteko biztanleria internauta %-etan)



Iturria: Eustat y Eurostat

Interneten erabileraren helburuak. 2007 (16-74 urteko biztanleria internauta %-etan)



Iturria: Eustat

1.2 Aldeak herritarren artean

IKTen erabilerari dagokionez, adina kontuan hartzen badugu, aldea oso handia da, sexuen arteko aldea, ordea, txikiagoa da, eta gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden biztanle-taldeetan ere aldea oso handia da.

Prozesu globalarekiko duten kezkarakin batera, benetako sozializazioak eskatzen du garapena ahalik eta homogeneoena izatea talde demografiko guztietan, betiere adinaren, sexuaren eta talde sozialaren alderdiak kontuan hartuta.

Talde horiek aztertu ondoren, ikusi dugu IKTen erabilerari dagokionez, adina dela alde handienak eragiten dituen alderdia, gainerako alderdiekiko. Erreferentzia gisa Interneten erabilera soilik hartzen badugu, datuak irmoak dira, adinaren eta erabileraren artean alderantzizko erlazio dagoela ezartzen baitute. Alderantzizko erlazio hori gertatu da biztanleria gazteenaren dinamismo handiaren eta adin gehiago duten taldeen motibaziorik ezaren arteko erritmoan desoreka dagoelako.

Oso esanguratsua da adin gutxieneko taldean hamar gaztetik bederatzik Interneteko erabiltzaileak izatea, gazte horiek duten etorkizun-ikuspegiarengatik.


Bestalde, erabilerari dagokionez, sexuen artean dagoen aldeari dagokionez, neurrizko ehunekoei eusten zaie, gainera, ehuneko horiek hertsiki loturik daude adin handieneko taldeen —talde horiek dira gutxienez infosartuta

daudenak— osarearekin. Horretaz gain, ez dugu ahaztu behar alderdi teknikoekiko emakumeak izan duen urruntze historikoa.

Era berean, gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden kolektiboen bazterkeria digitalaren arriskua handia dela azaltzen duten adierazle partzial batzuk daude. Horrela, bada, esate baterako, langabeen eta ez-aktiboen biztanleria-taldeari dagokionez, % 20k erabiltzen du Internet eta lehen mailako ikasketak soilik dituztenei dagokionez, % 8k.

IKTen txertatze-maila kontuan hartzen badugu, eta Internet etxean erabiltzen dutenen adierazlea oinarri hartuta, hainbat pertsona mota bil ditzakegu: internauten kolektiboa, ohiko erabiltzaileen kolektiboa eta etxean erabiltzeko motibaziorik ez duen edo horretarako sensibilizatuta ez dagoen biztanleria-taldea. Kolektibo horrek honako hauek biltzen ditu: etxean konexiorik ez dutela esan dutenak (konexiorik nahi ez dutelako, behar ez dutelako, edo ezagutzen ez dutelako): % 32,5, zenbateko hori handia da.

Biztanleria internauta, sexuaren eta adinaren arabera. 2007. (16-74 urteko guztirako biztanleria, %-etan)




Iturria: Eustat

1.3 Hornidura eta erabilera ikastetxeetan

Ikastetxeetako hornidurak oso garrantzizkoak dira eta ikasleen nahiz irakasleen eskura dauden elementuak dira, baina hezkuntza-prozesuan ez dira txertatu dauzkaten ahalmen guztiekin.

Ikasleen % 88,4k du Interneteko konexioa duten ekipamendu informatikoetarako sarbidea bere ikastetxean (hezkuntza arautua). Ordenagailu bakoitzeko ikasle kopurua 9,0 ikasle da, ordenagailu bakoitzeko irakasle kopurua, aldiz, 3,7. Ikastetxeen % 90ek banda zabaleko Interneterako sarbidea du (unibertsitateen eta lanbide-heziketako ikastetxeen % 100 eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeen % 85).

Ikastetxeen egoera 2006-2007 ikasturtean, IKTei dagokienez.



Iturria: Ikastetxeetako IKTei buruzko inkesta.



1.4 Enpresetan sartzea


Informazio Gizartearen garapena desberdina da enpresetan, enpresa handietan aplikazio-maila handia da; aitzitik, ETEetan eta mikroenpresetan batik bat txikia da.

Enpresei dagokienez, Interneterako sarbidea, posta elektronikoa lan-tresna gisa erabiltzea eta webgunearen erabilgarritasuna dira izandako aurrerapena hobekien erakusten duten hiru adierazleak. 2007an, eta Eurostatek erabilitako metodologiaren arabera, Euskadiko establezimenduan % 64k zeukan Interneterako konexioa. Posta elektronikoa ezarpen-maila guztirako establezimenduen % 59 da, eta webgunea duten enpresak % 25 dira.

Dena dela, gainerako ekonomiekin gertatzen den bezala, IKTek Euskadiko enpresa-sarean izan duten sartzeko-maila askoz ere handiagoa da handi samarrak diren enpresetan. Horrela, bada, 10 langile edo gehiago dituzten enpresei dagokienez, IKTen erabilgarritasuna EB27ko batez bestekoaren oso antzekoa da, eta erreferentzia-herrialdeen egoeratik oso hurbil dago. Hain zuzen ere, 10 langile eta gehiago dituzten establezimenduen % 94k du Interneterako sarbidea (% 93 EB27an), % 95ek erabiltzen du posta elektronikoa eta % 63k dauka webgunea (proportzioa berdina da EB27an).

Jarduera-sektoreak ere nabarmen eragiten du IKTak hartzeko prozesuan. Bankua eta enpresa-zerbitzuetako enpresak dira IKTen ezarpen-maila handiena duten sektoreak (% 90etik zertxobait goragoko konexio-tasak). Kontrako aldean, aldiz, beren jardueran IKTak sartzeko joera txikiagoa duten sektoreak honako hauek dira: ehungintza/jantzigintza, eraikuntza eta garraio-sektorea eta komunikazioen sektorea (Interneterako sarbide-tasak % 50etik zertxobait gorago daude).


Aipatu behar den alderdi bat da Euskadiko enpresetako batzuk banda zabaleko sareekiko erabilgarritasun handia dutela. Interneterako sarbidea duten Euskadiko establezimenduen % 82k banda zabal bidezko konexioa du, hau da, guztirako establezimenduen % 53k. 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, guztirako establezimenduen % 84k dauka banda zabaleko konexioa, ehuneko horrek EB27ko batez bestekoa gainditzen du (% 78), eta bost herrialde aurreratuenen balioen antzeko balioak ditu.



Iturria: Eustat (Eurostat metodologia)

Enpresek ez dituzte erabat ustiatu sareko harremanen aukerak

Enpresek Sarea nola erabiltzen duten aztertzen badugu, ikusiko dugu enpresa gehienek dokumentuak bilatzeko erabiltzen dutela (% 94) edo bankuarekin izapideak egiteko (sarbidea duten enpresen % 71). Beste aplikazio batzuen –adibidez, bezeroekiko nahiz Administrazioarekiko harremanak eta abar– erabilera-mailak oraindik txikiagoak dira (enpresen % 40 inguru). Nolanahi ere, argi ikusten da aplikazio horiek guztiak etorkizunean gauzatuko direla.



Iturria: Eurostat y Eustat (Eurostat metodologia)

Merkataritzaren garapena eragozten duten alderdiak ez dira aldatzen denboran, alderdi garrantzitsuenetako bat beren produktua edo zerbitzua Interneten egoteko aukera ezari dagokionez, enpresek duten pertzepzioa izanik.

Sareak eskaintzen dituen merkataritza-aukerak ustiatzeari dagokionez, ikusi dugu sartze hori handiagoa izatea eragozten duten oztopo argiak daudela. Enpresen arabera, eragozpen garrantzitsuenetako bat produktuak eta zerbitzuak Internet bidez merkaturatzeko egokiak ez izatea da. Hortaz, ikusi dugu enpresen mentalitatean oztopo handi bat dagoela merkataritza elektronikoa gauzatzeko.

Bestalde, ikusi dugu asko igo dela Interneterako konexio mugikorra duten ordenagailu eramangarriak eskatzen dituzten erabiltzaileen kopurua, halaber, beren informazio-sistemak Internetera irekitzen dituzten enpresen kopurua ere hazi egin da, bezeroei, hornitzaileei eta enpresa bereko kideei urruneko sarbidea ahalbidetuz. Interneterako konexio mugikorraren eskaera bazegoenez gero, Euskadik haririk gabeko puntuak sortzea sustatu zuen wifi teknologiaren bitartez (KZ Wifi ekimena), eta ekimen horri esker wifi zonak hedatu dira hainbat lekutan, hala nola unibertsitateetan, hoteletan, biltzar-jauregietan eta azoka-esparruetan.



Iturria: Eustat

1.5 IKTen eta ikus-entzunezkoen sektorearen presentzia

IKTen sektorea Euskadiko BPGren % 3,8 zen 2005ean, hori da gutxi gorabeherako azken zenbatekoa. Jarduera-adarren arabera, zerbitzu-sektorean bildu zen enpresa horien % 80 eta, zehazkiago, informatika-arloko jardueretan eta makineriaren eta ekipoen alokairuan, guztirako 2.001 enpresatik 1.411 izanik.

IKTen sektorearen magnitude nagusiak 2005ean

| | Milaka eurotan | | | |
|--|--------------------|-----------------|----------------|---------------------|
| | Enpresak (kopurua) | Negozio kopurua | Balio erantsia | Okupatuak (kopurua) |
| Guztirako sektoreak | 164.086 | | 51.110.318 | 965.358 |
| IKTen guztirako sektorea: | 2.001 | 4.443.073 | 1.927.413 | 23.406 |
| - Industriari | 243 | 871.975 | 319.770 | 6.872 |
| - Zerbitzuetan | 1.758 | 3.571.098 | 1.607.643 | 16.534 |
| - Makineriaren eta ekipoen handizkako merkataritza | 212 | 374.563 | 75.712 | 1.378 |
| - Telekomunikazioak | 135 | 1.954.642 | 969.406 | 3.364 |
| - Makineriaren eta ekipoen alokairua eta informatika-jarduerak | 1.411 | 1.241.893 | 562.525 | 11.792 |

Iturria: Eustat

IKTen sektoreak, negozio kopuruari dagokionez, 4.443 milioi euro lortu zituen eta balio erantsiari dagokionez, 1.927 milioi euroko aberastasuna sortu zuen 2005ean. 23.406 laguni eman zien lana (guztirako landunen % 2,42); 6.872 lagunek industria-sektorean lortu zuten lana, eta 16.534 lagunek zerbitzu-sektorean.

Bestalde, ikus-entzunezkoen sektoreak 389 enpresa bildu zituen urte berean, eta 2.691 lagunentzako lana sortu zuten. 250 milioi euro inguruko negozio-bolumenarekin, % 56,3 telebistari zegokion, 36,8 zinemari, % 3,8 % multimedia formatuari, eta % 3,1 gainerako formatuei (bideoa, CDa eta DVDa).

1.6 Administrazio digitala ezartzea

Euskal Administrazio Publikoek badituzte azpiegiturak, oinarriko sistemak eta ereduak zerbitzu digital aurreratuak emateko, nahiz eta garapena desberdina den, udalerritxikietako eta ertainetako Tokiko Administrazioen kaltetan.

Eusko Jaurlaritzak Euskal Administrazio guztien erreferentzia izango den Administrazio Digitalaren Eredua definitu du. Honako hauek dira eredu horren elementu aipagarrienak: kudeaketarako eta kontabilizazioarako sistema bakarra izatea ordainketa- eta kobratze-eragiketa guztietarako, eta espedienteak kudeatzeko sistema bateratua izatea. Sistema horrek administrazio-prozedurak ezartzen ditu, eta horri esker, jarduteko arauak ezar daitezke, administrazio-espedienteak izapidetu daitezke, herritarrek espedienteak kontsultatzea erraztu daitezke, eta kudeaketa homogeneoari buruzko informazioa lor daitezke.

Sinadura elektronikoa eta ziurtapen-sistema martxan dago erabat, eta gizartea digitalizatzeko prozesuari dagokionez, funtsezko elementu nagusia da, Administrazioaren, pertsonen eta erakundeen arteko harremanak baimentzeko baldintzak ez ezik lizitazio elektronikoa ere ematen dituelako.


Eusko Jaurlaritzak Internet presentzia izateko eredu bakar bat ezarri da (teknologia, formatua, marka, erabiltzaileen segmentazioa, kudeaketa-eredua...). Eredua horrek Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu publikoen presentzia egituratu eta homogeneizatzen du euskadi.net atariaren bitartez, eta herritarrentzako arreta-zerbitzu berri bat diseinatu da: Zuzenean. Horretaz gain, hainbat zerbitzu eta Sailetan aurrerapen handiak egin dira gaikako atariak (Justizianet, GazteAukera, Euskalmet, Osanet) eta zerbitzu digital aurreratuak abian jarri (informazioa geografiko korporatiboaren zerbitzua, ingurumen-alorreko informazioa kudeatzeko sistema, garraioari buruzko informazio-sistema eta abar).

Zein da teknologia berrien erabilera-maila Administrazioaren eta herritarren eta enpresen arteko harremanean? Administrazioarekiko harremanari dagokionez, hiru oinarriko maila daude: informazioa lortzea, inprimakiak deskargatzea eta prozeduren izapidetze elektronikoa.

Hiru mailetan Europako batez bestekoaren aurretik dago. Informazio-mailari dagokionez, zerrendan lehenak dauden herrialdeetatik hurbil dago, inprimakiak deskargatzeko

mailari dagokionez, nabarmen gaintzen du adierazitako batez bestekoa, eta betetako inprimakiak bidaltzeko mailari dagokionez ere nabarmentzen da.


Herritarrei buruzko datuek erakusten dute Euskadi EB27ko batez besteko mailetatik hurbil dagoela; herrialde aurreratuenean kasuan, ordea, Administrazioarekiko harremana Internet bidez askoz ere handiagoa da, batez ere sofistikazio handiagoa eskatzen duten mailetan.



EAEN, biztanleria internautaren % 45ek Internet bitartez lortu zuen Administrazioaren informazioa 2007an (proporzio hori EB27ko datuaren oso antzekoa da eta bost herri aurreratuenean baino zertxobait txikiagoa), hau da, guztirako biztanleriaren % 23 inguru. Horretaz gain, internauten % 25 inprimaki ofizialak deskargatzeko konektatzen da eta % 13k bidaltzen ditu datu-orriak bete ondoren; tasa horiek EBko herrialde aurreratuenetakoak baino askoz beherago daude.


Azkenik, enpresei dagokienez, adierazi behar dugu Interneterako konexioa duten Euskadiko establezimenduen % 45ek erabiltzen duela tresna hori Administrazioarekin izapideak egiteko³.

³ Metodologiari dagokionez, aldeak daudenez gero, datu hauek ezin dira EBko datuekin



1 2 3 4 5 6 7 8 9 0
1 2 3 4 5 6 7 8 9 0





Ingurunearen
azterketa



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

2

INGURUNEAREN AZTERKETA



Jakintza Gizartea etengabe ari da aurrera egiten, egin behar den bideak, ordea, erronka berriak erakusten dizkigu eta erronka horiek hiru alderditan bil daitezke: etengabe aldatzen ari den munduan jarduteko dagoen premia, erronka teknologikoen aurrean iritzia emateko dagoen premia eta gizarte-inplikazioak txertatzeko dagoen premia.

2.1. Etengabe aldatzen ari den munduan jardutea

Euskadi mundura irekita dagoen *hiri eskualdea* da, aldaketen abiaduraren eta eraldaketa-mugimenduen menpe dagoen ingurune berri batean bete-betean murgilduta dagoena. Aldaketa eta mugimendu horiek paradigma berri batera gara-matzate, eta honako hauek dira horien ezaugarri nagusiak:

- **Merkatuen globalizazioa.**

Merkatuen globalizazioak eta merkatu berriak ez ezik herrialde lehiakideak azaltzeak ere —Europar Batasunaren kide berriak eta Asiako herrialde erraldoiak bereziki— aldaketa handiak ekarri dituzte merkataritza- eta produkzio-arloko harremanetan, horren ondorioz, informazioa, merkataritza-arloko eta distantzia handiko zerbitzuen harremanak kudeatu behar baitira.

- **Hazkunde iraunkorrerantz aurrera egiteko premia.**

Baliabide naturalen mugak eta erregai fosiletatik eratorritako energia-kontsumoa errotik murrizteko premiak eskatzen dute ekonomiaren desmaterializazioan ez ezik joan-etorri fisikoen premia murriztuko duten bizitzeko eta lan egiteko moduen antolaketa berrian ere aurrera egitea. IKTek ere bilakatu egin behar dute beren gailuen eta fabrikazio-prozesuen iraunkortasuna hobetuz.

- **Berrikuntzaren funtsezko zeregina lehiakortasuna iraunkorra eta jarraitua izan dadin denboran.**

Euskal gizarteak lortutako garapen-maila lortu duen gizarteak ezin du bere etorkizuna kanpoko teknologiak hartzeko eta kostuetan abantailak lortzeko planteatzen jarraitu, baizik eta horrelako gizarteak berrikuntzaren, kalitatearen eta ezagutzaren sorreraren erronkari tinko egin behar dio, are gehiago herrialdeen eta eskualdeen lehiakortasuna inoiz baino handiagoa denean. Erronka horren magnitudeak berrikuntza antolatzeke modu berriak eskatzen ditu, sareko lankidetzak sustatuz eta merkatura bideratutako teknologiararen garapena erraztuz.

- **Gizarte kalteberagoa eta arrisku handiagoak izan litzakeena.**

Era berean, informazioaren eta komunikazioaren sistemekiko mendetasunak eragiten du gizartea ciberkrimenarekiko eta informazioa manipulatzearrekiko kalteberagoa izatea. Komunikatzeko azpiegituren funtzionamendua, energia-hornidura eta informazio-sistemen babesa bermatzea funtsezko alderdiak dira sarean gauzatzen diren eragiketa eta transakzioekiko konfiantza eta segurtasuna zaintzeko eta horien hedapena eta garapena bermatzeko.

- **Erabiltzaileen kolektiboaren partaidetza igotzea.**

Aurreikusten da Interneten erabilera asko igoko dela, bai erabiltzaile kopuruari dagokionez, bai erabiltze bakoitzaren konexio-orduei dagokienez. Igoera horri sareen edukien konfigurazioan erabiltzaileek duten partaidetza handiagoa lotzen badiogu, erakundeen eta ohiko komunikabideen (prentsa, irratia edo telebista) mailara igotzen da eta horrek sarearen edukiak sendotzea baldintzatuko du neurri handi batean; horren ondorioz, muga tradizionalak gaindituko dira, euskarriak irekiagoak izango dira eta herritarrek adierazteko eta parte hartzeko bide bihurtuko dira.

- **Produktzio-sektoreen eraldaketa.**

Eraldaketa ekonomikoaren gune bat, produktio-sektoreek (industria, nekazaritza eta zerbitzuak) merkatu globaletan duten lehiakortasuna IKTak txertatzeari eta enpresa-arloko kudeaketa eredu berriei lotuta dagoena.

- **Lurraldearen dimentsioa berrikustea.**

Gune bat non, uniformetasunaren eta kultura-arloko desegitearen arriskuaren aurrean, txikia den, baina nortasun kultural handia duen herrialde bati IKTek ahalbidetzen dioten nazioarteko ikuspena eta proiektzioa eskuratzea, garapen **"glocala"** lortuz (ikuspegi globala izanik tokian jardunez).



2.2. Erronka teknologikoei buruzko iritzia ematea

IKTen ingurune bilakaera teknologikoa elektronikaren eta jakintzaren komunikazioaren eremu askotan izan diren aurrerapenek eragiten dute, eta aurrerapen horiek Informazio Gizartea eraldatzeko alderdi kritiko bihurtzen diren joerak osatzen dituzte, merkatuan eragin handia izanik eta, horregatik, erronka handia dira ikerketan eta garapenean.

Fidagarritasun handiena duten⁴ aurreikuspeneko txostenak aztertzen baditugu, honako joera hauek nabarmendu ditzakegu:

- **Aplikazio-konbergentzia.**

Ikusi dugu elkarren artean harreman handia duten ikerketa zientifikoaren eta teknologikoen alor batzuk daudela, alor horietako bakoitzean egiten diren aurrerakuntzek gainerako alorren aurrerapena sustatzen baitute neurri handia batean. IKTak honako hauekin daude harremanetan: nanoteknologioarekin (materiaren propietateak aprobetxatzea eskala nanometrikoan), bioteknologiarekin (biologian oinarritutako teknologia) eta zientzia kognitiboekin (giza gogamenari buruzko azterlanak).

Konbergentzia ez da garapen zientifiko eta teknologikora soilik mugatzen, baizik eta teknologia horren aplikazioetara ere hedatzen da. Aplikazio horien eragina oraindik handiagoa izango da haiek garatzeko erabilerarako eta sarbide unibertsalerako printzipioak kontuan hartzen baditugu.

- **Produktuen eta zerbitzuen arteko txertatzea IKTen alorrean.**

Produktuen eta zerbitzuen arteko txertatzea gero eta handiagoa dela erakusten diguten seinale asko dago. Produktuak fabrikatzeko behar diren teknologiak eta produktuetan bertan azaltzen direnak gero eta merkeagoak dira. Bestalde, fabrikazio- eta banaketa-zentroekiko komunikazioa erraza eta merkea da.

Epe ez oso luzean, garapen teknologikoak ahalbidetuko du nonahi, ia mugarik gabe eta arrazoizko prezioetan konektatzea. Konektagarritasuna hutsaltze horren aurrean, zerbitzuei —publikoak nahiz pribatuak— emango zaie balioa, eta zerbitzu horien barietatea eta sofistikazioa igo egingo da.

Arrazoi horiek direla medio, gero eta produktu gehiago hornitzen dira zerbitzuen salmentaren esparruan, telefoniaren merkatuan argi eta garbi ikusten den bezala; izan ere, operadoreek ia oparitu egiten dituzte telefonoak beren zerbitzuak kontratatzean. Testuinguru horretan, produktuen fabrikatzaileek konpontzeko erraza ez den paradoxa bat dute. Margenak murriztu direnez gero, masako produkzioa sustatu behar dute eskalako ekonomiak aprobetxatzeko; merkatuak, ordea, gero eta produktu pertsonalatuagoak eta erabiltzaile bakoitzaren premia eta gustuetara egokituago dauden produktuak eskatzen ditu. Egoera hori konpontzeko bi bide daude: fabrikazio-prozesu masiboak eta malguak izatea eta produktuak oso konfiguragarriak.

Halaber, gero eta integratuago dauden produktuen eta zerbitzuen ekonomiarako migrazioak honako hau eskatzen du:

- Produktuetan komunikatzeko ahalmenak txertatzea, kontsumitzailearekin zuzeneko lotura ezartzea ahalbidetzen dutenak eta lotura hori zerbitzu erantsiak emateko erabili ahal izango da, baita negozio-aukerak igotzeko ere.
- Bezeroaren profilak ezartzea ahalbidetuko duten teknologiak hartzea, marketingaren ondorioetarako ez ezik zerbitzuak emateko ere.
- Fabrikazio-prozesuak zerbitzu gisa merkaturatzea.

⁴ Institute for Prospective Technological Studies (IPTS), *Foresight on Information Society Technologies in the European Research Area – Key Findings (FISTERA)*, 2006. Institutu hori Europar Batasuneko Ikerketa Zentro Komunaren zazpi ikerketa-zentroetako bat da.

Produktuen eta zerbitzuen arteko sinbiosia sektore publikoan nahiz pribatuan ikus daiteke. Sektore publikoko adibide gisa, osasun-zerbitzuak aipatuko ditugu (prebentzioa, telediagnostikoa) eta hezkuntza-arlokoak (liburuak eta tutoretzak zerbitzu gisa emango dira). Sektore pribatuari dagokionez, entretenimenduaren industriak musika eta zinema euskarri fisikoan saldu ordez komunikazio digitalaren bideen bitartez egin dezake.

Hala eta guztiz ere, kate-balioak asko aldatuko dira gero eta indar handiagoa emango baitiote produktuarekin zerikusia duen inteligentziari erosi nahi den ondasunari berari baino.

- **Bandaren zabalera mugagabearen garapena eta terminal inteligenteak ugaritzea produkzioaren eta etxearen ingurunean.**

Garapen teknologiko hori terminalek azpiegituraren aurrean duten garrantzi handiagotan oinarrituta dago. Terminalak, orain arte, kostu txikiko tresna errazak ziren eta ahalmen oso mugatuak zituzten; izan ere, terminalen bilakaera azpiegituren bilakaerak ezartzen zuen. Komunikazioaren funtzionalitateak hainbat tresnatan (bideojokoen kontsolak) txertatzeak, ordea, aldatu egingo du erabat terminal bat zer denaren inguruko pertzepzioa.

Horren ondorioa da terminal kopurua nabarmen igo dela eta funtzionalitateak ez dituela, jada, sareak ezartzen; hortaz, terminala funtzionalitatea baino askoz garrantzitsuagoa da. Etorkizunean, terminal bat gauza izango da zerbitzu jakin bat eskaintzearen zein saretan konektatu nahi duen aukeratzeko (GPRS, EDGE, UMTS).

Azkenik, terminalek komunikazioen azpiegitura bat osatuko dute; era horretan, egungo azpiegiturak gero eta garrantzi txikiagoa izango du.

Terminal inteligenteen eredu horretan aurrera egiteko, nahitaezkoa da interferentziarik ez izatea ahalbidetuko duten mekanismoak garatzea, terminalen prozesu-ahal-mena, biltegi-dukiera eta autonomia-ahalmena, banda zabalaren erabilera malgua (bandaren zabalera eskatzen denaren arabera izatea) igotzea, eta mekanismo horiek eskura dagoen eta eskatzen den prozesuaren ahalmena konpentsa dezatela.

- **Ordenagailu pertsonalari alternatiba gisa txertatzen zaizkion sistemak.**

Saltzen den ordenagailu pertsonal bakoitzeko 100 mikroprozesadore baino gehiago daude hainbat aparatutan txertatuak: telebisten urrutiko agintea, eskumuturreko erlojuak, hoteleko geletako sarrailak eta abar.

Ordenagailuen protagonismoa murriztu egingo da moldakorrak diren eta erabiltzailearen premietara hobeto egokituta dauden (konektagarritasuna, mugikortasuna, eramangarritasuna, konbergentzia eta abar) aparatu alternatibo asko ugarituko direlako. Aparatu berri horiek konektagarritasuna eta prozesu-ahalmena emango dute eta informazioa ingurune egokiagotik lortzea ahalbidetuko dute (bideoa telebistan, haririk gabeko aurikularrak ahots-mezuertarako eta abar). Egoera horrek ahalbidetuko du zerbitzu berriak sortzea eta terminal askotatik sartu ahal izango da zerbitzu horietan.

- **Elkarreragina ezartzea telebista-eremuan.**

Teknologia digitalak aplikatzerakoan, Lurreko Telebista Digitala (LTD) sartzeak ahalbidetzen du prestazio hobea eskaintzea (kanal gehiago, irudiaren kalitate hobea edo bereizmen handiko irudia eta soinuaren kalitate hobea), baina, batez ere, ahalbidetzen du

telebista-birtransmisioei elkarreragina ematea, eta teknologia horiek IKTetarako sarbidea —bereziki Internet, komunitate birtualak, zerbitzu publikoak eta pribatuak eta abar— lortzeko bide izan daitezke.

2010eko apirilaz geroztik, telebistaren lurreko emisioak teknologia digitalaren bitartez egin beharko dira. Testuinguru berri horretan⁵, ikus-entzunezkoen sektoreak konbergentzia digitaleranzko migrazioari aurre egin behar dio, konbergentzia horrek aukera handiak eskaintzen baitizkie sartuko diren berriei eta erronka handiak kate tradizionalai.

- **Softwarearen ahalmen berriak.**

Sarean oinarritutako aplikazio indibidualak eta korporatiboak zabaltzearekin, softwarea aplikazio bat edo euskarri bat izatetik aplikazioaren benetako zerbitzu bat izatera igaroko da. Aurreikusten da sarean oinarritutako aplikazioak asko igoko direla, bai maila indibidualean, bai korporatiboan. Maila indibidualean, aurreikusten da hainbat aplikazio asko igoko direla, hala nola posta elektronikoa, agendak, abisu- eta alarma-sistemak, ofimatika, gogokoen kudeatzailea eta informazio teknika bilatzeko sistemak. Maila korporatiboan, aurreikusten da eskaera bidezko formatuan gauzatutako kudeaketa-aplikazioek izango dutela igoera handiena.

Halaber, software librea software jabedunarekin bizikidetzan sendotu da, eta jokaleku horretan, erabiltzaileek bata edo bestea aukeratu ahal izango dute dauzkaten premiei erantzuteko. Era berean, sistemak garatzen dituzten enpresek aldi berean erabiliko dituzte bi modalitateak, hori ari da gertatzen, hain zuzen ere, software jabeduna garatzen duten konpainia handietan.

Bestalde, sistemen arteko interoperabilitatearen eta aparatuen arteko eramangarritasunaren eskaera gero eta handiagoa denez gero, estandar irekiak nabarmen garatzen ari dira, baita estandar ireki horietan oinarritutako aparatuen eta sistemen fabrikazioa eta erabilera orokorra ere.

- **Mundu birtualen garapena.**

Orobat, aurreikusten da mundu birtualak izenekoak asko igoko direla. Mundu birtual horiek harremanetarako, aisialdiko eta denbora-pasako gizarte-premiak —igotzen ari dira— betetzen dituzte eta sarean oinarritutako aplikazioetarako euskarri birtual ezin hobeak dira maila indibidualean.

- **Pertsonen arteko plataformak eta euskarriak asko igo dira.**

Aurreikusten da pertsonen arteko komunikazio-plataformak eta -euskarriak (P2P) asko haziko direla. Formula horren arrakastak bultzatuko du berriak sartzea eta horiek lagunen eta ahaideen arteko sareak garatzen lagunduko dute.

⁵ LTD sistema 2005eko azaroaren 30ean atera zuten, eta ordura arte modu analogikoan ematen zuten telebista-kateak irekiko saio digitalak ematen hasi ziren, eta aldi berean, horretarako propio inauguratutako saio berriak gehitu zituzten. Azken bi urte hauetan LTD gisa bakarrik jarduten duten telebista-instalazio eta -kate berriak sortu dira.

2.3. Gizarte-inplikazioak txertatzea

Aldaketek hainbat gizarte-ondorio eragiten dituzte, eta horiek kontuan hartu behar dira Jakintzaren Gizarte bat eratzeko garaian.

- **Hobeto trebatuta dagoen, zorrotzagoa den, eta gehiago parte hartzen duen gizarte bat.**

Jakintza Gizarteak, hezkuntza-maila orokorrean igotzearekin batera, jakintza-bitartekoak jartzen ditu erabiltzaileen eskura. Bitarteko horiek jasotako zerbitzuen kalitatearen eskakizun-maila handiagoa dute. Halaber, 2.0 sareak eskaintzen duen konektagarritasunak laguntzen du herritarrek ekimen kolektiboetan lankidetzan jardun eta parte har dezaten, eta ekimen horiei esker, herritarrak teknologiaren garapenaren protagonistak eta eragileak dira. Horretaz gain, demokrazia elektronikoan aurrerapena handia izatea ahalbidetzen du.

- **Gobernantzan partaide izateko aukera gauzatzea.**

Erakunde ireki batzuek —mugarazi nahi dutenak— gizartean dagoen jakintza aintzat hartu eta aprobe txatu egiten dute erabakiak hartzeko beren prozesuetan txertatzeko, eta berriz antolatzen dira erronka horri erantzuteko eta partaidetza erraztuko duten tresnak sortzen dituzte. Irekitzea, beraz, erabakiak hartzeko prozesuei buruz eskura dagoen informazioa herritarren eskura jartzea da, hala nola partaidetzari bidea ematea eta plataforma errealak eta birtualak sortzea, bataren kudeaketa eta bestearen antolaketa erraztuko duten plataformak, hain zuzen ere.

- **Estiloa aldatzea beste eskakizun batzuekin aitzindari izateko, trebakuntzarako eta lan-bizitzarako.**

Gizartea balio eta portaera berriak onartzen ari da. Berrikuntza horien artean honako hauek daude, besteak beste: kultura eta pertsona desberdinak izatea, gutxiengoekiko errespetua eta integrazioa eta lana eta familia bateragarri egiteko eskakizunen eskaera handiagoa izatea.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek laneko mugikortasuna errazten dute, eta horrek, aldi berean, lana antolatzeko, onartzeko eta kudeatzeko modu berriak eskatzen ditu. Zuzenean ari dira eragiten lan-denboraren banaketan eta, batez ere, egiten den lanaren nondik norakoan eta aisialdia ulertzeko moduan. Eskuz egiten den lanaren ordez kualifikazio handiagoa duten lanpostu oso teknifikatuak jarri dira. Lanpostu horietan prozesu automatizatu berria oso-osorik ulertu behar da ahalik eta modu eraginkorrenean funtzionatzeko, sortzen diren ezustekoen edo egoera konplexuen aurrean jarduteko eta sistema horren jarduerak informatika-sistemen sarean koordinatzeko.

Lanbide berriak sortu dira eta teknologiaren boladaren aurreko zerbitzuetako lanbideak errotik eraldatu dira.

- **Aldaketa demografikoak: zahartzea, immigrazioa eta mestizajea.**

Jaiotza-tasak jaitsi izanak eta bizi-itxaropena igo izanak eragiten dute gizartea pixkanaka-pixkanaka zahartzea, eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu ekonomia- eta gizarte-mailan: belaunaldiz belaunaldiko ordeztzea eragozten du eta gero eta handiagoa den biztanleria helduaren taldea sortzen du, kualifikazio-maila oso handia duena eta berariazko zerbitzuak eskatzen dituena.

Halaber, etorkinen lan-indarraren iriste nabarmena gertatu da jatorrizko herrialdeetan irteteko presio-prozesua izan delako eta harrera-herrialdean, berriz, erakartzeko, kualifikazio txikiagoko eta lan-alderdian intentsiboagoak diren sektoreetako enplegu-eskaintza betetzeko.

Immigrazioari esker, demografiako emankortasun-tasak berreskuratu dira, zenbait enplegu-eskakizuni tokikoek erantzunik eman ez izana betetzen du, baina, halaber, berariazko eskakizunak sortzen ditu hezkuntzaren eta gizarte-laguntzaren arloan, kultura-integrazioaren arazo berriak sortzen baitira, eta horrek guztiak gizarte mestizo bat, anitzagoa eta kultura-balio berriak dituena ekartzen du.

- **Hezkuntzaren eta ikerketaren parametroak berrikustea.**

Bilakaera teknologiko azeleratu erabat irekiak jokaleku eta, horrenbestez, ikerketa eta hezkuntza guztiz **pluriteknologikoaren** aldeko apustua egitera garamatza. Gero eta konplexuagoak diren galderei ikuspegi anitzagoa izanda erantzun behar zaie.

- **Administrazio Publikoa aldaketaren bultzatzaile.**

Herritarrei bideratuta dagoen Administrazioa, Informazio Gizarteak modernizazioaren eta zerbitzuen kalitatearen bitartez aurrera egitea ahalbidetzen diona, herritarrek erraz eskura ditzaketen gero eta **zerbitzu digital aurreratu** gehiago sortzen dituen.

- **Prestakuntzaren eskaeran aldaketa bat.**

Etorkizuneko apustuak pertsonen gaitasuna hartzen dute kontuan. Ildo horretatik, IKTak tresna ahaltsoak dira pertsonen garapen indibiduala, lan-arlokoa eta gizarte-arlokoa gauzatzeko, baina tresna horien erabilera eraginkorra zeregin gero eta konplexuagoa da eta bilakaera teknologikoaren gorabeheren mende dago. Horregatik, bitzta osoko ikaskuntza-estrategia bat antolatu behar da, IKTen bilakaerak eskatzen eta errazten duena. Hasierako alfabetatze digitala **etengabeko hezkuntza digitalaren** zati bihurtzen da.



Erreferentzia
esparruak

3



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

3

ERREFERENTZIA ESPARRUAK

3.1. Informazio Gizartean eragina beste espazio-eremu batzuetan

Mundu mailan, Nazio Batuek, Informazio Gizarteari buruzko 2003ko eta 2005eko Munduko Goi-bileren bitartez, Informazio Gizartean ikuspegi bat ezarri dute. Ikuspegi horrek nabarmentzen du zenbaterainoko garrantzia duen IKTak hazkunde ekonomikoa, berdintasuna, garapen iraunkorra, bizi-kalitatea eta garapen-politika lortzeko erabiltzeak. IKTak erabiltzeko pertsona guztiek daukaten eskubidea eta horiek erabiltzeko duten aukera giza eskubideen egiazko aplikazioaren ardatz bihurtu dira.

Informazio Gizarteari buruzko Hiri eta Agintari Lokalen Munduko II. Goi-bilerak "Bilboko Aitorpena" onartu zuen 2005eko azaroaren 11n. Adierazitako aitoren Dekalogoan informazioa emateko eta jasotzeko eskubide unibertsala aldarrikatzen da, eta giza eskubideak, demokrazia, deszentralizazioa, aniztasunarekiko errespetua, herritarren partaidetza sustatzeari dagokionez Teknologia Berriek duten zeregina azpimarratzen da, baita desberdintasunak eta diskriminazioa murrizteko, lankidetzak bultzatzeko eta elkartasuna lparaldetik Hegoaldera garatzeko duten eragina ere.

Horretarako, sarean lankidetzan jarduteko mekanismoak definitu eta arautu ditu goi-bilerak. Printzipio-aldarrikapen horiek ekintza bihurtzeko dira mekanismo horiek. "Tokiko agenda digital" esamoldea, hain zuzen ere, IKTak sustatzeko politikari buruz dagoen jakintza partekatze ez ezik praktika onak eta lankidetzak aldeaniztuna hedatzen eta zabaltzen laguntzeko ere pentsatutako kolaborazio tresnatik dator.

Bilbon elkartu ziren tokiko eta eskualdeko botereen ordezkariak, halaber, konpromisoa hartu zuten Informazioaren Teknologia garapen iraunkorraren tresna gisa erabiltzeko;

Informazio Gizartean garapena sustatzen duten "tokiko agenda digitalak" ezartzeko herritarrengandik hurbilen dagoen ingurunean; software askearen erabilera sustatzeko; herritarren eta eskualdeen artean lankidetzak programak geureganatzeko hesi digitalik ez izateko; eta Elkartasun Digitalaren Fonda abian jartzeko, beste neurri batzuen artean.

Europa mailan, erronka teknologikoak eta arestian adierazitako gizarte-ondorioak erraz atzeman daitezke Europako Batzordeak proposatu duen i2010 Europako ekimenean⁶. Ekimen horren helburu nagusia Estatukideen ekintza koordinatzea da, 2010. urterako hiru lehentasun dituela:

- Informazioaren Europako esparru bakar bat lortzea (konbergentzia digitala). Esparru horrek honako hauek eskaini beharko ditu: banda zabaleko komunikazio eskuragarri eta seguruak, eduki aberats eta desberdinak eta honako hauek oinarri dituen zerbitzu digitalak:
 - **abiadura**: banda zabaleko zerbitzuen abiadura igotzea eduki aberastuak entregatzeko, hala nola bereizmen handiko bideoa;
 - **edukien aberastasuna**: segurtasun juridikoa eta ekonomikoa igotzea zerbitzu berriak eta lineako edukiak sustatzeko;
 - **interoperabilitatea**: «elkarrekin hitz egiteko» gai diren sistemak eta plataformak bultzatzea, baita plataforma batetik bestera eramanez daitezkeen zerbitzuak ere;
 - **segurtasuna**: Internet seguruagoa egitea iruzurraren, eduki kaltegarrien eta akats teknologikoen aurrean, inbertsiogileen eta erabiltzaileen konfiantza handitzeko.
- Berrikuntza eta inbertsioa indartzea informazioaren

⁶ i2010 – Informazioaren Gizarte europarra hazkunderako eta enplegurako, Batzordearen komunikazio Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari, COM(2005) 229 azkena, Brusela, 2005-06-01.

eta komunikazioaren teknologien ikerketaren esparruan enplegu berriak eta hobeak sortzeko.

- Ikuspegi iraunkorra abiapuntu hartuta, inklusioa, hazkundea eta enplegua sustatzen duen Informazio Gizartea; horretarako, zerbitzu publikoek eta bizi-kalitatearen hobekuntzak garrantzi handia hartzen dute.

Estatu mailan, Avanza Planaren helburua ICTak behar bezala erabil daitezen lortzea da Lisboako Agendarekin bat datorren ekonomia-hazkundearen eredu arrakastatsua izan dadin laguntzeko, lehiakortasunaren eta produktibitatearen hazkundean oinarritutako ekonomia-hazkundearen ereduaren arrakasta lortzen laguntzeko, baita gizartearen eta lurraldearen berdintasuna sustatzeko, erabilgarritasun unibertsala eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko ere. Bost jardun-arlo handiren inguruan egituratzen da Avanza Plana:

- **Lehiakortasuna eta berrikuntza**, ICTen sektorearen garapena Espainiako Estatuan bultzatzera bideratutako neurriekin, eta teknologikoki aurreratuak diren konponbideak har ditzatela Espainiako ETEek.
- **Hezkuntza garai digitalean**, ICTak hezkuntza-prozesuan, eta, oro har, prestakuntza-prozesuan txertatzen laguntzeko.
- **Zerbitzu publiko digitalak**, Administrazio Publikoek betetzen dituzten zerbitzuak hobetzea ahalbidetuko duten neurriekin, herritarren bizi-kalitatea eta enpresen eraginkortasuna handituz.
- **Testuinguru digital berria**, banda zabaleko azpiegiturak hedatzea sustatuko duten, teknologia berriak erabiltzeari dagokionez, herritarrengan eta enpresetan konfiantza sortuko duten, segurtasun-mekanismo aurreratuak emango dituzten eta eduki digital berriak sortzea bultzatuko duten jardunak gauzatu.
- **Etxea eta herritarren inklusioa**, etxeetan ICTen erabileraren hedapena bermatzeko eta inklusioa handitzeko eta sustatzeko neurriak gauzatzeko dira; horretaz gain, herritarrek bizitza publikoan parte hartzeko eremuak handitzen dira.

2.0

3.2.. Informazio Gizartean eragina Eusko Jaurlaritzaren ekimenetan

Egungo planak 2002-2005 aldiko Euskadi Informazio Gizartean Planak (EIGP) gauzatutako ekintzaren emaitzak biltzen ditu, eta Plan horretako proiektuek lortutako aurrerapenen esperientzia oinarri hartuta, aurrerapen horiek hartu, egokitu eta berrikusi egin ditu proposatutako erronka berriak gauzatzeko.

Bestalde, Planak Jaurlaritzaren ekintzaren konpromisoak biltzen ditu. Adierazitako ekintzak honako alderdi hauek hartzen ditu aintzat:

- Informazioaren teknologien erabileran Estatuko aitzindaritzan sendotzea Euskadi, eta interneteko erabiltzaileen indizeak Europako batez bestekoa gainditzea.
- Informazio Gizartea garatzeko tokiko gobernuen nazioarteko foroen garapenean aitzindari izatea.
- Informazio Gizartean garapenari laguntzea, lege-esparru garbiaren eta egonkorren bitartez.
- Informazioaren eta jakintzaren teknologia berriak txertatzeko aukera onartzea, unibertsitateko irakas-kuntza eta ikerketa kudeatzeko euskarri gisa; IKTek efektu biderkatzailea baitute unibertsitate-eremuan.
- Mugikortasuna, estaldura handia eta banda zabala ahalbidetuko duten teknologia berriak sartzen laguntzea.
- Biztanleriaren kultura aldatuko duten politikak sustatzea teknologia berriak erabiltzeko, horretarako IKTen hedapena eta alfabetatze digitala bultzatuko dira zailtasun handienak dituzten edo teknologia horiek lortzeko arazo handienak dituzten kolektiboetan batik bat.

Horretaz gain, indarrean dagoen plangintza sektorialaren ekintza oparoa denez gero, IKTen izaera horizontala dela medio eta Euskal Administrazio Publikoaren hainbat estrategia edo planetan beste ekintza batzuen euskarri

izateko duen gaitasuna dela medio, 2010eko EIGP planak helburuak partekatu nahi ditu, baita ekintza horien jarduna ikusi eta haiekin bat egin ere.

Plan horiek, funtsean, bi motatakoak dira: Euskadiko Bigarren Eraldaketa Ekonomiko Nagusia bultzatzeko eta sustatzeko plan estrategikoak, hau da, erakundeei eta enpresei mundu global eta ireki batean lehiatzea ahalbidetuko dieten baldintzak emango dizkietenak; eta zerbitzu publikoentzako plan estrategikoak, Administrazio Publikoa oinarri dutenak.

Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Plana eta 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana lehenengo tipologian sailkatuta dauden planak dira; bigarren tipologian, aldiz, 2008-2010 aldiko Administrazio eta Gobernu Elektronikoaren Plan Estrategikoa eta 2006-2009 aldiko Informatika eta Telekomunikazioak Plana —Administrazio Eraberritzeko eta Administrazio Elektronikorako Idazkaritza Nagusiak eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak bultzatu ditu, hurrenez hurren— daude bilduta, baita Lehendakariordetzako Idazkaritza Nagusiari dagokion Euskadiko Gobernantza Plana ere⁷.

2010eko EIGP plana gizartea eta erakundeak Bigarren Eraldaketa Ekonomiko Handia lortzeko eta sustatzeko plana da. Euskadiko Bigarren Eraldaketa Ekonomiko Handia hiru zutabetan oinarritzen da:

- Informazioaren eta Jakintza Gizartea egitea.
- Euskadi erreferente izatea Europako esparruan ikerketan eta teknologian.
- Kalitate Osoaren printzipioa erakundeak kudeatzeko modu gisa hedatzea.

Hortaz, EIGP planaren asmoa IKTak Euskadiko pertsonengan eta erakundeetan gizarteratzeko prozesua azkartzea da. IKTak teknologia horizontalak dira eta horiek "gizarteratzeak" herrialde berritzailea garatzen lagunduko du.

⁷ 2006an Euskadiko Gobernantza Planaren oinarritzko ildo estrategikoak onartu ziren: Euskadiko Administrazio Publikoan politika publikoak berritzeko eta ebaluatzeko eredia

Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Planak jarduneko hiru ardatz nagusiren aldeko apustua egin du: pertsona prestatuak eta bigarren eraldaketarako balio berriak; ekonomia globalean lehiatzeko dimentsioa eta taldeak, eta berrikuntza enpresetan eta gizartean.

Informazio Gizartea hirugarren ardatz horretan azaltzen da esanbidez: Euskadiko herritar guztiek Informazio Gizarteak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeko behar diren baliabide eta gaitasunak izan ditzaten laguntzea. Informazioaren eta komunikazioen teknologiak Euskadiko enpresen negozio-prozesuetan sartzea eta aplikatzea enpresa horien lehiakortasuna hobetzeko. Negozioa eta teknologia berrietan oinarritutako jarduerak ager daitezten bultzatzea, Euskadiko egungo produkzio-egitura dibertsifikatzen eta Administrazio gardenagoa eta hurbilagoa izaten lagunduko dutenak.

2010eko Zientzia eta Teknologia Plana (2010eko ZTP) berrikuntza-politiken hirugarren belaunaldiari ekiteko diseinatu da. Plan horren oinarritzko ideia zera da, berrikuntzak eta hura oinarritzen duen sormenak arlo guztiak iragazkortu behar dituztela, emaitza ekonomikoetan eragina duten gizarte bateko arlo guztiak. 2010eko EIGP plana 2010eko ZTPrekin lotuta dago, bai garatzen den ereduaren planteamenduari dagokionez, bai jardun-arloetan, baita ekintzaldian ere.

2010eko ZTP planaren arabera, jakintza ereduaren muina da; hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza, aldiz, eredu hori lortzeko tresnak, eta garapen iraunkorra helburua. 2010eko EIGPk planteamendu horiek berak biltzen ditu bere ikuspegiaren barruan. Halaber, ZTPren jardun-arloei dagokionez, EIGPk arlo horietako batzuk bultzatu eta indartzen ditu: IKTen euskal sektorearen lehiakortasunak Informazio Gizartearen zerbitzu aurreratuen erreferente izan behar du, baita gizarte-berrikuntzaren arloan ere, enpresa-eraldaketari, ingurune eta lurralde inteligenteei eta ikerketa sozialari eragiten dionari dagokionez, Euskadi Informazio Gizartearen Plan berri hau arautzen duten hainbat proiektutan biltzen denaren arabera.

2010eko ZTP planean epe ertain-luzean IKTen sektorerako identifikaturiko erronkak eta joerak honako hauek dira:

- Komunikazioak. Sareen hurrengo belaunaldia sortzea eta egun daudenak azpiegitura fidagarri, seguru eta eskalagarriak lortzeko bilakatzea.
- Informazioa eta edukiak: elkarreragina, interoperabilitatea, eduki bera plataforma eta gailu askotan aprobetxatzeko aukera eta aplikazioak multi-sektorialak izatea.

IKTen garapen teknologikoa eta berrikuntza honako lehen-tasuneko aplikazio-eremu hauetan oinarrituta dago:


- e-Administrazioa: interoperabilitatea, digitalizazioa.
- Asistentzia-teknologiak eta sistemak.
- Familia Sarean: azpiegiturak eta zerbitzuak dagokion testuinguruan segurtasunez kokatuak eta gailuen arteko konektagarritasuna dutela.
- e-Berrikuntza: jakintzaren eta kapital sozialaren kudeaketa.
- Garraio Inteligentea: pertsonen eta merkantzien lekualdaketa hobetuko duten sistemak, euskarri diren azpiegiturak hobetuz eta lekualdaketen eta joan-etorrien efizientzia eta kalitatea igoz.
- e-Energia, energia sortzeko eta banatzeko sistema berriak garatu, kontrolatu eta monitorizatzea.
- Antolamendu Digitala, kudeatzeko eredu aurreratuak, enpresen eta erakundeen, oro har, kokapen aniztasunari eta mugikortasunari eutsiko diotenak.
- e-Segurtasuna: izaki bizidunak eta objektuak sareetan eta IKT azpiegituretan ezagutzeko, identifikatzeko eta babesteko sistemak, erabiltzaileei konfiantza emateko eta dauden datuen eta zerbitzuen legezko erabilera eta erabilera etikoa ikuskatuz.

Ondorengo grafikoan azaltzen da 2006-2009 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Planaren ikuspegitik, Jaurlaritzaren planek duten lotura, berrikuntza ardatz gisa hartuta.

Informazioaren teknologien izaera poliedrikoak –ikerketa-eremu gisa, jarduera-sektore gisa, berrikuntza- eta lehiakortasun-prozesuen bideratzaile gisa, zerbitzu publikoak hobetzeko bultzatzaile gisa– eragiten du beste plan askotan ere azaldu behar izatea. 2010eko EIGPk alderdi horiek guztiak biltzen ditu eta agendaren honako definizio honetara bideratzen ditu: agendak Euskadiko Informazio Gizartearen elementuak sartzeko etapa gainditzen lagundu behar du hazkunde iraunkorra eta bizi-kalitatea sortzen duen

gizarte batera igarotzeko, betiere Informazio Gizartea erabiliz.

2008-2010 aldiko Administrazioaren eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoak Gobernuak honako hau lortzeko jarritako helburuari erantzun nahi dio: "Pertsonen zerbitzura dagoen administrazio modernoa, gertukoa eta eraginkorra". Bere izenak dioen bezala, Administrazioarentzako Informazio Gizartearen Plan bat da. Garatuko dituen lau jardun-programetik bi: digitalizazioa zerbitzu publiko eraginkorra emateko tresna gisa eta gobernua herritarren eskura egotea EIGPen bilduta dauden ekimenekin lotuta daude zuzenean. Adierazitako ekimenak honako hauek dira: herritar aktiboak eta zerbitzu digital pulbiko aurreratuen garapena.



Berrikuntza-Agendak

2006–2009 aldiko Informatika eta Telekomunikazioak Plana, informazio-sistemak Administrazioaren eragin-kortasuna eta efizientzia hobetzeko (barruan edo kanpora begira) oinarritzko tresna gisa ulertzen eta horrelakotzat hartzen dituen plana. Adierazitako planak lau estrategia-ildo ditu, eta honako ikuspegi hauek aintzat hartuta laguntzen diote EIGPri:


- azpiegitura teknologikoak, Administrazioen balio-katearen euskarri izanik,
- Administrazio elektronikoa, Interneten bere presentzia sustatzeko eta zerbitzu telematikoak ez ezik elkarrekiko eragina ere bultzatzeko,
- kudeaketaren hobekuntza, informazio-sistemak funtsezkoak izanik,
- antolaketa, honako hauek biltzen ditu: jakintzaren prestakuntza eta kudeaketa, IKTen kudeaketa estrategikoa, aukerak berritzea eta identifikatzea eta aldaketa kudeatzea.

Euskadiko Gobernantza Plana, bere estrategia-ildoetan, Europak egindako apustuan oinarrituta dago. Adierazitako apustua honako hau da: Administrazio Publikoen jarduna eta antolamendua ulertzeko modu berria du Europak, baita Administrazio horiek gizarte zibilarekiko duten elkarrekintza ulertzeko ere, pertsona gobernu-ekintzaren azken hartzailetzat eta gobernuaren partaidekidetzat hartzen baitute. Plan horren arabera, informazio-teknologiaren erabilera balio handiko baliabidea eta tresna da, Administrazioek elkarrekin eta Administrazioek herritarrekin harremanak izaten laguntzen duelako (e-Administrazioa edo gobernu elektronikoa); era berean, parte hartzeko eta erabakiak elkarrekin hartzeko bideak ematen dizkielako herritarrei. Gobernantza Planak 2. ardatzean zehazten du informazioaren teknologiaren erabilera hori: *Partaidetza sozial eta demokratikoa indartzea eta politika publikoak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeari dagokionez.*





2015-2020





Gizarte berri
bat, plan berri
bat



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

4

GIZARTE BERRI BAT, PLAN BERRI BAT



Aurreko hiru kapituluetako azalpen luzea kontuan hartuan, honako hau laburbildu dezakegu:

- A) Azken urte hauetan, euskal gizarteak Informazio Gizartearen elementuak sartu ditu, baina oraindik erabat txertatu ez dituenz gero, ez ditu lortzen Europako herrialde aurreratuenetako mailak, eta hortaz, Jakintzaren Gizarte bat egiteko nahi diren mailak.
- B) Aldatzen ari den munduan egokia eta nahitaezkoa da **lankidetzan jardutea** globala, lehiakorragoa eta aldaketa teknologiko handiak dituen ingurunean **hazteko. Zerbitzu eraginkorragoak** garatu behar dira, baita jakintza sortzen lagunduko duten eta herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetuko duten intereseko edukiak eskaini ere; horretaz gain, bizitza osoko etengabeko ikaskuntzari eutsi behar zaio.
- C) Herritarrentzako eta erakundeentzako hobekuntzak diren alderdi asko ematen dituzte IKTek. Administrazio Publikoek, ingurune guztietan, onartzen dute teknologia horietarako sarbidea eta horien erabilera gobernuaren ekintzaren elementu estrategiko bat dela eta estrategia hori bultzatzeko jardun esplizitoak edo inplizitoak zehaztu behar direla. Euskal Administrazio Publiko barruan ezaugarri horiek beren gain hartzen dituzten planak edo ekimenak daude, eta 2010eko EIGPk jarduten duen aldian plana osatu egiten dute eta laguntza ematen diote.

Alderdi horiek guztiak lotuz, Euskadiko gizartean honako elementu hauek daude ildo estrategiko gisa:

✓ ***Pertsonak dira Informazio Gizartearen ardatz eta eragile***

Edukiak sortzerakoan eta zerbitzu digitalak sortu eta garatzerakoan erabiltzaile/herritarrek duten partaidetza aktiboa aukera ezin hobea da gaur egun dauden ahuleziak gainditzeko eta aukera berriak bilatzeko:

- Bezeroen benetako premia eta itxaropenetara egokitutako zerbitzu digital aurreratu publikoak eta pribatuak sortzea sustatu behar da.
- Demokrazia-prozesuen gardentasuna eta kalitatea handitu behar da.
- Bitarteko digitaletan Euskararen, euskal kulturaren eta turismo-baliabideen presentzia sustatu behar da.

Horretarako nahitaezkoa da herritarrak behar bezala ekipatuta eta trebatuta egotea, baita motibatuta eta inplikatuta egotea ere.

✓ ***Dauden enpresei aukera ematea eta enpresa berriak sortzea***

Aukera handiak daude lehenik dauden enpresek beren lehiakortasuna igo dezaten ekonomia irekian eta globalizatuan, IKTek batez ere ETEetan eta mikroenpresetan palanka-efektua eginez; izan ere, horien dimentsio-eza IKTen xurgapenaren (bere estrategia lehiakorrarekin bat datorrena) bitartez ordezkatu behar da:

- Jakintza modu intentsiboan eta estentsiboan ustiatu behar da produktuak eta zerbitzuak berritzeko eta horien produktibitatea igotzeko.
- IKTetan oinarritutako zerbitzuak eman behar zaizkie produktuei beren balioa igo dezaten.
- Edozein alorretan edo merkatutan lehiakorrak izateko behar den masa kritikoa lortzea ahalbidetuko duten kolaborazio-sareak sortu behar dira.
- Sortzen ari diren joera sozialetatik eratorritako problematika eta aukerei erantzungo dieten produktu eta zerbitzu digitalak sortu behar dira.
- Bereziki, edukiak eta zerbitzuak sortzeak enpresa-arloko beste aukera batzuk irekitzen ditu, esate baterako, enpresa berriak sortzeko. Software librea eta estandar irekiak IKTen sektorean orokortzeak aukera horiek indartzen ditu.

✓ **Administrazio Publikoek duten zeregin garrantzitsua**

Garrantzizkoa da Administrazio Publikoak Informazio Gizartean egiaz inplikatzea hainbat ikuspegitatik:

- Herritarrentzako eta enpresentzako zerbitzu digital aurreratuen hornitzaile gisa.
- Lehen mailako eragile ekonomiko gisa, eta IKTei esker bere efizientzia igotzen denean, askoz gehiago lagunduko du eskualdeko lehiakortasuna hobetzen.
- Informazioaren eta Jakintza Gizartean modu aktiboan parte hartzeak zenbaterainoko garrantzia duen oraindik ez dakiten herritarren dinamizatzailer gisa.
- Prestakuntza-zerbitzuen hornitzaile gisa gai digitalari dagokionez, herritar trebeak lortzeko. Oraindik ere badaude hesi digitalak, eta zerbitzu

digitalen sofistikazioa gero eta handiagoa denez gero, hesi horiek handitu egin daitezke. Horregatik, nahitaezkoa da zerbitzu digital aurreratuak sartzeari eta erabiltzeari dagokionez, trebakuntza iraunkorra lortzeko jardunei eustea, alfabetatze digitaletik haratago.

- Herritarren aukeren berdintasunaren bermatzaile gisa, berariazko jardunei eutsiko die kolektibo atzeratuei edo bazterkeria digitalaren arriskuan dauden kolektiboek bideratutako horniduraren, kontzientziazioaren eta oinarritzko trebakuntzaren eremuetan.
- Euskarari eta euskal kulturari buruzko edukien sortzaile gisa.
- Euskaraz erabateko esperientzia digitala ahalbidetuko duten tresnen sustatzaile gisa, ekimen pribatua iristen ez denean.
- Eragile publiko eta pribatuen jardunen eragin-kortasuna eta iraunkortasuna sustatuko duen informazio estrategikoaren sustatzaile gisa.

✓ **I+G+Bren etengabeko garapena**

Teknologien eta gizarte-erabileren bilakaerak gaitasunak etengabe eguneratzeko ahalegina egitera behartzen du:

- I+G+Bren jarduerak garrantzizko esparruetan sustatuz.
- Sareko azpiegituren eta sartzeko ekipamenduaren indarraldiari eutsiz.
- Erabiltzaileek behar dituzten gaitasunak etengabe eskuratzea erraztuz.
- Joerak zaintzeko sistema ezarriz funtsezko eremuetan, jardueren birbideratze zehatza arinduko duen sistema.

✓ **Sarean lankidetzan jardunez, partaidetzaren eta baterako erantzukizunaren bitartez egin daitezkeen hobekuntzak.**

Eragileen —publikoak edota pribatuak— ahaleginak antolatzeko aukerak gizartean erabilgarriak diren helburretan dituzten interesak eta erronkak konbinatzeko gauza izateko, honako hauen bitartez:

- Helburu komunetan lan eginez.
- Erantzukizun partekatuak norberaren gain hartuz.
- Eragile bakoitzaren baliabideen, jakintzen eta gaitasunen artean ahalik eta sinergia handiena lortuz.

Ilido horiek oinarri hartuta egin da 2010eko Euskadi Informazio Gizartean Plan (Euskadiko Agenda Digitala) hau. Plan horrek bere gain hartzen du gizartearen aldaketa kualitatiboa gauzatzeko nahia eta, horregatik, aldaketa horri bultzada emateko eredu berri bat egin du.

Gizarte-aldaketa gizarte parte-hartzailea lortzera bideratuta dago. Gizarte horretan IKTetan oinarritutako zerbitzuen erabilerak ahalbidetuko du herritarren bizikaltatearen mailak nabarmen igotzea, baita Administrazio Publikoen, enpresen eta gizarte-arloko erakundeen efizientzia eta lehiakortasuna ere ingurumen-arloan iraunkorra den ingurune batean.

Aldaketa kualitatibo horren ondorioz, asmoen ikusmoldea bera ere aldatu egin da, honako hauen arabera:

Horren ondorioz, adierazpenari dagokionez, Plan berriaren diseinua ere aldatu egin da kontzeptu berrietara egokitzeko, aldaketak ez dira semantikoak bakarrik, eredu berri bat lortzeko estrategia berrikusi eta berriz formulatu baita.

2002tik 2010era bitarteko aldaketa kualitatiboa

IKTak sartzetik *erabateko gizarteratzera*

Konektagarritasunetik *erabilgarritasunera*

Alfabetatze digitaletik *autonomia digitalera*


Teknologia berrietatik *konponbide teknologikoetara*

Kanal bakarretatik *multiplataforma eta multikanaletara*

Proiektu berezietatik *proiektu traktoreetara*

Euskadi Informazio Gizartean Planaren eredu berri hori ondoren azalduko dugu zehatzago, eta bertan, asmo horien eraldaketa aipatuko dugu ikuspegi, xede eta ekintzarako ekimen batzuk aintzat hartuta.

| 2002ko EIGP – 1.0 eredua | 2010eko EIGP – 2.0 eredua |
|--|--|
| Informazio Gizartea lortzeko bidea egitea | Partaidetza Gizartea kontzeptua sartu du |
| Herritarra erabiltzaile gisa | Herritarra aktiboa eta parte-hartzailea |
| Hesi digitalaren aurkako borroka inklusiorantz | Teknologia egunero erabiltzen duen egungo Gizartetik Kultura Teknologikora |
| IKTen erabilera orokorraren aldeko apustua egiten duen Etorkizunerako oinarriak sortzea | Euskadin IKTek honako hau ordezkatzten dute: etengabe bilakatzen ari den Oraina |
| Plan bat garatu duen Gobernu bat | Partaidetza sustatzen duen Gobernu bat: informazioa emanez, entzunez eta erreakzionatuz elkarriketari esker |
| Komunikazio Ekintzak | Komunikazio Plana |





2010eko EGIP
planaren
Planteamendua



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

5

2010EKO EIGP PLANAREN PLANTEAMENDUA

5.1. 2010eko ikuspegia

2010eko Euskadi Informazio Gizartean Plana honako ikuspegi hau lortzera bideratuta dago:

Nortasun propioa eta kohesionatua duen herrialdea, oso jantzita dauden, ingurumenarekiko errespetua duten eta informazioaren eta komunikazioaren baliabide teknologiko asko erabiliz beren lanbide-jarduerak, jarduera pertsonalak eta gizarte-arlokoak etengabe eraldatzeko gai diren pertsonak eta erakundeek —enpresa-arlokoak eta gizarte-arlokoak— osatzen dutena; honako hauek sustatu eta ahalbidetzen dituen: sarean lan egitea, jakintzarako sarbidea izatea eta jakintza hori sektore pribatuan nahiz publikoan parte hartuz aplikatzea, eta eragileen, gizartearen turismo-baliabideen eta euskal kulturaren presentzia munduan; eta teknologia horiek berak euskarri dituzten zerbitzu publiko eta pribatu aurreratueterako sarbidea ematen duena, produktibitateari laguntzen diona eta bizikaltate hobea izaten laguntzen duena.

Ikuspegi hori lortzeko, alde batetik, gizarte-sistemak funtzionamendu egokiaren bermea eratzen duten hiru euskarritan oinarritu behar du:

- Konfiantza eta segurtasun digitala,
- azpiegituren elkarrekiko eragina eta
- pertsona eta erakunde guztien gizarteratzea eta eskuragarritasun soziala.


Beste alde batetik, nahitaezkoa da herritarrek eta enpresek eta erakundeek behar diren gaitasun digital aurreratuak eskuratzea eta edukiak sortzen eta **zerbitzu** publiko eta pribatu aurreratuak eta berritzaileak eskaintzen lagunduko duten baliabidea edo **infoegiturak** (hitz honekin infosistemen, azpiegituren, estandarren eta plataformen garapena biltzen da) edukitzea.

Horregatik, 2010eko EIGPren jardunak elkarrekin hertsiki erlazionatuta dauden eta elkarri laguntzen dioten hiru jardun-eremuren inguruan arautzen dira:

1. Pertsonen, enpresen eta erakundeen TREBAKUNTZA sustatzea digitalki autonomoak izatea ahalbidetuko duten e-gaitasunak garatzea lortzeko.
2. ZERBITZU PUBLIKOEN eskaintza bat sustatzea eta ZERBITZU PRIVATU AURRERATUEN (lehiakorragoak eta eskuragarriagoak) eskaintzari laguntzea prozesuen BERRIKUNTZAREN bitartez, Administrazio Publikoetan, enpresetan eta gizarte-arloko erakundeetan konponbide teknologiko egokiak hartuz. Horiek guztiek honako honetan eragingo dute:
 - Erakundeetan eta organizazioetan —publikoak nahiz pribatuak— (zerbitzu pribatuak, Administrazioaren eta herritarren arteko harremanak eta irekitzea sustatzea garrantasunaren eta erakundeetan parte hartzeko aukeren arteko batura) produktibitatea hobetzen.

- Bizi-kalitatea hobetzen (zerbitzu publikoak, prestakuntzarako eta informaziorako sarbidea, herritarren arteko harremanak) gizarte integratu eta inklusibo batean, ingurumenarekiko errespetua duen eta kultura-nortasunari eusten dion gizarte batean, hain zuzen ere.
 - Erakunde parte-hartzaileek erabakiak hartzeko prozesuen kudeaketa sustatzen. Kudeaketa horren arabera herritarrek eta herritar horiek biltzen dituzten erakundeek erabaki horiei buruz duten jakintza ere baliozkoa izango da erabaki eraginkorragoak eta parte-hartzaileagoak hartzeko.
3. Euskarri izango diren INFOEGITURAK (plataformak, segurtasuna, estandarrak, egiturak eta gailuak) sortu eta gara daitezen sustatzen.

Proposatutako elementu guztiak funtsezkoak dira orokorrean, eta horiek guztiak landu behar dira jarduteko eredia osoa eta koherentea izan dadin. Aldagai horien arteko harremanak ezarrita daude ondorengo grafikoan:



5.2. Bost xede

Egindako Ikuspegian jauzi kualitatibo inplizitua lortzeko 2010eko EIGPk honako bost xede hauek ezarri ditu:

- Herritar aktiboak: Herrialde kohesionatua eta bertako herritarrak adituak izango dira, bai eduki eta zerbitzu digital aurreratuak erabiltzeko, bai, bereziki, horiek sortzeari, garatzeari eta ongizate indibidualaren eta kolektiboaren zerbitzuan jartzeari dagokionez modu aktiboan lankidetzan jarduteko.**

Web 2.0 izenarekin biltzen diren funtzionaltasunak eta zerbitzuak azaldu izanak erakutsi du erabiltzaileek edukiak sortzeko eta zerbitzu digitalak sortzeko eta garatzeko nahitaezko kolaboratzaile gisa izandako partaidetza aktibotik ahalmen handia eratortzen dela.

Etorkizunean, nahiz eta erronka handia izan, ez da nahikoa izango euskal herritarrak eduki eta zerbitzu digital aurreratuak erabiltzeko gai izatearekin. Euskadik aurrera egin nahi badu Informazio Gizartearen abangoardian, nahitaezkoa da gizarte hori garatzeko modu aktiboan parte hartzeko behar diren eskumenak eta motibazioa izatea euskal herritarrek, baita gizarte-arloko lankidetzasarekiko interesa izatea ere.

Jomuga horien azken helburua honako hau izango da: askotariko diziplinei buruzko jakintza biltzea, hobetzeko aukera bihurtzea eta herrialdearen gobernantzari dagokionez, erakundeen eta herritarren arteko harremanari dagokionez, bi norabideko prozesuak antolatzea eta baterako erantzukizunari laguntzea, baita politika publikoak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen laguntzea ere.

Eduki eta zerbitzu aurreratuak erabiltzeko eskatzen diren gaitasunak gero eta konplexuagoak diren heinean, biztanleriaren sektore garrantzitsuak baztertuta geratzeko arriskua dago. Hesi digitalaren aurrean gauzatuko den jardunak, arindu ordez, indarrean egon beharko du eta aurrerapen teknologiko eta sozialetara egokitu beharko du.

2006-2009 aldiko Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Planean azaltzen denaren arabera, teknologiaren garapen iraunkorra eta berrikuntza dira jakintzaren ekonomiaren funtsezko ezaugarriak. Pertsonak etengabe ikasi behar dituzte ideia edo gaitasun berriak, edo etengabeko prestakuntza-jardueretan parte hartu behar dute. Era horretan, ikasteko gaitasun hori zeregin berriei aplikatu ahal izango zaio, eta horri esker, onura ekonomiko eta sozialak lortuko dira.

Euskadik gabeziak ditu prestakuntza iraunkorraren alorrean, etengabeko prestakuntza-programetan izena eman duten pertsonen proportzioa txikia baita. Ikaskuntza iraunkorraren adierazleei dagokionez, Euskadiren posizioa eskasa da (% 4,9) eta Europa hegoaldeko herrialdeekin bat egiten badugu, Erkidegoaren batez bestekotik behera dago (% 10,7) eta herrialde aitzindarietatik oso urrun (% 35,8, Suediaren kasuan eta % 28,6 Suitzaren kasuan).

Prestakuntzako ahalegina norbanakoaren bizitzaren lehenengo urteetan biltzen da eta oso txikia da lan-bizitzan zehar. Hortaz, nahitaezkoa da prestakuntzako bizitzaren eta lan-bizitzaren arteko bereizketa alde batera uztea. Eginkizun horretan IKTek zeregin bikoitza dute: alde batetik, baliabide baliagarria izatea etengabeko ikaskuntzan, eta, beste alde batetik, aurrera egiten ari den arloa izatea, gaitasun indibidualak etengabe hobetzen aritzea eskatzen duena.

- Enpresa berritzailea: Euskadiko enpresek, tamaina eta sektorea alde batera utzita, edozein sektoretan edo merkatutan arrakastaz lehiatzea ahalbidetuko duten lankidetzasareak sortzeko erabiliko dituzte IKTak modu intentsiboan eta estentsiboan, baita berritzeko ere, bai beren bezeroak asebeteko dituzten produktuak eta zerbitzuen garapenari dagokionez, bai beren jardun propioari dagokionez; era horretan, eraldatu ahal izango dira lehiatzeko dituzten gaitasunak uneoro hobetuz.**

Euskal enpresei dagokienez, oinarriko zerbitzu digitalen ekipamenduaren eta erabileraren maila orokorrak gogobetekoak dira, baina enpresa handiak soilik, eta batzuetan, enpresa ertainak dira gai gaur egun IKTak erabari probetxatzeko.

Nahitaezkoa da euskal enpresak, bereziki ETEk eta mikro-enpresak, IKTak erabiltzeko gai izatea, eraginkorragoak izateko, beren produktibitatea handitzeko eta berritzeko. Planaren diagnostikoan ikusten den bezala, gap garrantzitsua dago enpresa txikiaren eta gainerako enpresen artean, eta hori arindu egin behar da.

Horretaz gain, IKTek aukera handia eskaintzen dute enpresa txikiak eta ertainak lehia dezaten orain arte sartu ezin ziren merkatuetan, eskatzen den masa kritikoa lortzea ahalbidetuko dieten lankidetzaren sareetan txertatu daitezkeelako enpresa horiek.

Aldi berean, sendotzea eta etengabeko berrikuntza aukera paregabeak dira IKTak eta ikus-entzunezkoak aldi berean garatzeko, gero eta lehiakorrago den eskaintza bat osatzen lagunduko duen garapena lortzeko.

Horregatik, 2010eko EIGPk honako hau nahi du:

- Euskadiko enpresen —batez ere, ETEen eta mikroETEen— lehiakortasuna nabarmen areagotzea IKTak modu intentsiboan eta estentsiboan erabilita, produktu eta zerbitzu aurreratuen sorrera berrituz, negozio-prozesuak eta inguruko eragileekiko harremana eraldatuz, eta antolamendurako eta negozioarako eredu berriak sortuz.
- IKTen eta ikus-entzunezko edukien sektorea bultzatzea, herriaren lehiakortasunerako euskarria izan dadin, eta nazioartekotuta dagoen eta euskal ekonomian pisu garrantzitsua duen sektore gisa sendotuz.

Sektore oso zehatzetarako —turismoa, esaterako— informazioarene ta komunikazioaren teknologien eragina erabakitzailea da, sektore hori, bere jarduerak garatzeko, intentsiboa baita informazioaren alorrean. Interneteko informazioaren erabilera eta informazio horretarako sarbidea demokratizatu denez gero, pertsonen (bisitariak) portaera-ereduak eta —arauak aldatu egin dira, baita turismo-industria ere. e-Businessen erabilerari dagokionez, sektoreak abangoardian egon behar du, e-Marketinga eta e-Merkataritza ere hor barnean daude.

3. Zerbitzu publiko digital aurreratuak: Euskadiko herritarrek eta enpresek eduki eta zerbitzu digital publiko aurreratuak edukiko dituzte eta haien egiazko premia eta itxaropenei erantzun diete beren bizi-kalitatea handitzeko.

Informazio Gizartearen ageriko emaitza zerbitzu digitalak dira. Gaur egun, Euskadiko erabiltzaileek oinarriko zerbitzu digitalak (Internetarako sarbidea, esaterako) dituzte eta horiek erabiltzen dituzte normalean informazioa lortzeko; horretaz gain, posta elektronikoa edo SMS mezuak daukate.

Euskal Administrazio Publikoek eskaintzen dituzten zerbitzu digital aurreratuen garapena desberdina da, bai helburuko bezeroei dagokienez (zerbitzu gehiago enpresentzat partikularrentzat baino), bai zerbitzua ematen duen Administrazioaren tamainari dagokionez (oro har, udal txikiak eta ertainak ozta-ozta eskaintzen dituzte informazio estatistikotik haratago dauden zerbitzuak). Nolanahi ere, ahalegin handia egin dute Administrazio digitalaren garapen orokorra lortzeko kontzeptuei, teknikei eta legeei buruzko oinarriak ezartzen; ahalegin horren ondorioz, logikoki, zerbitzu digitalen leherketa gertatuko da hurrengo urteetan.

Plan honek bultzatzen duen berrikuntza gure gobernantza-sistemaren gainean proiektatu behar da. XXI. mendeko herrialde bateko erakundeek honako hauek erantsi behar dizkiete beren antolamenduari, herritarrei informazioa emateko mekanismoei eta erakundeekin elkarriketan jarduteko mekanismoei: teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak

4. Euskadi sarean: Herrialde bat, non bertako herritarrek, enpresak eta erakundeak gai izango diren Euskararen eta euskal kulturaren presentzia aberatsari, dinamikoari eta etengabeari eusten Interneten eta baliabide digitaletan; horretaz gain, euskal kulturaren nortasuna gordetzen eta hedatzen ahalbidetu dira, baita euskal herritarrei erabateko esperientzia digitala Euskaraz ematea bermatzen ere. Herrialde ireki eta abegitsua, helmuga erakargarria milaka urteko kultura eta dauzkan turismo-baliabideak direla medio.

Informazio Gizartean, digitalizatu ez diren edo online bidez eskuragarri ez dauden edukiek, bai kultura-arlokoak, bai beste mota batekoak, protagonismoa galduko dute nabarmen. Hortaz, nahitaezkoa da Euskadiri, euskal kulturari eta gizarteari buruz dauden edo egon daitezkeen eduki guztiak digitalizatzen eta Interneten ez ezik beste baliabide digital batzuetan ere argitaratzen jarraitzea. Kultura-ondarearen digitalizazioak informazio hori eskuratzeko aukera handitzen du eta horretaz gain, hura gordetzen laguntzen du.

Bestalde, Europako gainerako hizkuntzak hitz egiten dituztenen kopuruarekin alderatzen badugu, euskaraz hitz egiten duen biztanle kopurua txikia izateak mugatu lezake Euskaraz dauden edukiak eta zerbitzu digitalak merkaturatzearen garapena, baita hizkuntza horretarako hizkuntza-tresnak egitea ere.

Horregatik, nahitaezkoa da Administrazio Publikoek batez ere, baina baita gizarte zibilak ere betetzea merkataritza-ekimena iristen ez den arloak, esperientzia digital osoa Euskaraz gauzatzeko dela bermatzeko; horretarako, behar diren tresna, zerbitzu eta eduki guztien garapena eta itzulpena sustatzeko dira.

Presentzia birtualetik haratago, Informazio Gizarteak laguntzen du Euskadi sarearen bitartez ezagutzen dutenek urratsak eman ditzaten hura fisikoki ezagutzeko eta turista bihurtzeko. Aldi berean, helmuga turistiko gisa Euskadik duen lehiakortasun globala honako honen arabera da: alde batetik, informazioa eta bere edukia kudeatzeko duen gaitasunaren arabera, eta beste alde batetik, informazio eta eduki horiek eskaerentzat eskuragarriak eta operatiboak izateko duen gaitasunaren arabera. Azken finean, turismo-edukia duten zerbitzu integratuak erabiltzeko gaitasunaren arabera (baliabideak, hornitzaileak, alojamenduak, logistikari buruzko informazioa eta abar), hots, bisitariak (B2C), beren produktuak osatzea bilatzen duten enpresek (B2B) erabil ditzaketen zerbitzuak, edota zerbitzu horietan sartzen diren artean parteka ditzaketenak.

Hirugarrenik, ez da soilik eskaintza osorako (hotelak, jatetxeak, aisialdia, kultura-turismoa, negozio-turismoa) sarbidea erraztea eta helmugari buruzko "pakete dinamiko" eskaintzea, baita helmugari buruzko kalitatezko irudia sortzea, irudi berritzailea eta azken turistarentzat iradokitzailea dena ere.

5. Infoegiturak: Herritarrak, Enpresak eta Euskal Administrazioak edozein lekutan daudela sartuko dira Informazio Gizartearen zerbitzuetara, segurtasun-maila handia duten bide eta gailu askoren bitartez.

Euskadiko ia biztanleria guztiak banda zabaleko estaldura badu ere, hori eskuratzeko prezioak oztupo dira banda zabaleko konexioak intentsiboki erabiltzeko.

Badirudi garapen teknologikoak ahalbidetuko duela nonahi konektatzea, ia mugarik gabe, prezio merkeagoetan eta balioaren ekarpena zerbitzuen alorrera —publikoak nahiz pribatuak— eramango da, eta horri esker, konektagarritasuna ugariagoa eta sofistikuagoa izango da.

Bestalde, teknologien eta erabileren bilakaera nabaria da bide berriak, batez ere haririk gabeak eta sarbiderako gailuak, horien artean, lurko telebista digitala eta telefonia mugikorra agertu izanak erakutsi digun bezala. Egungo azpiegiturek bilakatu egin beharko dute erabileraren eredu berrietara egokitzeko eta beren gaitasunak igotzeko, zerbitzu digital berri eta gero eta sofistikuagoetarako sarbidea eta horien erabilera bermatzeko.

Merkataritzako transakzioak egiteko zerbitzu digitalen erabilera orokorra izatea eragozten duen beste alderdi garrantzitsu bat honako hau da: erabiltzaileek ez dute segurtasunik; horregatik, bi jardun mota egin behar dira: alde batetik, merkataritza-transakzioetan segurtasun teknikoa eta juridikoa igotzeko ekintzak, eta, beste alde batetik, hedatzeko eta sensibilizatzeko ekintzak herritarrentzat.

5.3. Ildo estrategikoak eta programak

Bost xede estrategikoen hedapena zuzenean erlazionatuta dauden eta antzeko definizioa duten 5 ekimen abian jarri gauzatu da. Adierazitako ekimenek 19 jardun-programa biltzen dituzte, baita proiektu asko ere. Aurreko Planean azaltzen ziren proiektu batzuk kenduta, proiektu horietako asko berriak dira, bai tituluari dagokionez, baita kontzeptu-arloko planteamenduari dagokionez ere.

Ekimen horietaz gain, beste bi ekimen gehiago daude. Erakunde-agenda digitalak izeneko ekimen bat, Tokiko Agenda Digitalak egitea sustatu nahi dituzten eta Agenda Digitalak sustatzeari dagokionez Euskadi nazioartean aitzindari izatea indartu nahi duten bi programa biltzen ditu.

Ildo horretatik, Eusko Jurlaritzak, UNITARrekin lankidetzan (Prestakuntzarako eta Ikerketarako Nazio Batuen Institutua) garatzen ari da, CIFAL Bilbaoren bitartez (Tokiko Eragileak Prestatzeko Nazioarteko Zentroa), Tokiko Agenda Digitalen nazioarteko programa bat.

Azkenik, zarpigarren ekimena dago, Ezartzeko, Jarraipena egiteko eta Ebaluatzeko ekimena, hain zuzen ere. Ekimen horrek garrantzi propioa eman nahi die kudeaketa- eta komunikazio-zereginei, baita Planaren Idazkaritza Teknikoaren zereginei ere.

Kudeaketa- eta koordinazio-zereginak hobetzeko premia, baita Informazio Gizarteak guztioi ekar diezazkigukeen aukera eta proiektuak zabaltzeko eta komunikatzeko ekintzak egiteko premia ere aurreko planaren ibilbidearen irakasgaiak dira. Horregatik ekimen hau ez da aurrekoen seien berdina.

| Ekimena | Programak |
|---|---|
| 1. Herritar aktiboak | <ul style="list-style-type: none"> 1. Bizitza osoko ikaskuntza 2. 2010eko ikastetxea 3. Inklusioa 4. Nire etxea Interneten 5. Herritarren partaidetza |
| 2. Enpresa berritzailea | <ul style="list-style-type: none"> 6. Infozerbitzuak 7. Enpresentzako jardunak 8. IKTak eta Ikus-entzunezkoak eskaintzeko jardunak 9. Administrazioak gidatutako inpaktu handiko proiektu integralak |
| 3. Zerbitzu Publiko Digitalak | <ul style="list-style-type: none"> 10. Barne-digitalizazioa 11. Administrazio arteko interoperabilitatea 12. Zerbitzu digitalak 13. Edukiak (Atariak) |
| 4. Euskadi sarean | <ul style="list-style-type: none"> 14. Euskal kulturaren eta euskal kultura-ondarearen aldeko zerbitzuak 15. Euskaraz erabateko esperientzia digitala ahalbidetzeko zerbitzuak 16. Euskadik kalitatezko helmuga turistikoa gisa duen irudia indartzeko zerbitzuak. |
| 5. Infoegiturak | <ul style="list-style-type: none"> 17. Infoegitura aurreratuak eskuragarritasunaren, segurtasunaren eta konfiantza digitalaren eremuan 18. Eguneratze teknologikoa |
| 6. Erakunde-agenda digitalak | <ul style="list-style-type: none"> 19. Tokiko Agenda Digitalak bultzatzea 20. Nazioarteko lidertza Agenda Digitalak sustatzerakoan 21. e-Demokrazia |
| 7. Ezarpena, Jarraipena eta Ebaluazioa | <ul style="list-style-type: none"> 22. Kudeaketa, koordinazioa eta jarraipena 23. Komunikazioa, sentsibilizazioa eta hedapena |



5.4. 2010eko EIGP planaren helburuak kuantifikatzea

Planteamendu estrategikoari buruzko azalpena amaitzeko Planak, hamarkadaren amaierarako lortu nahi dituen lorpen kuantitatiboak zehaztuko ditugu.

2010eko EIGP planaren ekimenen eta ekintzen helburu nagusia honako hau da: informazioaren eta komunikazioaren teknologietan Europako bost herrialde aurreratuenekiko eta aitzindari gisa definitzen direnekiko konbergentzia. Halaber, 2010eko EIGPk bat egiten du Europar Batasuneko aurrerapen ekonomikoaren eta sozialaren helburuak lortzearekin. Helburu horiek i2010 ekimenaren COM(2005) 229. komunikazioan, eta hortaz, Lisboako Agendan, zehaztuta daude: "Informazioaren Gizarte europarra hazkunderako eta enplegurako". Bi asmo horiek helburu zehatzago batzuekin antolatzen dira, Planak ezarri dituen xedeak kontuan hartuta. Helburu horiek honako planteamendu hauetan zehaztu daitezke:

- **Erabilgarritasuna sustatzea:** Emaitzei dagokien, aitzindari diren bost herrialdeekiko konbergentzia bilatzen da, bai Internet erabiltzen duen biztanleriaren ehunekoen emaitzei dagokien, bai Internet normalean erabiltzen duen biztanleriaren ehunekoei dagokien, betiere erakunde erantzuleek egindako estatistiken arabera.
 - **Eskuragarritasuna bermatzea:** Euskadiko guztirako biztanleriak banda zabalerako sarbidea duela (Europako Batzordearen helburutik, hots, % 90etik gorakoa) bermatutakoan, Euskadiko etxe gehienetan banda zabalaren bitarteko sarbidea erabiltzea bultzatu behar da.
 - **Inklusioa laguntzea:** Hesi digital desberdinak gutxitzeko lan egiten jarraituko da. Alderdi horretan, i2010 Europako ekimenaren helburuekin bat etortzea lortu nahi da, inklusio digitalari dagokionez.
- Nolanahi ere, helburu horiek ez dira zehaztuko 2008. urtea amaitu arte. 2006ko ekaineko Rigako Ministerio Aldarrikapenean honako hau mugatzen zen: batez besteko biztanleriaren eta baztertuta dauden hainbat talderen artean dauden desorekak erdira murriztu nahi ziren. 2007ko azaroan Batzordeak egindako Komunikazioan "Informazio Gizartean parte hartzea" onartu zuen hori lortzea zaila dela eta adierazi zuen 2008aren amaieran egingo den ministro-hitzaldi batean etorkizunerako orientazio berriak ezarriko direla.
- **IKTen erabilera sustatzea ikastetxearen lagungarri gisa.** Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasgelan erabiltzen dituzten irakas-leen ehunekoa bikoitza izatea lortu nahi da.
 - **Zerbitzu aurreratuaren erabilera sustatzea.** Zerbitzu aurreratuak erabiltzen dituen biztanleriaren ehunekoa bikoitza izatea lortu nahi da. i2010en bezala, sareko bankuaren adierazleak izandako aurrerapena hartu dugu erreferentzia-adierazletzat.
 - **Etengabeko prestakuntza sustatzea.** Etengabeko prestakuntza-jardueretako partaidetza handitzea Europako herrialdeetako ehunekoetara iritsi arte.
 - **Autonomoen eta mikroenpresen hesi digitalari aurre egitea.** Horien ekipamenduei eta Interneten erabilerari buruzko adierazleetan erdira jaitsi da guztirako enpresen batez bestekoarekiko dagoen aldearen ehunekoa.
 - **Sinadura digitalaren erabilera orokortzea.** Lortu nahi da euskal enpresen erdiek baino gehiagok erabiltzea sinadura digitala.
 - **IKTen eta ikus-entzunezkoen sektorea sendotzea.** IKTen eta ikus-entzunezkoen sektorearen hazkundea, bai balio erantsiari dagokionez, bai enpleguari dagokionez, euskal ekonomiaren hazkunde globalaren ginetik jarri nahi da, bi aldagai horietan garrantzi handiagoa izateko.
 - **Herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izateko aukera, herritarrek Zerbitzu Publikoetarako sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 LEGEAN ezartzen denaren arabera.**
 - **Online bidez eskuragarri dauden Zerbitzu Publikoen eskaintza sendotzea.** Herritarrentzat, enpresentzat eta erakundeentzat linean erabat eskuragarri dauden Zerbitzu Publikoen % 100, betiere i2010 ekimenaren barruan Europako Batzordearen adierazleetan zehaztutako oinarrizko 20 zerbitzuen iritzieren arabera.
 - **Euskadi.net ataria** Euskadin gehien bisitatzen diren hiru atarien artean **jartzea**.








2.0



II ZATIA:
JARDUNEAN ARI
DEN PLAN BAT





HERRITAR AKTIBOAK

1.1. Aurkezpena

Herrialde kohesionatua eta bertako herritarrak adituak izango dira, bai eduki eta zerbitzu digital aurreratuak erabiltzeko, bai, bereziki, horiek sortzeari, garatzeari eta ongizate indibidualaren eta kolektiboaren zerbitzuan jartzeari dagokionez modu aktiboan lankidetzan jarduteko.

Azterlan demoskopikoek erakusten dute ekipamenduen, tresnen eta oinarrizko zerbitzu digitalen (Internetarako sarbidea, posta elektronikoa, edizio elektronikoa eta abar) ezarpen-maila Euskadiko etxeetan Europako sailkapenean lehenengo postuetan dauden bost herrialdeen mailatik behera dagoela. Euskadiko erabiltzaileek Internet oinarriko zerbitzuetara sartzeko (informazioa lortzeko, prentsa irakurtzeko edo kontsultak egiteko eta posta elektronikoa erabiltzeko) erabiltzen dute batez ere, eta, askoz gutxiago zerbitzu aktiboetara, hots, blogetara, foroetara eta banku elektronikora sartzeko. Halaber, hezkuntzarako, merkataritza elektronikorako edo Administrazioarekin harremanetan jartzeko, Interneten erabilerak gehiago hazi behar du oraindik.

Gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden kolektiboan (emakumeak, 55 urtetik gorakoak, langabeak) inklusio digitalaren mailak ere hobetzen jarrai dezan nahiko genuke. Horretaz gain, zerbitzu digital berriak eta gero eta konplexuagoak direnak etengabe azaltzeak eragiten du bazterkeria digitalaren irismena berriz definitu behar izatea; izan ere, orain arte kategoriatan ez zeuden kolektiboak kategoriatan sartzeko arriskuan daude, baldin eta beren gaitasun digitalak behar den eritmoan eguneratzen ez badituzte. Horrekin batera, argi eta garbi ikus daiteke kontrako sententziak (kezka eta ilusioa) eragiten dituzten joera sozialak eta teknologikoak daudela.

Bestalde, Interneten erabilera nabarmen aldatzen ari da eduki digitalak sortzeari dagokionez erabiltzaileek

garrantzi handia hartzea ahalbidetuko duten tresnen eta zerbitzuen erabilera orokortu denetik aurrera. Zerbitzu eta eduki mota hori, normalean web 2.0 izenean biltzen dena, palanka ezin hobea da gaur egun dauden ahuleziak gainditzeko eta aukera berriak ustiatzeko. Adibide gisa, honako hau aipatu behar da: produktuak eta zerbitzuak definitzerakoan erabiltzaileek parte hartzea (crowdsourcing deitzen zaio), eta era horretan, erabiltzaileen egiazko premia eta itxaropen guztiak beteko dira. Tresna mota horrek eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzearen, Euskadiko herritarrek behar bezala ekipatuta eta gaituta egon behar dute, baita motibatuta eta inplikaturik ere.

Herritar aktiboak izeneko jardun-ildoaren azken helburua honako hau da: Euskadiko herritarrek gaitasuna izan behar dute, bai beren bizi-kalitatea hobetzeko nahian dauzkaten egiazko premia eta itxaropenei erantzungo dieten edukiak eta zerbitzu digital aurreratuak erabiltzeko, bai eduki eta zerbitzu horiek sortzen eta garatzen modu aktiboan parte hartzeko.

Eusko Legebiltzarraren balorazioa —herritar aktiboak atalean 2010eko EIGPri erantsi zaion gogoeta— honako hau da: informazioaren eta telekomunikazioen teknologien iraultzak, hots, "Jakintza Gizarteak" guztiz eraldatuko du gauegun "politika" deitzen duguna egiteko modua herrialde aurreratuaren. Kudeaketa publikoan ere eraginkorrenak diren gizarteek jakingo dute hobekien aprobetxatzen beren kideen jakintza, baita haien partaidetza erreala eta iraunkorra sustatzen eta gai publikoaren kudeaketan baterako erantzukizuna sustatzen ere.

Hainbat gairekin lotzen dituzten gizabanakoek, erakundeek, elkarteek, fundazioek eta mugimenduek jakintza pilatzen dute eta eragin-sareak antolatzen dituzte. Enpresa pribatuen kasuan jakintzarekin orokorrean gertatzen den bezala, berri eta aurrera egin nahi duen gizarte bakar batek ere ez du ondare hori mespretxatuko. Erakunde ordezkatzailak hartzen dituzten erabakiak eraginkorragoak izango dira herritarren premietatik gertuago eta egokituago badaude.

Ildo horretan lan egitea herrialde baten nortasun-adierazgarrietako bat izan behar du, kasu honetan Euskadirena, herrialde horrek bere ekonomia-lehia-kortasunabereproduktzio-egituren jakintza aprobetxatzeko gaitasunean oinarritzen du. Era berean, eremu publikoan, EIGPk honako hau erantsi die bere helburuei: erakunde publikoen maila guztiak irekitzen lagunduko duten erakunde-erloto neurriak eta programak sustatzea.


Honako eskema honetan azaltzen da herritar aktiboan ildoan gauzatuko den jardun-eredua:

Eredua bi multzo handitan egituratuta dago: alde batetik, ekintzen asmoa kontuan hartuta, eta, beste alde batetik, eremuak, hain zuzen ere, eremu horietan jardungo da batez ere.

Asmoari dagokionez, sentsibilizatzeko, prestatzeko, erabiltzeko eta parte hartzeko etenik gabeko ziklo bat aktibatu nahi da. Etenik gabeko zikloa da, Informazio Gizartearen bilakaera ere etengabea delako, eta horrek etengabeko zaintza eskatzen du.

- **Sentsibilizazioa.**

Komunikazio-ekintzak sustatu nahi zaizkie herritarrei; ekintza horien helburua zerbitzu digitalak daudela informatzea da, baita zerbitzu horien erabilera pertsonalari, profesionalari eta sozialari buruz ere. Guztirako biztanleriak egoera eta itxaropen ugari dituzenez gero, nahitaezkoa izango da identifikatzen diren profiletarako berariazko ekintzak egitera bideratuko duen azterketa- eta segmentazio-lana etengabea izatea.



Profilaren ezaugarriek ere ezarriko dute komunikazio-ekintza bakoitzean erabili behar den bidea, eta zenbait kasutan komunikabide masiboak erabili beharko dira. Nolanahi ere, Euskadiko biztanleria gehiena konektatuta egoteak eta zerbitzu digitalak (posta elektronikoa eta SMS mezuak, eta gutxiago bada ere, foroak, txatak eta gizarte-sareak) erabiltzeak oinarri ezin hobea eratzten dute, eta oinarri horren gainean sustatu behar dira herritarrekin zerikusia duten komunikazio-ekintzak.

• Prestakuntza.

Informazio Gizarteak herritar gaituak eskatzen ditu, eta herritarrek dituzten gaitasunak behar bezalako prestakuntza-ekintzaren bidez soilik eskura daitezke. Prestakuntza-jardunak bereziki kritikoak dira, zeren horien eraginak gaitasunaren eremua gaintzen baitute: erabiltzaileen sentsibilizazioa eta inplikazioa lortzeko tresna hoberena dira askotan. Era berean, prestakuntza tresna ezin hobea da guztirako biztanleriaren inklusio digitala ahalbidetzeko, zeren gaitasunik ez izatea baita bazterkeria digitalaren kausa pertsonen kolektibo askotan.

Prestakuntza-eremuko ekintzak ez dira prestakuntza-prozesura bakarrik mugatzen, baita zerbitzu osagarrietara ere honako alderdi garrantzitsu hauetan: prestakuntza-planak egitea edo gaitasuna onartzea. Azken gai hori berariazko ekintzek landuko dute, gaitasun digitalaren eremuan bereziki.

IKTak prestakuntza-prozesuari aplikatzen bazaizkio, prestakuntza-zerbitzuen kalitatea hobetu daiteke eta ohiko modalitateetara sartzeko zailtasunak dituzten biztanleria-sektoreek horietara sartzeko aukera izan dezakete. Bestalde, prestakuntza materia digitalean txertatzeak (prestakuntza arautuaren eta etengabearen edukien barruan) ahalbidetzen du lagun askok sarbidea izatea aurretiazko komunikazio-ekintzak gauzatzeko premiarik izan gabe.

• Erabilera.

Jardun horiek zerbitzu digitaletarako sarbidea ez ezik herritarrek zerbitzu horiek erabil ditzaten sustatzea ere ahalbidetuko dute. Horretarako, nahitaezkoa izango da ekintzak bi alderditan antolatzea:

a) Zerbitzuetara sarbidea izateko ekipamendua erosteko zailtasunak dituzten kolektiboak dauden bitartean, inklusio digitaleko politikek honako jardun hauek hartu behar dituzte kontuan: sarbiderako plataforma publikoak erabiliz, zerbitzu horietarako sarbidea erraztuko duten jardunak.

Bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboen gainean egiten diren sentsibilizatzeko prestakuntzako eta erabilera sustatzeko jardunek ikuspegi integratu eta berariazkoa behar dute kasu bakoitzerako.

b) Eragin eta erabilera handiko zerbitzu traktoreak sor daitezen bultzatzea.

• Parte-hartzea.

Jardunen azken asmoa honako hau da: alde batetik, herritarrek zerbitzu digitalak ezagutzeaz gain, haiek erabiltzen jakin dezatela eta erabil ditzatela, eta beste alde batetik, modu aktiboan parte har dezatela edukiak egiten eta zerbitzuak definitzen.

Premisa horiekin, honako jardun-programa hauek ezarri dira:

- Bizitza osoko ikaskuntza.
- 2010eko ikastetxea.
- Nire etxea Interneten.
- Inklusioa.
- Herritarren partaidetza.

1.2. Bizitza osoko ikaskuntza

2010eko azaroan, Europako Batzordeak Making a European Area of Lifelong Learning a Reality Komunikatua atera zuen Feirako Kontseilu europarrak egindako eskaerari erantzuteko. Adierazitako eskaerak honako hau zioen: estrategiak eta praktikak identifikatu behar dira guztiontzako etengabeko ikaskuntza garatzeko.

Etengabeko ikaskuntzaren garapena, hortaz, Lisboako Goi-bileraren helburu estrategikoa lortzeko oinarritzako politika bihurtu zen. Adierazitako helburua honako hau da: Europa jakintzan oinarritutako munduko ekonomiarik lehiakorrena izatea.

Europako Batzordeak honela definitzen du etengabeko prestakuntza (lifelong learning): bizitza osoan egindako ikaskuntza-jarduera oro, jakintza, trebetasunak eta gaitasunak hobetzeko asmoz, ikuspegi pertsonala, zibikoa, soziala edota enpleguaren ingurukoa izanik.

Etengabeko ikaskuntza bi kontzepturi lotuta dago:

- Mota guztietako trebetasunak, interesak, jakintzak eta kualifikazioak eskuratzea edo eguneratzea haur hezkuntzatik hasita erretiroa hartu eta geroagoko etapa arte. Ikaskuntza mota horrek jakintzaren eta gaitasunen garapena sustatzen du. Horiei esker herritarrek Jakintzaren Gizartera egoki daitezke eta gizarte- nahiz ekonomia-arloko bizitzaren esfera guztietan parte har dezakete.
- Ikasteko modu guztiak baliostea: formala (unibertsitateko lizentziatura, esaterako) ez-formala (lanpostuan ikastaro bat, esaterako) eta informala (seme edo alaba batek bere amari edo aitari erakusten dionean azken belaunaldiko telefono mugikorra erabiltzen, esaterako).

Gizarte aurreratu baten baliabide estrategiko gisa jakintzak gero eta garrantzi handiagoa hartu duenez gero, egungo eta etorkizuneko mekanismoak sortu eta sustatu behar dira, pertsonen gaitasunak bermatuko dituztenak, bai gizarte-jardunean, bai lanbide-jardunean. Gizartearen bilakaerak —alderdi teknologikoetan nahiz

gizarte-arlokoetan— baldintza berriak jarri dizkie azken 50 urte hauetan izan diren prestakuntza-ereduei, eta arrakasta handia izan dute biztanleria eskolatzeari dagokionez. Gazteen prestakuntza-mailek nabarmen egin dute aurrera, eta erdi-mailako nahiz goi-mailako prestakuntza-mailak igo egin dira, sexuen arteko edo gizonen eta emakumeen arteko titulazio-tasak berdinduz; baina helburu hori ez dago erabat lortuta prestakuntzako etengabeko mekanismoari eusten ez bazaio; mekanismo horri bizitza osoko prestakuntza deitzen diogu.

Egungo mundua garapen teknologikoen, kulturen arteko harremanek, globalizazio ekonomikoak eta biztanleria zahartzearen prozesuak eragindako aldaketan eta erronken mende dago. Bizitza osoko ikaskuntza modurik hobereana da pertsonak aldaketaren erronkak beren gain hartu ahal izateko.

Europako gobernu gehienak enplegarritasuna, egokitzapena, herritartasun aktiboa eta inklusio soziala lortzen lagunduko duten etengabeko ikaskuntzako politikak sustatzen ari dira. Bestalde, onartzen hasi gara erlazio positiboa dagoela etengabeko ikaskuntzaren eta ekonomia-hazkundearen eta gizarte-ongizatearen artean.

Euskal gizarte ireki eta berritzailea lortzeko, pertsonen prestakuntza alderdi kritikoa denez gero, nahitaezkoa da denbora honetako berariazko ezaugarriak kontuan hartzea prestakuntza hori egokitzeko eta herritarren eta egungo gizartearen premiei erantzuteko. Eta egungo gizartearen ezaugarria da bilakaeraren erritmoa azkartu egin dela, eta horregatik, lan egiteko, komunikatzeko, erlazionatzeko eta informatzeko moduak gero eta maizago aldatzen direla eta pertsonen eguneroko bizitzaren alderdi barru-barrukoenei ere eragiten diela.

Testuinguru horretan, prestatzeko premia bizitza osora luzatzen da, bai eremu praktiko eta zehatzenetan —lan-eremuan, esaterako, non gaztetan lortutako jakintzak zaharkitzeko arriskua nabaria den—, baita gure inguruko errealitateari buruzko behar bezalako ulermenari eta gogobeteko garapen pertsonalari eusteko behar diren

gaitasunen esparruan ere. Horrenbeste aldaketa dituen eta teknologia-andanaren mende dagoen gizartean ezin da pentsatu gaztetan ikasitakoak betiko balio izango duenik.

Informazio- eta komunikazio-sistemetan izandako bilakaera teknologikoak berrikuntza - esparruak sortzen ditu bi hamarkadatik behin, eta esparru horiek informazio-trukeei eusteko moduei eragiten diete; horren ondorioz, beste lan-metodo eta jarduteko praktika batzuk sortzen dira, eraginkortasun eta lehiakortasun pertsonala eta kolektiboa ezartzen dutenak. Gertakari horren aurrean, jakintza zabaltzeko eta komunikatzeko nahiz informatzeko teknika berriak aplikatzeko bideak hedatuz erantzun behar dugu. Hortaz, trebatzeko ekimen ugari ireki behar dira, prestakuntza eguneroko bizitzatik urrun dauden zirkunstantzietan ematen den ikastarotzat hartzen duen eskema murriztailea gaindituz.

Gazteen eskolatzea, zalantzarik gabe, gizarte-sistemaren funtsezko oinarria izan da gaitasuna eraiki ahal izateko eta gaur egun dugun jakintza ustiatu ahal izateko. Aurreko egoerarekiko —gazteen eskolatzea— dagoen aldea honako hau da: prestakuntza behar duten gehienak helduak dira eta prestakuntza-sistemak, indarrean dauden metodoak barne, eskola-adinean daudenentzat diseinatu eta gauzatu dira. Helduen prestakuntzak abiapuntuko beste oinarri batzuk behar ditu, eta prestakuntza zer den ulertzeko moduei dagokienez, gizarte-irizpide berriak behar ditu, baita prestakuntza gauzatu ahal izateko moduari dagokionez ere.

Herrialde aurreratuenetako adierazle batzuek erakusten dute hiru heldutik bat prestakuntzako prozesu egituren batean murgilduta dagoela. Hori da lan-bizitzan, 22 urtetik 65 urtera bitarte, bere % 30 (15 urte inguru) lanbide-kualifikazioa hobetzeko helburu jakin batekin sinkronizatuta edo aldi berean gauzaturik egongo balitz bezala. Eta ehuneko horrek gora egin behar du, beharbada % 50era iritsi arte, eta % 75era etorkizun ez oso urrunean. Prestakuntza-prozesu hori honako hauek edozein izan daiteke: teknikaren batean espezializatzea, teknologia berriekin birziklatzea, prestakuntza-proiektu

batean parte hartzea, sektore bateko praktika berrien foro batean parte hartzea, edo beste formula batzuk, prestakuntzaren eta ohiko eskolaren arteko betiko elkarketa ez diren beste formula batzuk. Horrela, bada, Europako Batzordeak ikaskuntza emateko egituren artean mailakako osmosiaren ikuspegia du, ikaskuntza formala, ez-formala eta informala osagarriak direla onartzen duen ikuspegia, hain zuzen ere.

Helduen etengabeko prestakuntza berria gizartearen premiazat hartu behar da jadanik. Prestakuntza horrek honako hauek eskatuko ditu berehala: lanbide-sistemak eta prestakuntza-sistemak, ikasteko moduen erreperitorio berria gauzatzeko modukoa, lana familia-bizitza eta gizarte-bizitza, aisia eta prestakuntza modu harmonikoan partekatzeke aukera ematen duen erreperitorioa.

Kultura berri hori egiteko helduen kasuan prestakuntzat edo bizitza osorako prestakuntzat hartzen dena errotik aldatuko duten joerak hartu behar dira kontuan. Lehenengo eta oinarrizko joera da helduen prestakuntza uler daitekeela soilik baldin eta ikasle helduak prozesuaren erdigune gisa diseinatu eta gauzatzen bada. Helduek beren esperientzia berriz interpretatuz ikasten dute printzipio eta ikuspegi berrien —helduek pentsatzen eta egiten dutena berriz azterraraziko dietenak— argitan, aldaketarekin emaitza hobea lortzeko. Ikasten dute, baldin eta dakiten eta egiten duten zerbaiten ordez eraginkorragoa den zerbait ikasi eta egiten badute. Ikuspegi akademikoa porrotera bideratuta dago. Ikasten duen helduak esperientzia bat eransten du, eta ezin da esperientzia horretatik bereizi. Hezitzaileak material nagusi horren gainean lan egin behar du.

Ikasle helduaren ikaskuntzaren ardatz nagusi horretaz gain, aurrekoaren zuzeneko hiru ondorio daude. Honako hauek dira adierazitako ondorioak: prestakuntza pertsonalizatua eta hurbila, informazioaren teknologien erabilera informazioa etengabe transferitzeko baliabide gisa, eta ikaskuntzaren iraupenean jarraitutasuna izatea. Horrek esan nahi du prestakuntza eguneroko lan-jardueran txertatuta egongo dela nahitaez, eta lehendik ezagutzen ditugun komunikabideek, eta etorriko diren

teknologiek ahalbidetzea jarraitutasun-esparru hori, beste pertsona eta sistema batzuekiko elkarrekintzaren bitartez, gaitasun berriak lortzeko. Horretarako nahitaezkoa da prestakuntza-espazio berrien diseinuak sortzaileak izatea eta bizitza osoan sortzen diren lan-egoera eta egoera pertsonal desberdinetara egokituak. Kontuan hartu behar diren gainerako sei joerak —helduen prestakuntza antolatzeke baldintza berriak direnak ere— honako hauek dira:

- **Gaitasunak ebaluatzea.** Helduen prestakuntza orok behar diren erreferentziak eskaini behar ditu bere ikaskuntza-estiloari hobekien datorkion prestakuntza aukeratu eta bideratu ahal izateko, betiere abiapuntua zein den jakinda. Ez gara azterketez hitz egiten ari, autoebaluazio-sistemei buruz baizik.
- **Ikasteko hainbat modu desberdin.** Prestakuntza-jardueraren "hipermerkatu" antzeko bat, hezitzaileek eta ikasleek zereginak konbinatzeko aukera izan dezaten praktikatzeko, asmatzeko, huts egiteko, eta zuzenduz eta gaitasunak sendotuz ikasteko.
- **Gizabanako bakoitzaren arazo errealak eta harengandik hurbil dauden arazoak konponduz ikastea.** Jakintzarekiko motibazioa, pertsona bakoitzari eragiten dioten arazoei aplikatuta, indarrik handiena da helduek eskema berriak barnera ditzaten.
- **Ikasteko konfiantza-espazioak.** Ikasteak apaltasuna eskatzen du, ez dakiela aurreuposatzen baita. Helduarentzat esan nahi du segurtasunik eza eta ahultasun-irudia adierazi behar duela besteen aurrean. Haurrek ez dute muga hori, baina helduek bai; izan ere, besteek duten iritziarekiko beldur handia dute helduek.
- **Guztiongandik eta guztiekin ikastea.** Ikaskuntzaren norabide bakarra —maila txikiagoko ikasleei irakasten dien irakaslea— hainbat kualifikazio, jatorri eta jakintza dituzten eragileek parte hartuz gaindituko da.
- **Errealitatea** eta zerbait berria garatzen den **proiektuak izango dira helduek ikasteko espazioak.** Informazioaren teknologiek ahalbidetzen dute, gehienetan, errealitatera nahi den adina hurbiltzen diren simulazio-espazioak egitea. Gaur egun, bulegoetan lan egiten dutenen % 90ek eta espazio irekietan lan egiten dutenen % 25ek ordenagailu bidez egiten dute.
- **Ikasteko aukerei buruzko orientazioa eta aholkularitza indartzea.** "Aurrerantzean hobeto jokatu ahal izateko moduari buruzko erabaki bat hartzea ahalbidetuko duen informazio zabala bildu eta egokitzeko aukera du «orientazio-bitartekariak». IKTetan eta Interneten oinarritutako informazio-iturriek eta diagnostikoa egiteko tresnek bide berriak irekitzen dituzte orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuen irismena eta kalitatea hobetzeko" (Etengabeko ikaskuntzari buruzko memoranduma, Europako Batzordea, 2000ko urriaren 30a).

Ez dago zalantzarik helduen prestakuntza ekintza-eta berrikuntza-eremu garrantzitsuenetako bat dela aurrera egin nahi duen eta gizarte-ongizatearen eta bizi-kalitatearen maila eutsi nahi dien gizartean, kasu honetan Euskadiren gizartean.

Orain dela 200 urte elkarrengandik urrun zeuden pertsonak korrespondentzia idatziaren bitartez soilik komunika zitezkeen, duela 50 urte telefono finkoa erantsi zitzaion komunikatzeko modu horri, eta gaur egun, testua, ahotsa eta irudia duten mugikorrek, posta elektronikoa, bideokonferentzia eta abarrek dibertsifikatzen eta biderkatzen dituzte komunikatzeko aukerak. Teknologiaren bidezko komunikazioari esker adierazteko modu berriak daude. Eta hori egin beharko da prestakuntzarekin ere, prestakuntzaren iritzi, geletan oinarritutako prestakuntza-ereduak baitira prestakuntza diseinatzeko eta praktikatzeko modu nagusiak. Helduen prestakuntza masiboa oraindik gauzatu ez den eskolatzeko handia da, eta gizartearen mentalitatea aldatzea eskatzen du pertsona bakoitzak bere barruan daukan ikasteko gaitasuna pizteko.

Pertsonen bizitzaren ziklo osoan prestatzeko eskakizun hori honako testuinguru honetan gertatzen da: eguneroko bizitzaren eskakizunek eragiten dute gero eta zailagoa izatea ikasteko behar den denbora eta arreta bilatzea. Eta puntu horretara iritsita ikusten dugu informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera garrantzi handia duela; izan ere, teknologia horiek lehen magnitudeko elementu bideratzaileak dira prestakuntza-dukietara eta -zerbitzuetara sarbidea izateko edozein lekutatik eta edozein unetan.

Etengabeko ikaskuntzaren garapenak IKTetan oinarritu behar du:

- Espazioa eta denbora kontzeptuak malgutzerakoan, etengabeko ikaskuntza luzatzea ahalbidetzen dute.
- Erabiltzailea erdigunea denez gero, ikaskuntza-prozesua berritzea ahalbidetzen dute.
- Orientazioari eta aholkularitzari lagun diezaiokete. Orientazio-bitartekariak erabiltzaileari lagun diezaiokete informazioa aztertzen eta berak dituen zirkunstantziak kontuan hartuta, zer ikaskuntza den garrantzizkoa erabakitzen.
- Ikaskuntza landa-eremuetara eta eremu sakabana-tuetara eramane dezakete.
- Fisikoki urrun dauden erabiltzaileen arteko elkarlaneko ikaskuntza bultzatzen dezakete.

Ekimen horren azken helburua honako hau da: bizitza osoko euskal prestakuntza-sistema indartzen laguntzea IKTetan eta bereziki e-learning teknologian oinarritutako sistema bat sortuz, eremu horretan nazioarteko aitzindari izateko asmoa izanik.

Bestalde, etengabeko ikaskuntzari heltzeko pizgarria prozesuei balioa emanez indartuko da, gaitzeko prozesuetan lortutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeko sistema bat sendotuz. Honako hauek dira programa hori gauzatzeko garatu behar diren proiektuak:

A) Online bidezko prestakuntzaren zerbitzu integrala sortzea

Lehenengo etaparen helburua honako hau da: helduak prestatzeko aukera berriak sortzeko sistema unibertsal bat diseinatzea eta abian jartzea. Aukera horiek honako hauek bilduko dituzte: baliabide teknologikoen bitartez gauzatu diren prestakuntza-ekintzen definizioa, prototipoa, ebaluazioa eta kudeaketa. Baliabide teknologikoen horiek honako hauek biltzen dituzte: online bidezko prestakuntza, LTD bidezko prestakuntza-aukerak, eta teknologia mugikorren baliabideen erabilera irakasleen eta ikasleen arteko elkarlanerako. Horretarako, lehenik eta behin, nahitaezkoa izango da teleprestakuntzarako estrategia bat definitzea, hau da, euskal gizartearen premiak eta eskakizunak ez ezik materiaren inguruko gaur egungo artearen egoera eta datozen urteetan izan lezakeen bilakaera ere kontuan hartuta, sistemaren ezaugarriak definitzen dituen estrategia. Gogoeta horretan, eskaintzaren nahiz eskaeren ikuspegi objektiboa izateko behar diren eragile publikoek eta pribatuak hartuko dute parte. Sistemaren etorkizuneko aukerak eta guneak ez ezik teknoprestakuntzaren espazio-aukerak ere ebaluatu ondoren, prestakuntza-ekintza horiek sustatzen dituzten eragile publiko eta pribatuaren eskura jarriko dira. Baliabide horiek azpiegituratzat har daitezke, hots, baliabideak hedatzeaz gain, prestakuntzaren kolektibo profesional landunak trebatzeko prozesuak egin nahi dituenak.

Lehenengo ekintza horrek prestakuntza publikoaren eta pribatuaren esparruetan ezarritako aurrerapenak bilduko ditu, IKTak maila guztietako gaitasunean txertatzeko laguntza-baliabideak eskainiz.

B) Edukiak egokitzea eta sortzea

Proiektua osatzen duten jardueren bigarren multzoa honako hau da: baliabide horien erabilera kontuan hartzen duten ekimen zehatzak abian jartzea kolektibo espezifikotik aplikatzeko. Ondoren azalduko diren ezaugarriak dituzten gaitze-ekintzak hedatu nahi dira.

Honako hauek dira ezaugarri horiek: teknologia eta plataforma gaituen erabilerak aurrerapen garrantzizkoa ahalbidetu dezala edukiak erraz erabiltzeari, gaiaren aukerari eta gizarte-eraginari dagokionez. Horretarako, premia zehatzak beteko dituzten prestakuntza-edukiak sortuko dira. Dauden prestakuntza-ekintzak txertatu eta eduki berriak sortuko dira hasiera-hasieratik sistema sendotzen den bitartean dauden premia larriei erantzuteko.

Multzo horren eta baliabide horiei buruzko gaitze-ekimen bakoitzaren barruan; alde batetik, eskura dauden egiturak hobetzea ahalbidetuko duten, eta beste alde batetik, programa horren barruan egon daitezkeen antzeko aplikazioaren erreferentzia izan daitezkeen emaitzen ebaluazioa egingo da.

Hasiera batean zortzi gai identifikatu dira. Gai horietan edukien egokitzapenak eta sormenak lehenetsuta dute Euskal Administrazio Publikoaren Sailen jardun-arloentzat:

1. *Euskara ikasteko.*
2. *klusterretan edota ekonomia-sektoreetan atzemandako premiei erantzuna emateko.*
3. *Justizia Administrazioan barruko langileentzat, erlazioatutako eragileentzat eta publikoarentzat orokorrean.*
4. *Justizia Administrazioko langileak euskalduntzeko.*
5. *osasun publikoko profesionalentzat.*
6. *haurrentzat balio zibiko eta gizarte-arlokoiei buruz.*
7. *osasun-hezkuntzarentzat (Osasunaren Entziklopedia Digitala).*
8. *Zuzenbideko ikasleei praktikak egiteko.*

Programak, gainera, IKTen eremuan gaitasunak onartzeko berariazko sistema izango du, IT-Txartela ekimena —proiektu honetako hirugarren multzoa— bultzatuz.

C) IT Txartela profesionala

Proiektu horren helburua egungo IT Txartelaren irismena handitzea da, profesionalen gaitasun digitalari balio emateko eta ziurtatzeko erreferente unibertsal bihurtzeko. IKTen eremuko lanbide-kualifikazioen ebaluazioa eta ziurtapena eskaera bat gorantz doan premia bat dira ia lanbide guztietan gaitasun-maila batzuk bermatzeko.

Helburu hori lortzeko honako ekintza hauek aurreikusten dira: lanbide-profilak lanbide-profil eta sektore motaren arabera ezartzea, baita horietarako bakoitzarentzat IKTen alorrean eskatzen diren gaitasunak definitzea ere. Gaitasun horiek honako honi buruzkoak izango dira: komunikazio elektronikoaren esparruetan edukiak erabiltzerakoan eta sortzerakoan autonomia izateari buruzkoak, baita testu motako dokumentuak egiterakoan, dokumentuen kudeaketa elektronikoa gauzatzekoan, informazioa erabiltzeko segurtasuna izaterakoan edo gailu elektroniko mugikorrek erabiltzeko gaitasunean ere. Planteamendu horrek ere handitu beharko du IT Txartelaren kontzeptua jakintzetatik haratago hedatzeko oinarritzko erabileren esparrura, gaitasunak definituz; gaitasun horiek ez dute nahitaez aplikazio informatikoen erabilerari buruzkoak izan behar. Aldi berean, gaitzeko mekanismoak jarriko dira hezkuntza araututik kanpo profesionalentzat eta herritarrentzat.

Programa hau abian jartzeko eta garatzeko kudeaketa integratua beharko da. Kudeaketa horretan tartean sartutako Administrazio Publikoek eta Sailek hartuko dute parte, baita elkarrekin, klusterrek eta enpresa pribatuak ere, eta horrek justifikatuko du, hain zuzen ere, horiek guztiak 2010eko EIGPn planaren barruan egotea. Horren ondorioz, proiektu traktore bat eratuko da, Planean aurreikusitako lankidetzakudeaketa motaren arabera.

1.3. 2010eko ikastetxea

Egungo gizartean eta etorkizuneko gizartean, prestakuntza pertsonen bizitza osoan zehar gauzatuko den prozesua bada ere, egia da prestakuntza arautuak garrantzi handia duela pertsona eta profesional gisa garatzeko. Dena dela, etengabeko prestakuntzaren testuingurua ezin hobea izan arren, pertsona batek prestakuntza arautuaren aldia (pertsonaren bizitzaren lehenengo 25 urteak) eskainiko dio bere denboraren zatirik handiena prestakuntzari; horretaz gain, prestakuntzak oinarritzko gaiak landuko ditu aldi horretan, eta gaiak eragin handiagoa izango dute pertsonaren gaitasunetan eta portaeretan. Oinarritzko prestakuntza horrek huts egiten badu, pertsona batek nekez izango du aukera gaikuntza on batek —pertsonalak eta lan-arlokoak— eskaintzen dituen aukeratarako sarbidea izateko berriro; eta aukera hori izanez gero, eskatzen den ahalegina —pertsonala eta kolektiboa— askoz handiagoa izango da. Hortaz, prestakuntza arautu egoki bat alderdi kritikoa da euskal gizarte ireki eta berritzailea, herritar aske eta parte-hartzaileak osatzen duena, lortzeko. Eta prestakuntza arautuaren erdigunea "Ikastetxea" da.

Ikastetxea ezin da informazioaren eta komunikazioen teknologiak erabiltzeko erakunde orori hobetzeko eskaintzen dion aukeratik kanpo geratu; aitzitik, Informazio Gizartean abangoardiari eutsi behar dio elementu traktore gisa ahalmen handia duelako:

- Ikasleengan, ikastetxean ikasiko dutelako IKTak lan-tresna gisa erabiltzen eta ez aisiarako iturri gisa bakarrik.
- Adina, prestakuntza edo beste zirkunstantzia batzuk direla medio, kasu askotan, bazterkeria digitalaren arriskuan dauden kolektiboa osatzen duten gurasoengan.
- Ikastetxeek eskatzen dituzten zerbitzu digitalekin zerikusia duten negozio-aukerak aprobetxatu ditzaketen enpresetan.

Euskadiko Ikastetxeek azpiegitura egokia dute orokorrean, ekipamenduari eta konektagarritasunari dagokionez. Ikastetxe askok, gainera, aurrera egin dute aplikazioak eta sistemak erabiltzeari dagokionez, bai irakasteko soilik,

bai gauzatzen duten jarduera kudeatzeko. Bestalde, ikastetxeak kudeatzeko sistema ezin hobek orokorrean ezartzeak ikastetxeak modernizatzeko ekimenak ezartzeko adibide ezin hobea eskaintzen du, hura garatzeko eredian eta tresnetan oinarrituta.

Horrek guztiak oinarri ezin hobea osatzen du ekintza irmoari ekiteko, ekimen honen oinarritzko helburua lortzearren, hots, ikastetxe batek gauzatu behar dituen eginkizun guztietan IKTak modu intentsiboan eta estentsiboan erabil ditzala lortzearren.

- Irakaskuntza berez.
- Ikastetxeko baliabideen eta jardueraren —bai hezkuntza-arlokoa, bai administratiboa— kudeaketa.
- Ikastetxe baen bizitzan inplikaturik dauden eragileen arteko harremana eta lankidetzak. ikastetxeetako kudeatzaileak, iarakasleak, ikasleak eta familiak.

Unibertsitate-eremuan, hezkuntza-komunitatearen loturak ikertzaileen komunitatera ere hedatzen dira. Komunitate hori Berrikuntzako Euskal Agentziaren eta enpresaren kosmosean integratuta dauden zentroek osatzen dute.

Beraz, bi proiektu traktore proposatzen dira; bata, unibertsitate-mailako ikastetxeetarako, eta bestea unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetarako.

A) 2010eko ikastetxea unibertsitate-mailako ikastetxeentzat.

Unibertsitate-mailako jarduerak bi alde ditu: irakasleak eta ikertzaileak, eta bi jarduera horiei aplikatu die Campus Birtuala/I2Bask programa, eta EHU/UPVren Campus Birtualaren garapena ez ezik I2Bask sarearen funtzionamenduaren garapena ere bultzatu du.

- UPV/EHUren Campus Birtuala orokorrean IKTen, eta partikularrean Interneten bidez gauzatzen den

ikaskuntzari eta irakaskuntzari buruzko alderdi guztiak kudeatzeaz eta garatzeaz arduratzen den zerbitzua da. Campus Birtualak metodo edo prozedura telematikoen bitarteko ikaskuntzarekin zerikusia duen erakunde-arloko eskaintza oro biltzen du, ikaskuntza eta erakunde-arloan onar dezaten kontuan hartuta batik bat.

- i2BASK sarea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ekimen bat da, 2002-2005 aldiko EIGPn bilduta dago, I+G+Bren komunitatea Euskal Herrian egituratzeko helburua du, telekomunikazioen egiturak eta IKTen zerbitzuak eskaintzen dizkie Zientzia eta Teknologiaren euskal sarearen eragileei (Unibertsitateak, Zentro zientifikoak eta teknologikoak, Ospitaleak eta ikerketa biomedikoa, I+Gren Erakunde kudeatzaileak) eta, noizean behin, I+Gren unitateak dituzten enpresei, gaur egun Berrikuntzaren Euskal Agentzian bilduta daudenei.

B) 2010eko ikastetxea unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzat

Bestalde, 2010eko Ikastetxea unibertsitateaz kan-poko ikastetxeentzat izeneko programa bi fasetan gauzatuko da:

1. Lehenengo fasearen helburua honako hau izango da: 2010eko Ikastetxeak eta hura hedatzeko tresnak nolakoak izan behar duten zehaztea, eta eredu horren kontzeptua garatzea. Tresna horiek zuzenean har daitezkeen erreferentzia zehatzak ez ezik ikastetxe bakoitzak duen errealitate materialaren, irakaskuntza- eta gizarte-arloko errealitatearen arabera egokiagotzat jotzen dituen neurriak hartzea ahalbidetuko dion gogoeta egiteko esparrua eta metodologia ere eskaini behar dituzte. Halaber, fase horretan eredu hedatzeko prozesua eta eredu hori ezartzearen ondorioz sortzen diren ekimenak kudeatzea ahalbidetuko duten ildoak eta planak ezarriko dira.

Jardun hori aurretikoa eta zentralizatua da; nolana ere, jardun horretan eragile publiko eta pribatu guztietako ordezkari kualifikatuek —eskaintzaren nahiz eskaeraren ikuspegitik ikastetxeen jardueran inplikaturik daudenak — hartu behar dute parte.

2. Bigarren fasean, euskal sare publikoko ikastetxe guztietara zabalduko da eredu, baita eredu hori hartzea libreki erabakitzen duten Euskadiko ikastetxe itunduetara eta pribatuetara ere; horretaz gain, eredu ikastetxe bakoitzean ezartzeko behar diren jardunak jarriko dira abian.

Jardun hori modu deszentralizatuan gauzatuko da batik bat; hala eta guztiz ere, nahitaezkoa izango da metodologiak eta ereduak homogeneouski eta zuzen aplikatuko direla bermatuko duten ekintzei eustea, baita eredu ikastetxe bakoitzean ezartzeko behar diren ekintzak gauzatzeari dagokionez, sinergiak eta ekonomia-eskalak aprobetxatuko direla bermatuko dutenak ere.

Ekimen hori martxan jartzeak eta garatzeak kudeaketa integratua gauzatzea eskatuko du. Kudeaketa horretan Administrazio Publikoek eta Sail arduradunek, irakaskuntzako eta pedagogiako profesionalek eta zerbitzu-enpresek lankidetzan jardungo dute. Era berean, nahitaezkoa izango da beste eragile batzuekin ere lankidetzan jardutea, hala nola guraso-elkarteekin, ikastetxe pribatuetako ugazabekin eta irakaskuntzaren sektorean presentzia duten sindikatuekin.

Proiektu horretan bilduta dauden ekintzek honako hauek ere barne hartuko dituzte: **Irakaskuntzako Agenda Digital** bat egitea, prestakuntza-prozesuetarako baliabide teknologiko aurreratuak sustatzea, ikastetxeen kudeaketarako sistema integralak ezartzea eta hezkuntza-komunitatearentzako eta horien familientzako zerbitzu digitalak aplikatzea.

HELDUTASUN TEKNOLOGIAREN EREDU TEORIKOA

Ikastetxearen Heldutasun Teknologikoaren Ereduak honako hau nahi du:

- Harekin alderatzeko **erreferentzia-esparru** izan eta haren helburu partekatutako gisa eduki.
- Ikastetxeko prozesu pedagogikoen **digitalizazio** eraginkorrerako **gida** izan.

Eredua berez ez da xede bat, Europako eta nazioeko plan guztiek partekatzen duten **helburua lortzeko tresna bat** baizik.

“...hezkuntzan parte hartzen duten eragileek baliabide digitalak erabat aprobetxa ditzatela lortzea, baita herritarrak alor horretan trebatzea ere, egungo eta etorkizuneko herritarrak prestatzeko helburuari jarraiki”.

"Ikastetxearen Heldutasun Teknologikoaren Ereduak" Ikastetxeko prozesuen digitalizazio-maila balioztatzea

eta hezkuntza-komunitatearen teknologiei, prozesuei eta ahalmenei dagokienez, teknologia-heldutasunaren ondorengo mailak lortzeko jarraitu behar den ildo ezartzea ahalbidetzen du.

Ikastetxe bateko Heldutasun Teknologikoaren Eredua abian jartzeko lehen urratsa **prozesuen mapa ezartzea da** eta prozesu horien **digitalizazio-maila ebaluatzea**, adierazitako ereduak osatzen duen **Kalitatea Hezkuntza** kalitate-ereduak ezarritako ildoei jarraiki.

Honako hauek dira Ikastetxe batean identifikatzen diren bi multzo handiak:

1. **Prozesu Pedagogikoak:** prozesu horiek irakasle-jarduerarekin, gela barruan, eta gelatik kanpo hezkuntza-komunitatearen eragileekin (familiak, ikasleak eta irakasleak) dute zerikusia.
2. **Ikastetxea Kudeatzeko Prozesu Administrazioak:** ikastetxean sistematikoki eta modu

zentralizatuan gauzatzen den prozesu multzoa. Prozesu horiek ez daude zuzenean lotuta irakasle irakaskuntza-jarduerarekin. Horien artean hezkuntza-jardueraren euskarri diren prozesu administrazioak (matrikulak, notak, espedienteak eta abar) daude, eta beste batzuk, administrazioak dira argi eta garbi, horiei prozesu auxiliarrak deituko diegu (mantenimendua, garbitasuna, jangela, garraioa eta abar).

Honako garapen-maila hauek ezartzen ditu ereduak:

1. maila: “azpiegiturak eta trebakuntza”: Maila honetan Ikastetxeak Premia planaren egungo azpiegiturak eta irakasle arteko gaitasunak erabil ditzake. Esaterako, irakasle % 80k gelan IKTak erabiltzen dituen irakaslearen oinarritzko profila du.

2. maila: “erabilera”: Gela barruan, ikastetxean eskura dauden baliabide informatikoak (IKTen gelak) aldi-aldi erabiltzen dituzte irakasleak. Gelatik kanpo, hezkuntza-komunitatearekiko harremana teknologia berrien bitartez hasten da gauzatzen, prozesuren batean (esate baterako: posta elektronikoen erabilera hitzezkoak ez diren komunikazioetan “zuzendaritza-irakasleak”, “irakasleak-irakasleak” eta “zuzendaritza-familiak” harremanetan), nahiz eta aldi batean konponbide tradizionalak ere erabili.

3. maila: “gelaren digitalizazioa”: gela barruan, irakasgai bakoitzean IKTak erabiltzea orokortu egin da, eta gelek teknologia-hornidura iraunkorra dutenez gero, IKTak egunero erabil daitezke. Gelatik kanpo, ikasleak eta familiak online bidez sar daitezke ikastetxeari edo irakasgaiei buruzko informazio jakin batzuetara (adibidez, ikastetxearen webaren, gelako webaren, buletin elektronikoen bitartez eta abar). Informazioa,

funtsean, norabide bakarrekoa da. Eskola-orduetatik kanpo, Hezkuntza Komunitateak ikastetxetako gelak eta IKTen baliabideak erabili ahal izateko orduetegi zabala izango da.

4. maila: “gela birtualizatzea”: gela barruan, ikasleak gaitzeko prozesua prozesu nonahiko eta iraunkor gisa hasten da eratzen, eskola-ordutik haratago; horregatik, hezkuntza-plataformen erabilerekin bitartez (teleprestakuntza-plataforma, blogak, extranet, wikiak eta abar) gela kanpora irekitzen da, baita ikasleak eta irakasleak arteko etengabeko eztabaidara ere. Gelatik kanpo, Internet bidez sar daitezkeen hezkuntza-plataforma bat du ikastetxeak. Plataforma horri esker, hezkuntza-komunitatearen gainerako eragileekin etengabeko komunikazioa eta bi norabidetakoa izan daiteke.

5. maila: “ikastetxea birtualizatzea”: gela barruan, ikasleak gaitzeko prozesua erabat nonahikoa da eta teleprestakuntza-plataforma bat erabiltzen da prozesu horren euskarri gisa. Gelatik kanpo, ikastetxea 24 orduz dago irekita Internet bitartez, hezkuntza-komunitate gaitzeko eragile bihurtzen da, baita familiak nahiz gizartea orokorrean hartzen duen gizarte-sarearen sustatzaile eta dinamizatzaile ere.

1.4. Inklusioa

IKTek, teknologia guztiak bezalaxe, eragin bikoitza dute haiek sartzeko eta ezartzeko aldietan. Lehena, teknologia hartzen duten erakundeen eta pertsonen eraldaketaren emaitza da; bigarrena, aldiz, IKTak erabili ezin dituzten, nahi ez duten edo erabiltzeko interesik ez duten erakundeen eta pertsonen urruntzea da.

IKTak ez dira espezializazio-sektore batean aplikazio oso mugatua duten teknologiak, baizik eta unibertsalak dira; horregatik, IKTak sartzearen ondorioak askoz garrantzitsuagoak eta erabakigarriagoak dira gizarte baten garapena balioztatzeko. Ondorio horien artean, berrikuntza teknologikoaren goranzko erritmoak sortzen dituen hainbat desoreka, hesi digital gisa definitzen ditugunak, identifikatu ditzakegu. Desoreka horiek honako hauek dira:

- **Hesi soziala.** Teknologien erabileran dagoen aldea, gaztetan prestakuntzarik edo gaitasun ekonomikorik ez izatean jatorria duena.
- **Eskuragarritasunaren hesia.** Gizabanakoaren zentzumen-gaitasuna, mugitzeko gaitasuna edo gaitasun kognitiboa (iraunkorra edo agertua) txikiagoa izatean jatorria duen aldea.
- **Hesi teknologikoa.** Gaitasunarekiko dagoen aldea, teknologiarik dagokionez egunean ez egoteagatik; interesagalduta izanak, berria dena ikasteko ezintasunak edo etengabeko prestakuntzarekiko arduraren mugak izateak eragindakoa da egunean ez egote hori.

IKTek aldaketa teknologiko oso handia ekarri dute. Aldaketa horrekiko gizarteak eman duen erantzunari bi modu oso desberdinetatik ekin dakioke:

- **Prebentzio-ekintza bat,** joerak aukera bihurtuko dituen mekanismoak aztertzen, aurreratzen eta abian jartzen dituena.
- **Ekintzarik eza edo** gertaerak jazo arte **itxarotea,** arazo larrien gorakadari etengabe erantzuteko.

Ikuspegi proaktiboak nagusi izan behar du, baldin eta gizarte bere premietara bideratuta dagoen aldaketa teknologikoaren aurrean jarri nahi badugu. 2002-2005 aldiko EIGP planaren Internet guztientzat izeneko ekimenak honako helburu hau zuen jada: IKTen erabileraren inguruan sensibilizatzea Euskadiko gizarte, eta erabilera horren sustapen orokorra egitea bertan. Helburu horrek eskatzen zuen inklusio digitalaren eremuan jardutea. Jardun hori hainbat ekimenetan —Euskadiko udalerrri guztietan zeuden KZgunea zentroak, esaterako— gauzatu zen eta ekimen horiei esker Informazio Gizartearen oinarriko zerbitzuaren erabileran prestatu ahal izan dira berriazko kolektiboak, hala nola, 55 urtetik gorakoak, emakumeak eta langabeak. Oinarriko zerbitzuen erabileraren adierazleen bilakaerak erakusten du adierazitako kolektiboekin alderatzen badugu, joera positiboa dela.

Nolanahi ere, pertsona guztien inklusio digital iraunkorra sustatzeko programa bat izatea nahitaezkoa dela gehien pentsarazten diguten alderdiak teknologia horien bilakaera eta goranzko konplexutasun teknologikoa dira. Ez da nahikoa pertsona batek Internet eta posta elektronikoa erabili ahal izatea eta erabiltzen jakitea pertsona hori digitalki jantzita dagoela esateko. Zerbitzu aurreratu publiko eta pribatu berrietarako sarbidea izateko nahitaezkoa da:

- transakzio elektronikoetan (ziurtagiriak eta sinadura digitalak) segurtasuna bermatzen duten tresnak izatea eta horiek erabiltzen jakitea,
- berriazko eremuetan eragiketarako egiteko autonomia izatea (banku- eta administrazio-transakzioak),
- spamak, nahi ez den publizitatea eta eragiketa digital erraz bat amesgaizto bihurtzen duten beste fenomeno batzuk saihesteko tresnak edukitzea eta horiek erabiltzen jakitea,
- informaziorako sarbidea errazten duten tresnak ezagutzea eta horiek erabiltzen jakitea,
- gizarte-sare berriak ezagutzea eta horietan moldatzen jakitea,

Hortaz, programaren helburua bi alderditan egituratuta dago:


- Arrazoi bat dela edo beste bat dela, bazterkeria-egoeran dauden kolektiboetan inklusio digitala sustatuko duten ekintzei eustea.
- Hesi digital berriak sor litzaketen etorkizuneko joerei aurrea hartzea ahalbidetuko duen zaintza-prozesu bati eustea, eta behar izanez gero, joera horien eragina arinduko duten jardunak diseinatu eta sustatzea.

Hesi digitala ez da fenomeno berdina eta homogenea, baizik eta mota askotakoa denez gero, kolektibo eta zerbitzu bakoitzerako berariazko ekintzak behar dira. Kolektibo bakoitzarekin gauzatzen den jardunak kolektiboaren berariazko ezaugarriak hartu beharko ditu kontuan eraginkorra izateko. Bazterkeria digitalaren arriskuan dauden kolektibo asko eremu digitaletik haratago dauden jardunen helburu denez gero, arrazoizkoagoa eta eraginkorragoa da hesi digitalaren aurkako berariazko jardunak kolektibo berera bideratuta dauden irismen

handiagoko ekimenen barruan sartzea. Dena dela, jardun mota horretarako balio paregabea dutela erakutsi duten zeharkako tresnen (KZgunea zentroyen sarea, adibidez) erabilerari eutsi egin beharko zaio, ekimenaren sustatzailea eta ekimenaren helburu diren pertsonak alde batera utzita.

Helburu jakin bat lortzeko jardun zehatzen kudeaketa Administrazio Publikoak eta lantzen den gaiaren eremuan eskumena duen Sailak sustatu eta kudeatuko dute. Ekintza berriak zaintzeko eta sustatzeko prozesua gauzatzeko nahitaezkoa izango da diziplina anitzeko lan-talde bat sortzea. Lan-talde hori gizarte- eta lan-bazterkeriaren edo bazterkeria digitalaren alorrean adituak diren pertsonak osatuko dute, eta talde hori arduratuko da eginkizun horretaz Idazkaritza Tekniko baten laguntzarekin.

Ekimen horretan bilduta dauden ekintzak kolektiboen (langabeak, beste kolektibo kaltetu batzuk, landa-eremuko kolektiboak) zirkunstantzietara egokituko dira gailu digital erreferenteetarako sarbidea izateko oinarrizko prestakuntza betetzeko.



1.5. Nire etxea Interneten

Zerbitzu digital aurreratu berrien erabilera masiboa lortzeko alderdi kritiko bat da zerbitzu horiek herritarrek oinarri dituen ikuspegi baten bitartez sortu izanak izatea eta ikuspegi horretatik eskaintzea:

- Eguneroko bizitzako premia errealak bete ditzaten, herritarrek argi eta garbi atzeman ditzaketen onurak emanaz.
- Zerbitzuetarako, bereziki erabiltzaile bakoitzak sarriago erabiltzen dituenarako, sarbidea erraza eta intuitiboa izan dadin erraztuz, erraz ulertu eta erabiltzen den interfaz baten bitartez.

Ildo horretatik, 2010eko EIGPk herritar guztientzako proiektu bat erantsi du, **Metaposta** proiektua. Proiektu horren helburua honako hau da: euskal gizartean postontzi elektronikoen sistema bat garatzea eta zabaltzea pertsona fisiko eta juridikoentzat. Postontzi horretan enpresak edo erakundeek bidalitako dokumentuak jaso eta gorde ahal izango dituzte herritarrek.

Sistema horren bitartez herritarrek jasoko dituzten dokumentuak postontzi fisikoan jasotzen diren asko eta asko dira: fakturak, laburpen bankarioak, frogagiriak, polizak, kontratuak, zitazioak, jakinarazpenak, nominak eta abar.

Dokumentu horiek guztiak beren bezeroekin harremanetan jarri behar duten enpresek edo erakundeek (aurrerantzean igorleak) sortutakoak eta bidalitakoak dira. Igorle horien artean, dokumentuak barra-barra bidaltzen dituztelako, honako hauek daude: finantza-erakundeak, biztanleriari oinarritako zerbitzuak ematen dizkieten hornitzaileak (enpresa elektrikoak, gas-enpresa, ur-enpresa eta abar), aseguru-entitateak eta Administrazio Publikoak.

Dokumentu horiek sortzeak eta bidaltzeak kostu handiak eskatzen ditu, bai ekonomikoak, bai ingurumen-arlokoak; horregatik, alternatiba garbi eta ekonomiko bat emateak (izapideak elektronikoki egin eta elektronikoki igorri) abantailak eta aurrezte partikularrak eta kolektiboak ekarriko ditu zalantzarik gabe.

Halaber, hartzaileak aukera izango du dokumentu horiek guztiak modu seguruan, dohain eta tamainari dagokionez, mugarik gabe izateko eta dokumentu horietarako sarbidea ere horrelakoxea izango da; era horretan, dokumentuak ez dira galduko eta haien gordetze eraginkorra ahalbidetuko da.

Zehatzago, honako hauek dira Metapostaren ezau-garriak:

- Norberak nahi badu hartu eta erabiliko du eta hautakorra da: hartzaile bakoitzak aukera dezake zein igorleren dokumentazioa jasoko duen.
- Posta elektronikoen kontu bat ez denez gero, posta elektronikoen tradizionalaren ondorioz sortzen diren arazo asko, batez ere segurtasun-arazoak, saihestuko dira. Adierazitako arazo horietako batzuk honako hauek dira: phishing-a (nortasuna usurpatzea) edo spama (eskatu ez den posta masiboa).
- Metapostan sartzeko eta Metapostaren mezuak eta dokumentu-elementuak garraiatzeko eginkizunak oso garrantzizkoak dira, baina artxibatze elektronikoen seguruaren eginkizunak ere oso garrantzizkoak izango dira (kutxa gotor elektronikoa). Eginkizun horiei esker, legezko garrantzia duten eta luze gordetzeko gordailatu nahi diren dokumentu pertsonalak modu seguruan biltegitatu ahal izango dira. Dokumentu elektronikoen horiek Metapostaren kutxa gotor elektronikora materialak kargatzeko (igoera) eginkizunen bitartez erabiltzaileek bidalitako edo emandako mezuetan dute jatorria.
- Web-orri baten bitartez sartzeko da eta web-orri horretan edozein lekutatik sar daiteke, edozein unetan eta Interneterako konexioa duen edozein gailutatik.
- Erabiltzailearentzako biltegitatze-espazioak ez du mugarik, ezta iraupenak ere. Bizitza osorako zerbitzua da.

- Erabiltzaileak erraz erabiltzeko eta zailtasunik ez izateko diseinatuta dago.
- Euskadiko herritar eta enpresa guztientzat da, eta beste eremu batzuetara hedatzeko aukera dago.
- Dokumentuak entregatzeko denbora eta entregatzeak eragiten duen kostua murrizten du, baita dokumentuen prozesua, paperaren erabilera eta joan-etorriak ere, eta horren ondorioz, eragina positiboa izango da ingurumenari dagokionez.
- Informazioa hizkuntza askotan jaso daiteke.
- Herritarren Internetarako konektagarritasuna sustatzen du (zerbitzu erakargarria, eta, hortaz, traktorea) eta sinadura elektronikoa zabaltzea ahalbidetuko du.
- Doakoa da azken erabiltzailearentzat eta kostu txikia du igorleentzat.

Metaposta bilakaera esponentzialaren proiektu gisa proposatu da, hartzailer gehiago erakartzeak igorle gehiago sartzera animatzen baitu, eta alderantziz. Proiektu horrek Danimarkako E-BOKS proiektu arrakastatsuen eredia hartu du erreferentzia gisa. Proiektu danimarkarra Europako antzeko esperientziek baino abantaila handiagoak ditu euskal gizartean errepikatzeko.

Proiektu hau lehen urratsa izango da "Nire etxea Interneten" izeneko programan txerta daitezkeen beste zerbitzu batzuk garatzeko ondoren. Adierazitako programak honako alderdi hauek erantsiko ditu: Euskadiko herritar bakoitzak Interneten orri pertsonal bat edukitzeko aukera izango du.




1.6. Herritarren partaidetza

Programa horren helburua herritarren partaidetza bultzatzea da, hainbat alderditan jardunez:

1. Informazioan, prestakuntzan eta lan-tresnetan.
2. Esperientziak eta praktika onak trukatzeko topaketa parte-hartzailearen espazioetan.
3. Administrazio Publikoaren prozesuetan herritarren partaidetzaren esperientzien euskarri izatea.

Programan proiektu hauek azaltzen dira:

1. Euskadi 2.0, dinamika eta parte hartzeko espazioak.
2. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailen eskumeneren eremuan herritarrek izandako partaidetzaren erreferentzia - ataria.







Enpresa
berritzailea



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

2

ENPRESA BERRITZAILEA

2.1. Aurkezpena

2.1.1. Ekimenaren gakoak

Euskadiko enpresek, tamaina eta sektorea alde batera utzita, edozein sektoretan edo merkatutan arrakastaz lehiatzea ahalbidetuko duten lankidetzak-sareak sortzeko erabiliko dituzte IKTak modu intentsiboan eta estentsiboan, baita berritzeko ere, bai beren bezeroak asebeteko dituzten produktuak eta zerbitzuen garapenari dagokionez, bai beren jardun propioari dagokionez; era horretan, eraldatu ahal izango dira lehiatzeko dituzten gaitasunak uneoro hobetuz.

Euskadi Informazio Gizartean 2002-2005 Planak (EIGP) enpresa-esparruan Informazio Gizartea sustatzeko politika markatu du, enpresek IKTetara egokitzeko fase desberdinetan enpresen ia premia guztiak eta enpresa-tamaina guztiak estaltzen dituzten jardun-multzo handi baten bitartez.

Aipatu beharra dago hainbat ekimen Euskadiko beste eragile eta erakunde batzuekin egin direla, adibidez KZgunea zentroak Udalekin, Enpresa Digitala zentroak Foru Aldundiekin, eta beste hainbat programa Teknologia Zentroekin edo Enpresa Berritzaileen Zentroekin (EBZ), besteak-beste. Lankidetzak-eredu hori oso eraginkorra izan da.

Ekimen-sorta handi hori behar bezala bideratu behar da ekimenen amaierako hartzailearengana, nahasmena edo konplexutasun-ideia saihesteko, batez ere enpresa txikiaren kolektiboari dagokionez. Kolektibo hori da organismo guztien aldetik laguntza gehien behar duena, eta horien berriazko ezaugarrietara hobeto moldatzen diren mekanismoak garatu behar dira.

ETEak eta, bereziki, mikroETEak ez daude oso interesatuta, itxuraz behintzat, eskaintza teknologikoarekin; mesfi-

dantzagatik izan daiteke, edo bestela, ez dutelako ikusten negozioetan horrelako irtenbideak txertatzek zenbaterainoko garrantzia izan dezakeen, edo beste era batera esanda, horiek ez hartzeak arrisku txikia dakarrela. Horretaz gain, enpresa mota horretan eskaintzak interes mugatua eragiten du, kostu handia eskatzen duelako eta inbertsio horrek etekin txikia ematen duelako negozioari dagokionez.

Bestalde, enpresarik aurreratuenak azken urteetan ikaskuntza-prozesu batean murgildu dira, eta horren ondorioz jakin dezakete eskaintzatik zer itxaron daitekeen eta zer ez. Enpresa horiek heldu egin dira eta IKTetatik benetako lehiakortasun-abantailak ateratzen ikasi dute, eskaintzarekin lankidetzan proiektu teknologikoak arrakastaz kudeatzeko gai izan direlako.

Edonola ere, IKTen emaitzei eta eraginkortasunari buruzko "kezka" garaia dagoeneko igaro da; beste fase bati ekin behar zaio eta fase horretan, kolektibo espezifikoaren premia zehatzetara edo premia globaletara hobeto bideratutako produktu eta zerbitzuak sendotu behar dira, ekonomiaren eta teknologiaren ikuspegitik begiraturata, merkeagoak izanik, eta nola ez, emaitza egiazkoak eta errentagarriak emanez.

Sentsibilizazioa inoiz alboratu behar ez den jarduna da, baina ondo identifikatuta dauden talde jakin batzuetara hobetu eta zehazkiago bideratuta, eta kolektibo bakoitzarentzat oso hurbilekoak diren mezuekin eta mezu horiek hedatzeko bideekin. Benetan garrantzia duena soluzioen baliagarritasuna da, soluzioak arazoei edo

negozio-premiei argi eta garbi lotuta. Berriro azpimarratu behar da laguntzen eskaintza argitu egin behar dela, enpresarentzat ulertzeko erraza eta, are gehiago, gardena izan dadin. Bitarteko erakundeek zeregin garrantzitsua bete behar dute esparru horretan.

2.1.2. Helburuak eta ikuspegia

Enpresa Berritzailea ekimenaren helburuak definitzeko, enpresek IKTen esparruan duten abiapuntuko egoera gainditzen duten alderdiak kontuan izan behar dira. Izan ere, azken urteotan aldaketak gertatu dira, batetik gizartearen, ekonomiaren, legeen eta teknologiaren inguruan, eta bestetik enpresen barruan gertatu den eraldakuntzan, produkzio- eta kudeaketa-sistemei eta pertsonen trebakuntzari dagokienez.

Aldaketa horiek aztertuta eta aurreko Planean hartutako esperientzia kontuan izanik, ekimen horiekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

1. Euskadiko enpresen –batez ere, ETEen eta mikroETEen– lehiakortasuna nabarmen areagotzea IKTak modu intentsibo eta estentsiboan erabilia, produktu eta zerbitzu aurreratuen sorreran berrituta, negozio-prozesuak eta inguruko eragileekiko harremana eraldatuta, eta antolamendu- eta negozio-eredu berriak sortuta.
2. IKTen eta ikus-entzunezko edukien sektorea bultzatzea, herriaren lehiakortasunerako euskarria izan dadin, eta nazioartekotuta dagoen eta euskal ekonomian pisu garrantzitsua duen sektore gisa sendotuz.

2006–2008ko Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Planean bilduta dagoen 4. Ildo Estrategikoaren (“IKTak erabiltzea lehiakortasuna hobetzeko tresna gisa”) helburuei erantzun nahi die enpresa-esparruan lehen helburuak, eta bigarren helburuak, ordea, aipatu den Plan horren 6. Ildo Estrategikoa (“Jakintzan intentsiboa den produkzio-egitura baterantz aurrera egitea”) garatzen laguntzen du.

2010 EIGPren barnean orientabide estrategikoa zehazten duten Enpresa Berritzailea ekimenaren alderdi bereizgarri nagusiak ondorengo ataletan deskribatzen dira.

1) Erabilerrarako orientazioa

Aurreko Planaren ahaleginak batez ere jakintza eta informazio eta komunikazioko bide eta euskarrietarako sarbidea erraztera bideratu baziren, EIGP 2010 berriarekin IKTen erabilera orokorraren egoera gainditu nahi da eta lortu nahi da gizarteak IKTak erabiltzea **ekonomia-hazkunde iraunkorra** sortzen duten eta **bizikalitatea** salbuespenik gabe hobetzen duten zerbitzuak bultzatzeko.

Formulazio horrek zehazten du aurreko etapako Planarekiko dagoen ikuspegi-aldaketa. Izan ere, honako hau dakar:

- Konektagarritasunetik IKTen erabilera eraginkorrera igarotzea, gizarte- eta enpresa-erakundeen esparruan lehiakortasunerako tresna eta gizarte-arloan ongizate eta bizi-kalitaterako alderdi bihurtzeko.
- Alfabetatze digitaleko maila gainditzea gaitasun digitaleko mailetara iristeko.
- Ordenagailua ez erabiltzea soilik komunikazio- eta zerbitzu-sareetara sartzeko tresna gisa, sistema multikanalak garatuz eta ekipoen eta sistemen arteko erabateko interoperabilitatea duten plata-forma asko inkorporatuz.

Enpresa Berritzailea ekimenari dagokionez, ikuspegi-aldaketa horrek eredu berria dakar, oinarritzko elementu gisa enpresak, horien helburuak eta premiak dituena. Beraz, enpresek IKTak hartzea edo ezestea eragiten duten **palankak eta oztupoak** zeintzuk diren jakin beharko da, eta hori guztia maila desberdinetan:

- **Ekonomia- eta lehiakortasun-ingurunea**, hau da, sektorearen, lehiakideen edo merkatuko beste eragile batzuen presioa soluzio teknologikoak hartzeko.
- **Barne-gaitasunak**, hau da, teknologia berriei buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-maila, prozesuen digitalizazio-maila, ekipamendu-maila, esperientzia, edo ekonomia-baliabideak.
- **Erabakitze-taldea**, hau da, zuzendaritza-mailaren profila, zuzendarien prestakuntza edo beren lehen-tasunak, dauden planetan eta proiektu jakin batzuei baliaabideak esleitzean gauzatura.

Azken bi elementu horiek nolabait ere definitzen dute enpresak soluzio teknologikoak hartzeak duen "iragaz-kortasuna".

2) Eskaintzaren eta enpresen arteko lerrotzea

Planteatutako helburuak lortzeko beharrezkoa da IKTen eskaintza enpresen premiekin bateratzen duen, hau da, IKT horiek "bere egiten dituen" eredu bat egiten jarraitzea.

Horrela, Eskaintza eredu batetik (Technology push) Eskariaren kualifikazioan ere oinarrituta dagoen eredu batera igarotzen gara, hau da, erabileren jakintzan (IKTak zertarako erabiltzen diren) eta horien erabilera-ereduan (nola bereganatzen dituen enpresa mota bakoitzak) oinarritzen den eredu batera.


3) Segmentazioa, politika zehatzagoen oinarri gisa

Segmentazio egoki batek jardun zehatzagoak diseinatzeko aukera ematen du, eta horiengandik inpaktu handiagoa itxarongo da: jardunen eraginkortasun handiagoa eta enpresen satisfazio handiagoa.

Enpresak banan-banan hartzea ezinezkoa denez gero, beharrezkoa da IKTekiko duten portaerari dagokionez antzeko ezaugarriak dituzten taldeak identifikatzea.

Saillapen tradizionalak, adibidez sektoriala, ez dira erabakigarriak IKTen xurgatze-prozesua azaltzeko. Tamainarekiko azpisegmentazioa (MikroETEak, ETEak eta Handiak) gehiago hurbiltzen da lortu nahi dena, baina nahikoa izan gabe jarraitzen du.

Antzeko zerbait egin beharko litzateke IKTen eskaintzarekin ere, enpresek IKT horiek bereganatzeko prozesuan bazkide eraginkorra izateko garaian berezitasunak eta mugak baititu.



2.1.3. Eredu Berria

IKTen eskaintzaren eta enpresa erabiltzaileen arteko lotura pixkanaka sortzen da elkarren artean **ezagutuz eta konfiantzako** harreman bat indartzen den heinean, harreman horrek enpresek nahi dituzten helburuak lortzen asko laguntzen baitu. Eskaintzaren eta enpresaren arteko ezagutze- eta konfiantza-harreman hori desberdina da aktoreen mailaren arabera.

Horregatik, eta eredu hobeto ulertzeko, garrantzitsua da enpresen nahiz eskaintzaren segmentazio egokia egitea, eta segmentazio hori egin ondoren bakarrik uler daiteke ereduaren osotasuna eta "bitartekariak" (konfiantzako hirugarrenek) betetzen duten zeregina.



2.1.4. Enpresen segmentazioa, IKTak hartzearen ikuspuntutik.

Enpresak **kolektibo konplexua eta oso anitza dira**, hala dituzten ezaugarriengatik (tamaina eta sektorea) nola merkatuan duten portaera eta eraginkortasunagatik. Aniztasun horren ondorioz oso zaila da enpresa guztietara egokitzen diren soluzio orokorrak proposatzea.

Horregatik beharrezkoa da aldeztu aurretik segmentazio-ahalegin bat egitea antzeko ezaugarriak eta premia komunak dituzten enpresa-talde homogeneoak identifikatzeko, segmentazio horrek ondoren aukera emango duelako enpresa-talde horien arazoetara eta premietara eraginkorrago egokitzen diren jardunak diseinatzeko. Segmentazio eta taldekatze egoki batek jardun zehatzagoak diseinatzeko aukera ematen du, eta horiengandik inpaktu handiagoa itxarongo da.

Tamainan eta/edo sektorean oinarritzen diren enpresa-segmentazio tradizionalak ez dira nahikoak horien aldetik egiten den IKTen harrera eta erabilera baloratzeko, tamainaren arabera azpisegmentazioa erabiltzen denean salbu.

Dena dela, enpresa guztiak banan-banan hartzea ezinezkoa denez gero, proposatu da beste segmentazio mota bat egitea ezaugarri homogeneoak dituzten lau

talde identifikatzeko, IKTek enpresen planteamendu estrategikoan duten garrantziaren arabera, enpresek IKTekiko duten portaera zehazten baitu.

Adierazi behar da **segmentazio hori ez dela enpresa batek aurrera egiteko jarraitu behar duen bilakaera-eredu bat**, baizik eta irizpide jakin batzuen arabera enpresa kokatzen den posizioa. Bilakaera teknologikoa bere segmentuaren barnean gertatuko da.

Segmentazio hori egiteko honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

- **Negoio-informazioa erabiltzen duten pertsonen kopurua:** Informazio mota hori erabiltzen duten langileen guztizko kopuruaren arabera sailkatzen dira enpresak. Horrela, "i-enplegatuen" kopurua honako kopuru hauek oinarrituko da:
 - IKTak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua: ordenagailu pertsonala, Internetarako sarbidea, posta elektronikorako sarbidea, eta abar.
 - Enpresaren euskarri diren arloetako pertsonen kopurua: Zuzendaritza Nagusia, Salmentak, Erosketak, Administrazioa, eta abar.

IKTen premia
"estrategiko" txikia

A

IKT estandarren
inkorporazioa

B

IKTen inkorporazioa
alderdi estrategiko
gisa


C

IKT gako
diferenzial gisa

D

- Informazioak eta komunikazioak enpresen negozioarako duten balio erantsia:** Horretarako, hiru irizpideren arabera konplexutasuna aztertzen da:
 - Antolaketa-konplexutasuna: enpresaren egoitzen eta/edo langileen sakabanatzea, jarduneko geografia-esparrua, eta abar.
 - Konplexutasun operatiboa: hornitzaileen eta bezeroen kopurua, horien sakabanatzea edo kokapena, teknologiaren erabilera maila sektorean.
 - Konplexutasun transakzionala: produktuen edo zerbitzuen izaera "digitalizagarria", transakzioen maiztasuna eta bolumena (erosketak eta salmentak).

Irizpide horiek hartuta eta EUSTATen datuetan oinarrituz, enpresen banaketa honako hau da:



Iturria: Egileak egina, EUSTATen datuen arabera.

A) IKTen premia "estrategiko" txikia duten enpresak:

Negozio-informazioa erabiltzen duten oso langile gutxi dituzten enpresa txikiak (MikroETEak eta ETEak) dira, eta beren tamaina eta sofistikazio-maila txikia dela medio ez dute ikusten IKTak inorporatzeko premia estrategikorik.

Horien jarrera, oro har, IKTekiko nolabaiteko axolaga-betasuna eta zenbaitetan gutxiespena da, eta esan daiteke horiek ez hartzeak epe laburrean dakarren arriskua txikia dela.

Enpresa mota horrek behar ditu oinarrizko soluzioak, merkeak eta ulerterrazak, instalatu, erabili eta mantendu, bezeroei eta hornitzaileei begira beren jardueraren publizitatea egiteaz gain barneko eraginkortasuna hobetzen laguntzeko.

Segmentu hori garrantzitsuenetakoa da, euskal enpresa guztien % 73 barne hartzen baitu, baina langileen kopurua kontuan izanik bere pisu erlatiboa % 31ra jaisten da, eta are gehiago fakturazio-bolumena hartzen bada kontuan (% 19 inguru).

B) IKT estandarren inorporazioa:

Segmentu honen ezaugarri nagusia da enpresek beren negozioa IKTak partzialki inorporatzen dituztela, baina ez dute ia inolako barne-gaitasunik IKT proiektuei ekiteko. Informatika azpikontratatuta dago, eta horrek eragiten du eskaintzarekiko solaskide bakarra teknologia-prestakuntza eskasa duen pertsona bat izatea.

IKTak ez hartzeko arriskua handia da epe ertainean.

Segmentu honetan barne hartutako enpresek oinarrizko soluzioak behar dituzte, gutxi pertsonalizatuak eta funtzionalitate mugatuekin, zenbait jarduera edo zeregin automatizatzeko, kostuak aurrezteko eta bezeroekin eta hornitzaileekin dauden komunikazioen kontrola hobetzeko helburuarekin.

Segmentu honetan euskal enpresen % 25 barne hartuta daude, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen % 31rekin eta % 37 inguruko fakturazio-bolumenarekin.

C) IKTen inorporazioa alderdi estrategiko gisa:

Segmentu honetan barne hartutako enpresentzat, IKTak enpresak bizirauteko eta lehiakorra izateko kritikotzat jotzen den alderdi estrategikoa dira, horiek ez hartzeak dakarren arriskua handia baita epe laburrean.

Segmentu honetako enpresek beren prozesuak bateratu behar dituzte, bezeroekiko zerbitzua hobetu behar dute eta beren sistemak hirugarrenekin bateratu behar dituzte, eta horregatik neurri egindako eta berariazko aplikazioak behar dira beren sektorerako, eta gainera horiek guztiek bateratzeko gai izan behar dute.

Segmentu honek eskatzen dituen soluzioen sofistikazioak eskatzen du informatika-sail bat edukitzea, teknologia-eskaintzarekin zuzeneko solaskide izateko gaitasunarekin. Horrek jauzi kualitatiboa dakar, zereginak bereizteak (estrategia, operatiboa, teknologia, eta abar) aukera ematen duelako nolabaiteko konplexutasuna duten proiektuei ekiteko.

Segmentu honetan barne hartutako enpresek Euskadiko enpresa guztien % 2 bakarrik barne hartzen dute, baina langileen % 28 eta gutxi gorabehera fakturazio-bolumenaren % 27 barne hartzen dute.


D) IKTak gako bereizgarri gisa:

Segmentu hau, bereziak izatea bilatzen duten eta lehiakortasunean funtsezkoak diren soluzio eta aplikazio teknologikoak inorporatzeari dagokionez enpresarik aurreratuenek osatzen dute. Enpresa horientzat IKTak ez hartzeko arriskua oso handia da epe laburrean.

Segmentu honetako enpresek proiektu sofistikatuak gauzatzen dituzte, I+Gan asko inbertitzen dute, teknologia-zentroekin eta teknologia-eskaintzarekin lankidetzan jardun ohi dute, eta horiekin hainbat kasutan garapenerako lankidetzatza-harremana dute.

Segmentu honetan Euskadiko enpresen % 1 bakarrik daude, langileen kopuruaren % 10 barne hartzen dituzte, eta fakturazio-bolumena gutxi gorabehera % 17 da.


Laburpen gisa, segmentu baten eta beste baten arteko "mugak" definitzea ahalbidetzen duten elementuak honako grafiko honetan irudikatuta daude.




2.1.5. Soluzio-eskaintzaren segmentazioa

Eskaintzaren ikuspuntutik ere oso tipologia arrunta eratu da, lehendik aipatu den enpresen segmentazioarekin bateratu daitekeena.

- **Eragile handiak eskaintza integralarekin:** beren eskaintza "soluzio oso" gisa aurkezten dute, zerbitzu-sorta handia barne hartzen dutelako, enpresaren bazkide teknologiko globala (bakarra) izateko helburuarekin. Enpresa dibertsifikatuak dira, beren ohiko esparrutik kanpo merkatuak bilatzen dituztenak, eta produktuaren eta zerbitzuaren garapen eta berrikuntzan asko gastatzen dutenak. Zerbitzuetan
- **Aktore Globalak,** batez ere Euskadin kokatuta dauden multinazionalak, gaitasun teknologiko handia dutenak eta erosteko ahalmen handia duten enpresetara zuzenduak.
- **Tokiko Aktoreak,** askotariko zerbitzuak erantsi dituztenak, eta tokiko merkatuari eskaintzen dizkietenak. Horien berezitasuna hurbiltasuna eta zerbitzu-maila dira.



- **Nitxoko espezialistak:** oso esparru edo teknologia zehatzetan espezializatutako eskaintza dute. Oro har, gaitasun teknologiko handia eta geografikoki merkatu zabala duten enpresak dira, merkatu hori enpresa handiez nahiz txikiez osatuta egonik. Enpresa multinazionalak nahiz tokiko enpresak dira, eta bi taldeek espezializazio-maila handia dute, maila sektoriala nahiz produktu edo zerbitzu baten lineari lotuta. Espezialitate-esparruak askotarikoak dira: segurtasunaren alorra, kudeaketako soluzio korporatiboak (ERPak, CRM, BI, erosketak), sektore edo soluzio espezifikotarako espezializazioa (sanitatea, garraioa,...) eta abar.
- **Enpresa txikiak:** aurreko bi taldeez gain, merkatuan enpresa txiki askok parte hartzen dute espezializazio bat oso definituta eduki gabe, kasu askotan sektorean sartzeko oztopo txikien ondorioz. Oro har tokiko enpresak dira, oso eskaintza mugatua eta berrikuntzarako baliabide gutxi dituztenak. Enpresa horien merkatu naturala ETEak eta MikroETEak dira.



Negoio-eredu guztietan argi eta garbi dago egungo pisua erabat aldatu dela teknologia, software-produktu eta zerbitzuetara, bezeroarengan eskaintzaren balioa handitzeko apustu handia eginez. Teknologiaren prezioak etengabe jaitsi egin direnez, informatika-ondasunak "commodity" bihurtu dira, eta horren ondorioz sektoreko enpresek beren balio erantsia zerbitzuetara bideratu dute. Hori dela medio, produktuak "produktu hedatu" bihurtzen ari dira, horietako bakoitza zerbitzu-osagai garrantzitsuarekin. Segmentu askotan, balio erantsia gehiago eratoritzen da zerbitzu-osagaitik produktuetatik baino.

IKTen eta komunikazioen benetako konbergentzia teknologikoak IKT sektoreko enpresak behartzen ditu telekomunikazioetako gaitasunak garatzera, eta edozein kasutan, telekomunikazioen sektoreko aktoreen lankidetzaren ingurune bat edukitzera. Konbergentziak eta konplexutasunak, egungo merkatuaren ezaugarri direnez gero, aliantzak eta lankidetzak eskatzen dituzte, eta horien kudeaketak, enpresaren posizioa ziurtatzeko, gaitasun berriak eskatzen ditu.

Azterketak bat datoz IKTen sektoreko enpresek "hazkunderako gose handia" dutela adierazterakoan, eta horren ondorioz ezinbestekoak izango dira negoio-eredu berriak, non produktuen eta zerbitzuen berrikuntzak posizio nabarmena izango duten, teknologia konbergenteetako merkatuetan sortuko diren aukerak aprobetxatzeko.

Bestalde, aurrekoarekin zuzenean erlazionatuta dagoen beste sektore bat aipatu behar da, **Ikus-entzunezkoen sektorea** alegia.

Ikus-entzunezkoen sektorea multimedia-edukiak eta ikus-entzunezko produktuak sortzen eta emititzen dituzten enpresez osatuta dago. Sektore honetako enpresek jarduera asko barne hartzen dituzte: edukien sorkuntza, produkzioa, banaketa eta emanaldia plataforma, formatu eta genero desberdinentzat (TB, zinea, animazioa, bideojokoak, mugikorrak, eta abar); lehiaketak, magazineak, dokumentalak, fikzioa, eta abar.

Sektore honetako enpresa gehienak ETE definizioan barne hartuta daude, baina era berean badaude dimentsio handiko enpresa "traktoreak", baita teknologia-zentroak, berrikuntza-eragileak eta EIKEN klusterra ere.

2.1.6. Bitartekariak eredu berriak betetzen duten zeregina

Eskaintzaren segmentazioa eskariarekin gurutzatzen bada, argi geratzen da IKTetarako baliabide handirik ez duten enpresen segmentuek eskaintza-ekintzatik isolatuta geratzeko joera dutela, edo bestela eskaintza oso mugatua izaten dela. Kasu horietan, enpresentzako konfiantzazkoak diren bitartekariak jarduna funtsezkoa da IKTak eskaintzen dituzten enpresekin elkarri ezagutzeko eta konfiantza sortzeko harremanak sendotzerakoan.

Bitartekotzari buruz ari garenean oso eragile desberdinak aurkitu ditzakegu:

- **Bezeroak eta hornitzaileak:** horien bitartez IKTen erabilera sustatu daiteke, izaera "traktorea" dutelako (enpresen zerbitzua emateko edo jasotzeko modua hobetzea). Hornitzaile-kasu berezi bat ETEekin eta MikroETEekin oso posizio abantailatsua duten **zerbitzu profesionalen** enpresak dira (adibidez: gestoriak: lanekoa, fiskala eta kontabilitatekoa, ...), oso harreman estua eta iraunkorra dutelako.



- **Enpresa-elkartek:** besteak beste, ordezkatzen dituzten enpresen premiak gaineratzeko gaitasuna dute (berriazko jakintza) edo horiei beren premietara erabat egokitutako proposamen teknologikoak aurkezten dizkiete (konfiantzazko preskripzioa).
- **Teknologia Bitartekariak:** negozio-ikuspegi argia eta IKTen gaitasunen jakintza bateratzen dituen figura da. Oso profil desberdina izan dezakete, adibidez IKTen konfiantzazko aholkularia, soluzio errazak ezartzeko espezialistak, edo informatikadendak ere teknologia-baliabide gutxiago dituzten enpresentzat.

"Bitartekariak" kasu askotan ezinbesteko engranaje natural bihurtzen dira eskaintza enpresengana hurbiltzeko, batez ere A eta B segmentuetako enpresen kasuan, non IKTak inkorporatu behar diren kontzientzia txikiagoa dagoen.


Segmentu horientzat egiten diren jardunek eta proiektuek oso kontuan izan behar dituzte "bitartekariak", kasu askotan jardun eta proiektu horietan parte hartu beharko dutelako jardunen eraginkortasuna eta proiektuen arrakasta bermatzeko.

2.1.7. Helburuak eta jardunak

Adierazitako helburuak lortzeko eta planteatu den ikuspegiarekin bat eginez, Enpresa Berritzailea ekimenak honako helburu hauek lortu nahi ditu:

- Mikroenpresen inkorporazioari dagokionez:
 1. Mikroenpresen eta autonomoen esku jartzea "IKT zerbitzu unibertsal" batzuetarako berehalako sarrera, ezartzeko eta erabiltzeko errazak eta aldi berean bizkorak.
- Ibilbide indibidualen sorkuntzari dagokionez:
 2. Enpresetan teknologia-gaitasunak garatzea, soluzioak eraginkortasunez eta efizientziaz ezartzeko eta horiek bereganatzeko gaitasuna handitzeko.
 3. Diagnostiko eta ezarpenerako baliabideak erraztea, enpresen eta horien merkatuen premietara egokitutako prozesu eta produktu berritzaileak eraginkorki abian jartzeko baliagarriak diren ibilbide pertsonalizatuak garatzeko.
- Proiektu bertikalen garapen eta abiarazpenari dagokienez:
 4. Berriazko premiak dituzten kolektiboak lehiakorrako bihurtzen dituzten proiektuen garapena erraztea, zeinetan nahitaez aktore desberdinek parte hartuko duten, hala erakusketak egiten dituzten erabiltzaileak nola soluzioak garatzen dituztenak, eta jakintza eskaintzen duten eta horien artean beharrezko konfiantza sortzen duten bitartekariak.
- Enpresa-berrikuntzari dagokionez:
 5. IKTen aplikazio berritzailean oinarritzen diren ereduak dituzten negozio berrien garapena erraztea, egungo enpresen eta pertsona ekin-tzaileen jakintza, talentua, baliabideak eta ikuspegia abiapuntutzat hartuz.
 6. IKTen esparruan proiektuen garapena bultzatzea, enpresa aurreratuei teknologia berritzaileagoa edukitzeko eta hazkunde- eta errentagarritasun-potentzial handiko merkatuetan posizionamendu diferentziala lortzeko aukera ematen dietenak.
- IKT sektore berritzailea eta nazioartekoa sortzeari dagokionez:
 7. IKT enpresen trebakuntzarako tresnak sustatzea, bezero-segmentu desberdinen kalitate, kostu eta time-to-market premietara egokitutako produktu eta proiektuen garapena bermatzeko moduan.
 8. Proiektu, soluzio eta produktu berritzaileen garapena bultzatzea I+G jardueren bitartez, espezializatua, balio erantsi handikoa eta nazioarteko merkatuan lehia aritzeko gai den IKT sektore baten oinarri izan dadin.
- Ikus-entzunezko sektoreari dagokionez:
 9. Euskadin ikus-entzunezko sektore dibertsifikatua, lehiakorra eta behar adinako dimentsioa duena sendotzea, trebakuntzaren eta produktu eta eduki berritzaileen garapenaren bitartez, baita merkatuan sektorearen presentzia handitzen duten produkzio- eta emanaldi-metodo berrien bitartez ere.

Enpresei erlazionatuta ezarrita dauden helburuak lortzeko, beharrezkoa da jardunak egitea lau arlo garrantzitsutan:



- **Sentsibilizazio eta Preskripzio Ekintzak**, IKTak erabiltzearen aldeko jarrerak bultzatzen dituztenak eta horien erabilerearekiko errezeloa murrizten dutenak.
- **Identifikazio, Diagnostiko eta Aholkularitza Ekintzak**, enpresen egoera ezagutzen lagunduko dutenak, IKTen esparruan dituzten premia zehatzak zein diren identifikatuz, gai horretan ahalik eta hobekien aholku eman ahal izateko.
- **Prestakuntza Ekintzak**, ahalik eta pertsonalizatuena, zuzenduta dauden pertsona motaren arabera (enpresaburuak, zuzendaritzako langileak, langileak eta abar), eta enpresen sektorearen edo premia mota desberdinen arabera.
- **Oinarrizko baliabideak**, soluzio horizontalak (bereziki mikroenpresentzat) nahiz sektoreka eta baliokateka espezializatutako soluzio bertikalak **ezartzen laguntzen duten ekintzak**.


IKTen eskaintzarekin eta ikus-entzunezkoen sektorearekin erlazionatuta ezarrita dauden helburuak lortzeko, beharrezkoa da jardunak egitea hiru arlo garrantzitsutan:



- **Trekuntza-ekintzak**, teknologia-enpresak eta ikus-entzunezkoen sektorekoak pertsona gaituekin eta kudeaketa-sistema homologagarriekin trebatuko dituztenak, proiektuak modu profesionalen eta fidagarritasun handiarekin kudeatzeko.
- **Egokitzapen-ekintzak**, enpresa eskatzaileen benetako premietara egokitzen diren zerbitzu profesionalen, produktu eta zerbitzu aurreratuen eskaintza zabala eta kualifikatua lortzeko.
- **Produktu berriak garatzeko ekintzak**, IKTen eta ikus-entzunezko enpresen etengabeko aurrerapena bultzatzen, ahaleginak datozen urteetan hazkunde- eta inpaktu-ahalmen handieneko gaitetara bideratuz: sistema txertatuak, komunikazio mugikorak, eta abar.

Deskribatutako jardunak 2010 EIGPren esparruan garatuko diren programa eta proiektuetan zehazten dira. Horien sailkapena hiru mailatan egiten da, eredu globalean betetzen duten zereginaren arabera. Honako hauek dira:

- **Infozerbitzuak**, hau da, markatutako helburuak betetzen laguntzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta zerbitzuak prestatzera bideratutako jardunak.
- **Berariazko jardunak enpresentzat edo eskaintzarentzat**, horien helburua izanik berariazko helburuei ekitea ekimeneko esparru jakin batean (prestakuntza, hedapena, ezarpena eta abar), berariazko azpisektore batean (proiektu bertikala edo sektoriala) edo ongi identifikatutako problematika batean.
- **Inpaktu handiko proiektuak**; horietan barne hartuta daude beren garrantzia, konplexutasuna eta izaera "masiboa" direla medio Eusko Jaurlaritzaren lidergo argia behar dutenak, beharrezkoak diren gainerako agenteen partaidetzaz gain.



2.2. Infozerbitzuak

Infozerbitzu gisa kalifikatutako jardunak eta proiektuak dira enpresentzako oinarritzko zerbitzuen azpiegitura eratzen dutenak. 3 jardun identifikatu dira maila horretan.



Infozerbitzuak denboraren poderioz hazten joango den jardun-multzobatdirenarren, ondorengarrantzitsuenetako batzuk aipatuko ditugu:

- **Aldi Baterako Bulego Ibiltariak:** IKTek gaur egun aukera ematen dute langile askok beren lana urruneko kokapenetatik lan egin ahal izateko errendimenduan eraginik izan gabe eta enpresaren funtzionamendua oztopatu gabe, baina sortzen den arazoa da askotan ibiltari gisa diharduten langileek ez dutela tokirik aurkitzen beren lana baldintza onetan egiteko.

Ekimen horren helburua da instalazio-sare bat sustatzea, bertan konektagarritasun soilaz gain beste zerbitzu batzuk eskainiz: lan-mahaiak, biltzeko lekuak, dokumentuen inprimaketa, bideokonferentzia, eta abar, eta era horretan enplegu ibiltaria eta telelana ere sustatuko dira. Telelanerako zentroak publikoak nahiz pribatuak izango lirateke.

Publikoen kasuan, funtzio horretarako antzekoak edo osagarriak izango liratekeen espazio publikoak prestatu beharko lirateke, adibidez KZgunea zentroak, Enpresa Digitala zentroak, industria-poligonoak eta enpresak sustatzeko zentroak, zentro zibikoak, liburutegiak, kultur etxeak, informatika-gelak edo ikastetxeak.

Modu osagarrian, ekimen pribatuak telelaneko zentroak sortu eta ustiatu ditzake honako leku hauek: horretarako areto edo gela bat kokatu dezaketen fotokopisteriak eta erreprografiako dendak, hotel-establezimenduak eta turismo-sektoreko enpresak, gune historikoetan kokatutako bulegoetako espazio libreak (aseguru-bulegoak, bidaiaria-agentziak, eta abar), nekazaritza-turismoko establezimenduetan kokatutako lan-aretoak eta abar.


- **Metaposta Postontzi Unibertzala:** Postontzi Unibertzalpertsionalaren kasuan bezala, Enpresentzako Postontzi Unibertzalaren helburua da posta-erretilu seguru eta doako bat sortzea eta horren erabilera sustatzea, horren bitartez enpresak berari lotuta dagoen informazio guztia eta posta elektronikoa guztiak jaso eta biltegituz: komunikazioak bankuarekin, Administrazioarekin, hornitzaileekin eta bezeroekin eta abar. Hona hemen eskaini ditzaketen zerbitzu batzuk: jakinarazpen elektronikoa, horren bitartez beste enpresa, Administrazio Publiko, banku, aholkularitza-enpresa eta abarretatik datorren posta ofiziala, artxibo elektronikoa segurua eta doakoa, edo egiaztapen digitala eta *time stamping* jaso ahal izateko.
- **Ekintzaileen Gune Birtuala:** ekimen honen helburua da gune birtual bat sortzea zerbitzu digital sorta baterako sarrera zentralizatzeko; zerbitzu horien xedea izango da ekintzaileei laguntza eskaintzea negozio-ideia duten unetik enpresa bat martxan jartzen duten uneraino. Gune birtual horrek honako zerbitzu hauek eskainiko ditu: ekintzailearentzat garrantzitsuak diren lotura eta informazio guztien dokumentu-errepositorio izatea, enpresa bat sortzeko egin beharreko urratsei eta izapideei buruzko gidak eta informazioa, ekintzaileen eskola birtuala, eta lankidetzarako eta berrikuntzarako sareak sortzeko xedez elkarrekin jardun dezaketen enpresen komunitate birtuala.

2.3. Enpresentzako eta eskaintzarentzako jardunak

Proiektu mota horrek zuzeneko eragina du enpresen edo IKTen eta ikus-entzunezkoen (kasuen arabera) segmentu batean edo batzuetan, deskribatutako esparru desberdinetako bakoitzean jardunez. Ondoren enpresei eta IKTen eta ikus-entzunezkoen eskaintzari buruzko jardunak deskribatzen dira, berezita.

2.1.1. Enpresentzako jardunak

Ezartzen diren helburuak betetzeko beharrezkoa da jardunak egitea aipatutako segmentuekin erlazionatutako lau area garrantzitsutan, ondorengo grafikoa adierazten den bezala:



Kontuan izan behar da **jardun horiek ez dutela isolatuak izan behar**, izan ere, enpresa batek IKTen erabileran duen posizionamendua hobetzeko egin ditzakeen **ibilbide desberdinen zatitzat har daitezke**. Esate baterako, Agenda Sektorial baten garapenak zehaztuko ditu oinarritzko mailako nahiz maila aurreratuko prestakuntza-premiak eta soluzio bertikal baten ondorengo garapena eta ezarpena. Ibilbide horien eraikuntzan, batez ere proiektu bertikalen edo MikroETEetara bideratutako kasuan, oso zeregin berezia izango dute konfiantzazko bitartekariak, enpresen premietara ongi bideratutako proiektuak eraikitzen eta enpresentzat laguntza-programak gardentasunez bilatzen lagunduko baitute.

- **Sentsibilizazio / Preskripzio Ekintzak:**

- **Demostrazio Tailerrak:** jardun honen helburua da Innovanet Sarea aprobetxatzea A eta B segmentuetan barne hartutako enpresa txiki eta ertainetara funtsean bideratutako IKT aplikazioen demostrazioak aldizka egiten dituzten tailerrak garatzeko. Tailer horien garapenak batez ere segmentu horietako enpresei aukera emango die Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien jakintza teoriko-praktikoa eskuratzeko, zeinak indibidualki eskuratzeko arazo askoz handiagoak dituzten.

- **Identifikazio / Diagnostiko / Aholkularitzako Ekintzak:**

- **"KZ LANKIDETZA" IKT Agenda Sektoriala:** jardun honen helburua da diagnostikoak zein sektoretan eta zein balio-katetan egin behar diren identifikatzea, abiapuntuko egoera zehazteko eta egin behar den jardun mota erabakitzeko. "KZ LANKIDETZA" programaren barnean egingo den IKT Agenda Sektorialak sektore desberdinetan IKTak ezartzeak ematen dituen aukerak eta onurak identifikatuko ditu, aukera desberdinak aukeratuko ditu, eta horiei sektore bakoitzarentzat bereizitako agenda batean lehentasuna emango die.
- **Teknologia Bitartekaria:** Teknologia Bitarte-kariaren irudiaren sorkuntzak kanpoko aholkulari independente batekin ordeztu nahi du zenbait enpresetan informatika-arduradunik ez izatea (batez ere B segmentuan). Bitartekari horrek bere negozioetan IKTak ezartzeko prozesuan lagunduko die, eskaintzen duten balio erantsia hobeto ezagutzen lagunduz.

- **Berrikuntza Agendak:** Berrikuntza Agendak programak erraztu nahi du enpresek aurrera egitea berrikuntzaren ildotik, berrikuntzaren kulturaren sustapenaren, berrikuntzako gogoeta estrategikoaren, Berrikuntzaren Agenda lantzearen eta horren garapenaren bitartez, berrikuntza-proiektuen egikaritzea ahalbidetzeko. Programa honetan barne hartutako enpresek berrikuntzari buruzko gogoeta estrategikoa egin behar dute, enpresaren egungo egoera aztertzeke, eta bere berrikuntza-ahalmenen heldze-egoeraren arabera, garatu beharreko arloak eta etorkizunari begira dituen aukerak atzemateko. Jardun horien emaitzek enpresa bakoitzean aukera emango dute enpresaren berrikuntza-maila eta egiten duen aurrerapena zehazteko. Agenda horrek IKTei dagokien alderdia ikuspegi orokor batetik landu beharko du.

- **"HOBEKI DIGITALA" IKT Agenda Indibiduala:**

Jardun honen helburua da IKTen inkorporazio-egoerari buruzko diagnostiko indibidualak egitea, enpresa bakoitzaren ezaugarri eta premia zehatzekin bat datorren "IKT Agenda" indibidual bat sortzeko. IKT Agenda indibiduala batez ere C segmentuko (IKTen inkorporazioa alderdi estrategiko gisa) enpresei zuzenduta dago, kasu horietan berriazko diagnostiko eta ekintza-plan bat baliozko osagarria izan daitezkeelako berrikuntza-agenda indibidualerako. IKT Agenda indibidualak identifikatuko ditu enpresan IKTak instalatzeko dauden aukerak, ezarpen horrek ekar ditzakeen onurak, baita aukera desberdinen lehentasunak ordenatzea eta kostuari eta epeei dagokienez nola burutzeko plangintza egitea ere.

- **Prestakuntza-ekintzak:**


- **"KZ PRESTAKUNTZA" prestakuntza-ikastaroak:** enpresetan IKTak erabiltzeari buruzko doako ikastaro presentzialak ematea "KZ PRESTAKUNTZA" programaren barnean. IKTen erabilera praktikoa prestatuta dauden ETEen eta MikroETEen kopurua handitzea dute helburu. Batez ere 1. segmentuko enpresei (IKTen premia "estrategiko" txikia), ETEei eta MikroETEei zuzenduta daude. Ikastaro horiek doakoak dira eta enpresa-jardunarekin bateragarriak, eta ETEek eta MikroETEek Teknologia Berrietara egokitzeke ahalegin bat egin beharri erantzuten diote.

- **Aplikazio Aurreratueterako Prestakuntza:** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien aplikazio aurreratueterako prestakuntza-ikastaroak ematea, aplikazio mota horien prestakuntza behar duten enpresentzat. Beren izaera dela medio ez dira estandarrak, eta enpresek edo horien elkarteek proposatu beharko dituzte. Prestakuntza-saio horiek bereziki egokiak dira B eta segmentuetako enpresentzat (IKT estandarren inkorporazioa eta IKTen inkorporazioa Alderdi Estrategiko gisa).
- **Ezartzen laguntzen duten ekintzak:**
 - **"KZ MIKROENPRESAK" ezartzea:** jardun honen helburua da ETEen eta MikroETEen negozio-estrategietan eta ekipamendu-mailetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilera eta horien inkorporazioa orokortzeko laguntza-neurriak ezartzea. Aurreko "KONEKTA ZAITEZ MIKROENPRESAK" programak ezarritako ildoari jarraitzen dion jardun horrekin lotu nahi da beharrezkoak diren hardware-elementuak ezartzen eta ETEetan eta MikroETEetan IKT berriei buruz trebatzen eta prestatzen laguntzea.
 - **Teknologia Ezarleak:** horien helburua da A segmentuko enpresei (IKTen premia "estrategiko" txikia) laguntzea oinarritzakoak eta errazak diren IKT aplikazioak martxan jartzen (adibidez: posta elektronikoa, oinarritzako telekomunikazioak, funtsezko kudeaketa-sistemak eta abar, askotan enpresan bertan dauden edo dohainik eskura dauden pakete estandarretan oinarrituta). Ezarleak, era berean, baliabide propioak ez dituzten eta IKTek beren negozioari egin diezaioketen ekarpenarekiko kezka berezirik ez duten enpresen kolektiboan "banan-banan" sentsibilizatzeko funtsezko zeregina beren gain hartzen dute.
 - **"KZ LANKIDETZA" Soluzio Bertikalak:** jardun honen helburua da enpresetan IKTak Ezartzeko Planak landu daitezen bultzatzea. IKT Agenda Sektorialak sektore desberdinetan IKTak ezartzeak ematen dituen aukerak eta onurak identifikatuko ditu, aukera desberdinak aukeratuz, eta horiei sektore bakoitzarentzat bereizitako agenda batean lehentasuna emanez. KZ LANKIDETZAn barne hartutako proiektuak izango dira enpresa-multzo batek garatuak eta enpresen eta/edo profesionalen
- Elkarteek edo Enpresa traktoreek bultzatuak, eta beren bazkideen nahiz hornitzaileen artean IKTak inkorporatu nahi dituzten proiektuen bultzatzaile eta dinamizatzaile gisa jardun ahal izango dute. Konplexuak izan daitekeenez gero, proiektu horiek hasten dira iritsiera mugatuko pilotu-proiektuekin, eta ondoren, horien emaitzak helburuko kolektibo osora zabaltzen dira (batez ere A eta B segmentuetara, baina ez esklusiboki).
- **"HOBEBI DIGITALA" Ezartzea:** ekimen horren bitartez laguntza-neurriak ezartzen dira enpresetan IKTak Ezartzeko Planak landu daitezen sustatzeko eta enpresaren negozio-arlo desberdinetan prozesuak digitalizatzeko aukera ematen duten proiektu zehatzen ezarpenean laguntzeko, baita beste enpresa eta Administrazio batzuekin erlazionatzeko prozesuen digitalizazioa gauzatzeko ere. Gehienetan merkataritza-aplikazio edo -soluzio parametrizagarriak dira, berrikuntza-maila mugatuarekin. Ekimen horrek Teknologia Parkeetan kokatuta dauden Enpresa Digitala Zentroetatik bultzatzen ari diren IKTen erabilerrari buruzko sentsibilizazio, hedapen eta prestakuntzarako jardunak osatu nahi ditu. Ezarpen horietan parte hartzen duten kontsultoreak homologatuta edo behar bezala ziurtatuta egon daitezen lotu nahi da.
- **IKTekin erlazionatutako Negozio Eredu Berriak, "ALDATU":** "ALDATU" programaren barnean dagoen ekimen horrek laguntza-erregimen bat ezartzen du, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin erlazionatutako negozio-eredu berriak emaitza gisa ematen dituzten berrikuntza-proiektuek enpresetan egin daitezen sustatzeko. Laguntza horiek bideratuta daude enpresen estrategia birplanteatzera eta merkatuaren berrikuntzara eta enpresaren berritzeko ahalmenaren garapenera, eta ez prozesu konbentzionalen euskarri izatera. Enpresen arteko lankidetzak eta enpresen barneko berrikuntza bereziki bultzatzen da, bai ikuspegi kulturaletik baita strategiaren birplanteatzetik edo gizarte-sare informalaren eraketatik ere. Berrikuntza integralaren aldeko ekimen horrekin arlo asko barne hartuko dira: marketinga, pertsonak eta antolaketa, antolaketa-estrategia, jakintzaren kudeaketa, berritzeko ahalmenaren garapena, lidergoaren kudeaketa eta adimen emozionala.

2.3.2. IKTak eskaintzeko jardunak

Ezartzen diren helburuak betetzeko beharrezkoa da jardunak egitea identifikatutako enpresa mota desber-

dinekin erlazionatutako hiru area garrantzitsutan, ondorengo grafikoan adierazten den bezala:



- **Trebakuntza Ekintzak:**
 - **IKT Eskaintzaren Prestakuntza:** erlazionatuta daude batez ere alderdi teknikoaren prestakuntzarekin (programazio-lengoaia edo berariazko soluzio jakin batzuk) eta kudeaketa-alderdien prestakuntzarekin (teknologia-proiektuen kudeaketa, erreferentziako ereduak garapenetako kalitate-kudeaketarako, IKTetan oinarritutako zerbitzuak kudeatzeko jardun egokiei buruzko liburutegiak, eta abar).
- **Egokitzapen Ekintzak:**
 - IKTetako teknikarien eta enpresa txikien **Ziurtapena eta Homologazioa**, eskaintzan kualifikazio- eta kalitate-maila egokia bermatzeko. Azpimarratu behar da lortu nahi den ziurtapena ez dela soilik alderdi teknologikoei lotuta egongo, batez ere eta funtsean kudeaketako alderdiei lotuta baizik, bai proiektuen egikaritzan baita zerbitzuen horniduran ere, horrek bermatzen baitu epe luzera enpresa mota horren kalitate-maila eta egonkortasuna.
 - **IKT Negozioen Egokitzapena, "ALDATU":** IKT enpresen antolaketaren eta negozio-ereduaren egokitzapena, enpresa eskaeraren premietara egokitzeko.
- **Garapen Ekintzak:**
 - **IKTen I+G Proiektuak, "INNOTEK":** programa honen helburua da enpresa-lehiakortasuna hobetzera bideratutako IKT produktuen garapen-proiektuak sustatzera bideratuta laguntzak ematea. SARETEK Sarean barne hartutako teknologia-ikerketako enpresen eta erakundeen elkarreterara, fundazioetara eta enpresetara zuzenduta dago. Programa honetan barne hartutako proiektuetan barne hartuko dira jada badiren produktuak nabarmen hobetzera edo eta/edo enpresen lehiakortasuna eta/edo produktibitatea areagotuko duten prozesu berrien garapena edo hobekuntza nabarmenera bideratutako ikerketa, garapen eta berrikuntza tekno-logikoko jarduerak.
 - **IKTen I+G Proiektuak, "GAITEK":** SARETEK Sarean barne hartutako teknologia-ikerketako enpresen eta erakundeen elkarreterara, fundazioetara eta enpresetara zuzenduta dago programa hori ere, eta bertan barne hartzen diren laguntzak batez ere Produktu Berriak Garatzeko Proiektuak egitera bideratuta daude. GAITEK Programan barne hartutako proiektuek jatorrizko produktuen garapenera eta lehendik badirenen hobekuntzara argi eta garbi I+G+b jarduerak barne hartuko dituzte, merkatuaren eta gizartearen eskariei hobeki erantzutearren.

2.3.3. Ikus-entzunezkoak eskaintzeko jardunak

- **Trebakuntza Ekintzak:**
 - **Ikus-entzunezkoen Eskaintzaren Prestakuntza:** profesionalak sektore horren berezkoak diren alderdi teknikoetan eta kudeaketa-alderditan trebatzera bideratuta dago.
- **Egokitzapen Ekintzak:**
 - **Ikus-entzunezkoen Negozioen Egokitzapena, "ALDATU":** ikus-entzunezkoen enpresen antolaketaren eta negozio-ereduaren egokitzapena, eskaeraren premietara egokitzeko.
- **Garapen Ekintzak:**
 - **"GAITEK" + "INNOTEK" Ikus-entzunezko Produktuen** garapena, ikus-entzunezko sektoreko produktu eta prozesuetara destinatutako I+G proiektuak garatzeko.

2.4. Administrazioak gidatutako inpaktu handiko proiektu integralak

Proiektu horien konplexutasuna eta izaera "masiboa" direla medio Eusko Jaurlaritzaren lidergo argia behar dute, beharrezkoak diren gainerako agenteen partaidetzaz gain.

2.4.1. Inpaktu handiko proiektu integralak enpresentzat


Proiektu horiek batez ere A eta B enpresa-segmentuetara bideratuta daude:

- GECOL Proiektua:** GECOL proiektuak honako helburu hau du: enpresen aholkularitzen eta ETE eta mikroETeen arteko on-line komunikazioa erraztea, aholkularitzek enpresetan IKTak erabiltzea susta dezaten, eta enpresen gain trakzio-efektua izan dezaten, kontabilitatearen, zergen eta lanaren arloetan ematen dizkieten zerbitzuei dagokienez, dokumentazioa modu elektronikoan elkartrukatzea sustatuz.

Horretarako, bien artean konektatzea eta elektronikoki informazioa transmititzea ahalbi-detzen duten informatika-sistemak eta zerbitzuak erabiliko dira, horretarako Internet, posta elektronikoa edo beste aplikazio telematiko batzuk erabiliz.

GECOL proiektuaren helburua da, halaber, aholkularitzak trakzio-agente bihurtzea; hain zuzen ere, Internet bidezko zerbitzuen erabilera bultzatzeko gai diren agente, bezero dituzten ETE eta mikroETEEKIKO komunikazioa zuzena eta jarraitua izate aldera, betiere edozein enpresatan ohikoak diren jarduera mota guztiak aintzat hartuz (lizentzia eta baimenak kudeatzea; langileak, nominak, altak eta bajak kudeatzea; kontabilitatea eta bankuko kudeaketak; zerga-likidazioak, laguntzak eta ziurtagiriak, eta abar).

- Mikroenpresak Zerbitzua:** zerbitzu honen helburua da IKTak tamaina txikiko enpresetara hurbiltzea, arreta multikanaleko zerbitzu bat sortuz (Web, telefonikoa, presentziala, eta abar) mikroenpresetan IKT soluzio erraz, horizontal eta "plug&play" deitutakoei buruzko aholkularitza emateko, horietan prestatzeko eta martxan jartzeko zuzeneko zerbitzuak eskaintzeko.



Eskainiko diren zerbitzuetako batzuek honako hau barne hartuko dute:

- **Telefono-laguntza:** doako telefono bat da, enpresa txikiei oinarrizko kontsultak egiteko aukera ematen diena, baita telefonoz lortu ezin diren bestelako zerbitzuetarako hitzordua eskatzeko aukera eman ere.
- **Web-ataria:** IKTak bultzatzen dituen ataria, honako aukera hauek ematen dituena: enpresa txikiei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ezagutzea, kontsulta edo zerbitzu baterako hitzordua eskatzea, hurbilen dagoen laguntza-zentroa bilatzea, ohiko galderentzako soluzio errazak lortzea, mikroenpresentzako interesgarriak diren jardueri eta berritasunei buruzko informazioa lortzea, eta abar.
- **"Mikroaplikazioak" ezartzeko in-house zerbitzuak:** horien xedea da enpresa txikiei oso erabilgarriak izango zaizkien aplikazio errazak martxan jartzeko behar bezala prestatuta dagoen pertsona bat eskaintzea. Hona hemen zerbitzu edo aplikazio horietako batzuk: konektatutako PCaren antolaketa (disco gogorra, konexioak, konfigurazioa, osagarriak eta abar), lanpostuaren kudeaketa, on-line bankarekiko konexioa, sinadura elektronikorako gailua instalatzea (IZENPE txartela), lankidetzeta-lanerakotresnak, bezeroen kudeaketa edo agente-koadro errazak sortzea enpresek lehendik dituzten (eta erabiltzen ez dituzten) oinarrizko merkataritza-aplikazioen bitartez, merkataritza-dokumentuen oinarrizko formatuak, soluzioak PDA/Mugikorrarekin, publikoak eta doakoak diren Interneteko baliabideak erabiltzea web-orri errazak sortzeko, eta abar.


- **Merkataritza Elektronikoko Plataforma Zerbitzua:** proiektu honen helburua da ETEek eta MikroETEek IKTak lehendik dauden prozesuen (informazioa lortu eta hedatzea, bezeroekin eta hornitzaileekin komunikatzea, kontabilitate- eta merkataritza-kudeaketa eta abar) eraginkortasuna edo produktibitatea hobetzeko soilik erabiltzen dituzten egoera tradizionala gainditu dezatela eta kultura berri baterantz aurrera egin dezatela, IKTak bezeroekin eta hornitzaileekin erlazionatzeko kanpo-prozesuak dinamizatzeko erabiliz (merkataritza-kudeaketa, kudeaketa logistikoa, bezeroaren arreta, saldu osteko zerbitzua, eta abar).

Proiektu integratzailea da, ikuspegi bikoitzarekin: batetik, barnekoa, negozio-prozesuen multzoarekin erlazionatuta. Bestetik, kanpora begira, sektoreko edo klusterreko enprekin erlazionatuta, diseinuan eta martxan jartzean eta ondorengo kudeaketan agente desberdinen laguntza, partaidetza eta inplikazioa eskatzen duelako: enpresak, elkarteak, Administrazio Publikoa eta adituak.

Proiektu hori informatika-aplikazioen garapenean oinarritzen da (enpresek atseginez erabiltzen dituztenak eta abangoardiako funtzionalitateak barne hartzen dituztenak), baina era berean eskatzen du kontuan izatea antolaketari, marketingari eta merkaturatzeari lotutako alderdiak, baita prozesu berriak ezartzeko beharrezko prestakuntza ere.



2.4.2. Inpaktu handiko proiektu integralak eskaintzarentzat

Horien helburua da IKTen / Ikus-entzunezkoen sektore estrategiko bat garatzea, ikerketa orientatuko den etorkizuneko ildo estrategiko sorta bat definitzearen bitartez.



- ETORGAI (IKT):** programa hori ZTPren laguntza-tresna garrantzitsuenetako bat da eta enpresa handiei eta Enpresen I+G Unitateei zuzenduta dago. I+G+bko enpresa-aplikazioen aldeko apustua sendotzeko premiatik sortu da programa hau, baita partzuergoen bidezko lankidetzaren egonkorra bideratutako Euskadiko ahalmen zientifiko-teknologikoen aprobetxamendutik ere. Enpresa-lidertatik abiatuta sortutako eta lankidetzan eta Euskadiren gaitasun zientifiko-teknologikoen aprobetxamenduan oinarritutako enpresa-ekimen estrategikoen garapena bultzatzen du ETORGAI programak. Planteatutako berrikuntzaren dimentsio globalak eta I+G+b-rako inbertsioaren intentsitateak definitzen dituzte proiektuak, inbertsio hori betiere beharrezkoa baita enpresen banako helburuak lortzeko eta, bereziki, trakzio-efektua izateko Euskadiko ekonomiaren gain eta ekonomia horren nazioartekotzea bultzatzeko.
- ETORTEK (IKT):** ZTPan barne hartutako programa hau IKTetan oinarritutako produktu, prozesu eta zerbitzuen ikerketa estrategikora bideratuta dago, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean barne hartutako Ikerketa, garapen eta Berrikuntzako Erakundeei zuzenduta. Programa honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek, epe ertainera eta laburrera gainditu beharko dituzten erronkei erantzuteko, behar izango duten jakintza sortzea eta garatzea da. Horren xedea lehendik dauden enpresen balioa handitzea eta sortzen ari diren sektoreetan (hau da, etorkizuneko sektoreetan) beste jarduerak batzuk sorrarazten laguntzea izango da, zientzia-eta teknologia-esparruen integrazioaren oinarrian. Programa horren bitartez ZTPan edo Europar batasunaren politika zientifiko-teknologikoetan barne hartutako Jardun Estrategikoko Arloetan bildutako gai berrietako ikerketa estrategikoko proiektuak bultzatzen dira, baita gai horretan erreferentziazkoak diren zentro eta erakundeetan goi-mailako prestakuntzako aurreikuspenak edo nazioarteko lankidetzako osagai garrantzitsuak dituzten proiektuak ere.

- **ETORGAI (Ikus-entzunezkoak):** IKTetarako programak bezalaxe, Ikus-entzunezkoentzako ETORGAI programaren helburua da Euskadiko ikus-entzunezko enpresen lankidetzan eta horien gaitasunen aprobetxamenduan oinarritutako enpresa-ekimenak sustatzea eta garatzea. Planteatutako berrikuntzak eta I+G+b-rako inbertsioaren intentsitateak definitzen dituzte proiektuak, inbertsio hori betiere beharrezkoa baita enpresen banako helburuak lortzeko eta, bereziki, trakzio-efektua izateko lurraldeko ekonomiaren gain eta ekonomia horren nazioartekotzea bultzatzeko.





Zerbitzu
publiko
digitalak



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi


3

ZERBITZU PUBLIKO DIGITALAK

Euskadiko herritarrek eta enpresek eduki eta zerbitzu digital publiko aurreratuak edukiko dituzte eta haien egiazko premia eta itxaropenei erantzungo diete beren bizi-kalitatea handitzeko.

Administrazio digitalerako edo e-Administraziorako ibilbi-deak lau fase progresibo zeharkatzen ditu:

- Sarean eskura dagoen informazioa.
- Aldebateko elkarrekintza sistemarekin, formularioak lortzeko edo deskargatzeko.
- Aldebiko elkarrekintza: formularioak eta prozesuak betetzeko aukera.
- Operatibitate elkarrengile osoa (transakzio osoak).



Administrazio-jarduera tradizionalak "espedientea" du oinarritzat, hau da, "karpeta" fisiko bat. Hori digitalizatzeko produktibitatea handitzeko eta eraginkorragoa izateko aukera ematen du. Digitalizazioak alde aurretik eskatzen du prozesuen berrinjaritzako prozesu oso bat: kudeaketa-nukleo zentrala modernizatu behar da eraginkortasunik eza ez digitalizatzeko.

Prozesu horrek -administrazio-egintzak egiteko eta zerbitzu publikoak eskaintzeko modu berriak sortzen dituenak- lege-aldaketa eta teknologia-garapen sakonak egitea eskatzen du. Lege-estaldura eman behar zaie pertsonen nortasuna autentifikatzeko (sinadura digitala), eta pertsona guztiek lege-helbide bakarraren baliokide digitala izateko ebazpenen jakinarazpena jaso ahal izateko.

Teknologiaren ikuspuntutik hainbat gairi erantzun behar zaie, hala nola: (i), komunikazioen estaldura -unibertsal-egokia edukitzea; (ii), datuak trukatzeko protokolo egokiak edukitzea, erregistroen eta Administrazioen arteko transakzio-kostuak murrizteko; eta (iii), administratuak erabiltzen dituen programak sendoak izatea (hau da, jakintza handia behar ez izatea eta, beraz, erroretarako joera ez izatea).

e-Administrazioaren aurrerapen ordenatuak herritarrei eta enpresei balioa ematen dieten etapa edo modulu batzuk bete behar ditu. Erantsitako taulak, administrazio-modernizaziorako prozesuaren erantzule diren agentzietan erabiltzen den sailkapen bat erabiliz, zehazten ditu Administrazio elektronikoaren garapenaren osagaiak, administratuei ematen dieten balioa, eta zein ikuspegi edo leinari erantzuten dioten, oso modu intuitiboan adierazia.

Jaurlaritzak Administrazio digitala garatzeko duen estrategiak inplikatzeko duen estrategia oso bat⁸, ikuspegi korporatiboarekin eta kudeaketa-antolaketa eraginkorarekin, Ekintza Plan batekin, egutegi zehatz batekin eta hori gauzatzeko beharrezko baliabideekin, jarduteko lege-eremuaren garapena eta arkitektura bakar zentralizatu eta komun batean oinarritutako azpiegiturak garatzea eta Eusko Jaurlaritzaren Sailen eta Organismo Autonomoen eskura jartzea, honako hauetan oinarrituz:

| Sistema | Deskribapena | Lema | Balioa |
|---------------|-------------------------------|---------------------------|---------------------------|
| Informazioa | Atariak eta edukiak | Sartu dei gabe | Gardetasuna |
| Izapidetza | Zerbitzu telematikoak | Har ezazu zerorrek | Zerbitzua |
| Arreta | Harreman-kanalak | Ez zaitez etorri bihar | Zerbitzua Ekitatea |
| Berrikuntza | Intranet Jakintza Lankidetzak | Gehiago gutxiagoren truke | Intentsitatea Berrikuntza |
| Parte-hartzea | Parte hartzeko mekanismoak | Zuk ere erabakitzen duzu | Partaidetza |

- Teknologia-plataforma komun bat (Interneteko Ataria, Intranet, CRM tresna, edukiak kudeatzeko tresna, eta abar).
- Modulu komunak (Ordainketa Plataforma, Erregistro Telematikoak, Jakinarazpenak, Formulario elektronikoak, eta abar), izapideen inkorporazioa estandarizatzeko, bizkortzeko eta horren kostuak murrizteko (teknologia-plataforma komunarekin batera).
- Sailen eta Organismo Autonomoen edukiak, zerbitzuak eta izapideak Administrazio Elektronikoaren Eredura inkorporatzeko jarraitu behar diren estandar teknologikoak, arauak eta prozedurak.

Gizartearen aldetik, EIGPk lau oinarritzko printzipio ezarri zituen prozesuaren garapenerako jarraibide gisa:

1. Herritarrengana orientatzea (prozesuak berrantolatzea eta parte-hartzeari bidea ematea eskatzen du).
2. Konektatutako administrazioa (Administrazioen artean informazioa automatikoki trukatzeko prozesuak edukitzea eskatzen du).
3. Administrazio integratua (administratuen sarre-ra multikanala bermatzea eskatzen du).
4. Administrazio eraginkorra eta kalitatezkoa (berri definitutako prozesuak eta zerbitzuak eskatzen ditu, erabiltzaileentzako balio handiagoarekin).

⁸ Hori osatzen dute 2008–2010eko Administrazio eta Gobernu Elektronikoaren Plan Estrategikoak (AGEPE), 2006–2009ko Informatika eta Telekomunikazio Planak (ITP), eta Euskadi Informazio Gizartean 2010 Plan honek (EIGP).

Horrela, Administrazio Digitalaren garapen orokorrerako oinarri teknikoak, kontzeptuzkoak eta legezkoak ezarri dira, eta aldi berean garrantzi handiko hainbat zerbitzu digital garatu dira, baita atari tematiko eta sare sektorial batzuk ere.

Aurrerapen handiak egin diren arren, herritarren eta enpresen eskura oro zerbitzu aurreratu gutxi daude. Zerbitzu publikoei dagokienez, garapena desberdina da, bai helburuko bezeroei (zerbitzu gehiago enpresentzat partikularrentzat baino), bai gaiari (tributuei lotutakoak nabarmentzen dira), baita zerbitzua ematen duen Administrazioaren tamainari dagokionez ere (oro har, udal txikiek eta ertainek informazio estatistikotik haratago ez dute zerbitzurik eskaintzen).

Herritarren ikuspuntutik, Informazio Gizartea haien ongizatean eta bizi-kalitatean zuzeneko eragina duten zerbitzu digital sorta batean zehazten da. Enpresek, bestalde, kostu-murrizketa eta merkatuan beren posizio lehiakorra sendotzen laguntzen duen antolaketaberrikuntza dakarten zerbitzuak balioesten dituzte.

Jardun-ildo honen azken helburua, Euskal Administrazio Publiko guztiek zerbitzu digital sorta handi baten zabalkunde orokorra eta homogeneoa egin dezaten sustatzea da, euskal herritarren eta enpresen benetako premiei eta itxaropenei erantzuteko.

Datozen urteetan Administrazio Digitalaren ezarpena eta zerbitzu digital publikoen garapena gidatuko duen beste alderdi kritiko bat Administrazio Publiko desberdinen sistemen eta aplikazioen arteko interoperabilitatea izango da, herritarrei zerbitzuetarako sarbidea errazteko eragina, zerbitzua ematen duen Administrazioa edozein izanik ere, baita ziurtagirien erabilera murriztea ere.


Zerbitzu publiko digitalen ildoan jardunak gauzatzeko prozesua honako hau izango da:

1. Digitalizazio Plan bat lantzea, zein zerbitzu eta zein unetan digitalizatuko diren zehazki esango duena.
2. Zerbitzuen digitalizazio progresiboa, Digitalizazio Planean oinarrituz.
3. Aurrekoekin aldi berean, akordioak lortzea beste Euskal Administrazio Publiko batzuekin, plataformen eta garatutako zerbitzuen erabilera lagatzeko, baita interoperabilitateko estandarrak adosteko ere.

Azaldutako logikarekin bat eginez, ildo honetan barne hartutako proiektuak lau programatan biltzen dira:

- Barne-digitalizazioa.
- Administrazio arteko interoperabilitatea.
- Zerbitzu digitalak.
- Edukien garapena (Atariak).

Ekimen honetatik eratorritzen diren jardun-programak Jaurlaritzako Sailburuordetzak gidatutako **2008-2010eko Administrazio eta Gobernu Elektroniko** II Plan Estrategikoan definitzen eta garatzen dira.



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

4

EUSKADI SAREAN

4.1. Aurkezpena

Herrialde bat, non bertako herritarrak, enpresak eta erakundeak gai izango diren Euskararen eta euskal kulturaren presentzia aberatsari, dinamikoari eta etengabeari eusten Interneten eta baliabide digitaletan; horretaz gain, euskal kulturaren nortasuna gordetzen eta hedatzen ahalbidetu dira, baita euskal herritarrei erabateko esperientzia digitala Euskaraz ematea bermatzen ere. Herrialde ireki eta abegitsua, helmuga erakargarria milaka urteko kultura eta dauzkan turismo-baliabideak direla medio.

2002-2005 EIGP Euskadiren irudia indartu zuen eta euskal kultura hedatu zuen bere mugen barnean nahiz kanpoan, edozein pertsonak Interneten bitartez eta modu errazean Euskadi, bere balioak eta bertako jendea ezagutzeko aukera izan zezan. Horren erreferentzia, bere nortasunari eutsiz mundura proiektatzen den Euskadiren ikuspegia, eta bere balioekiko (kultura, sormena eta jakintza) zaintza indartzen duena leku erakargarri bihurtzeko Informazio Gizartean, gaur egun erabat indarrean dago.

Ekintzak bideratu dira sarean Euskadi marka indartzera, zeregin nabarmena emanik Euskadi.net atariari, eta Euskararen presentzia indartzera hala edukien nola horien erabilera errazten duten teknologia-tresnen bitartez (hizkuntza-baliabideak sarean, edukiak, ahots-teknologiak, testuen itzulpena eta trataera) eta kultur ondarea (fondo kultural, historiko eta geografikoen digitalizazioaren bitartez) eta euskal kulturaren alderdi espezifikokoak edo diferentzialak (hizkuntza, gastronomia, kirola eta abar) zabaltzea.

Atariaren bitartez Eusko Jaurlaritzak Interneten dituen zerbitzuen presentzia-eredu bakarrak hobekuntza nabarmena ekarri du Euskadik sarean duen presentziari dagokionez. Eredu horretan turismoko atari berria martxan jarri da, gure herria zabaltzeko tresna bat eskaintzen duen komunikazio-kanala izateko asmoarekin. Era berean ekimen garrantzitsuak martxan jarri dira,

adibidez liburutegi-sarea (SNBA) eta euskal erakundeekin lankidetzan, adibidez Eusko Ikaskuntzarekin, kultur eduki eta tresnak sarean sartu dira (esate baterako, Eusko Enziklopedia eta Euskomedia Fundazioa). Euskarazko on-line tresnak eta softwarea garatu dira, esate baterako Euskalterm.

Interneten erabilerak gero eta hazkunde handiagoa du, ez soilik komunikatzeko eta informatzeko bide gisa erabiltzeari dagokionez, baizik eta gero eta ohikoagoa delako sarearen bitartez produktuak eta zerbitzuak erostea.

Euskal herritarrek, batez ere gazteek, Internet eta bere zerbitzuak eta edukiak gero eta gehiago erabiltzeak, eta euskal gizartean elebitasunak izan duen aurrerakadak, Euskararen gero eta presentzia handiagoa errazten du sarean, hala erakunde-mailan nola erabiltzaile-komunitateen aldetik. Hazkundera egon arren, merkatuaren dimentsio txikiak Euskarako edukien eta zerbitzuen eskaintzaren bat-bateko hazkunderari erakargarritasuna kentzen dio.

Bestalde, euskal enpresen eta erakundeen nazioarteko presentzia berresteak eskatzen du kanpoko herritarrei eta erakundeei bideratutako euskal gizarteari buruzko informazio-edukiak indartzen jarraitzea.

Horrek eskatzen du jardun-ildo bat gauzatzea, helburu hirukoitzarekin:

- Batetik, Interneten eta bide digitaletan Euskararen eta euskal kulturaren **presentzia** aberatsa, dinamikoa eta etengabeari **eustea**, euskal kultur nortasuna babesten eta zabaltzen laguntzen duena.
- Bestetik, euskal herritarrei **esperientzia digital osoa euskaraz** bermatzea.
- Azkenik, Euskadik bisitariei eskaintzen dizkien erakarriak eta turismo baliaabideak ezagutaraztea.

Ekintza horiek hala euskal herritarrei eta erakundeei nola euskal gizartearen eta bere forma kulturalen ezaugarriak eta dinamismoa ezagutzeko interesatuta egon daitekeen munduko beste edozeini zuzenduta daude.

Garatu beharreko ekintzek inplikatzeko dituzte euskal Administrazio eskudunak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalak) nahiz Fundazio eta Elkarte eta Erakunde kulturalak, baita mezenasgoan eta babesletzan diharduten erakundeak ere.

Bestalde kontuan izaten da kulturaren izaera bizia eta dinamikoa, eta ez da legatu historikora mugatzen eta egunero lanean dihardu, herritarren, elkarten eta gizarte-komunitateen ekimenak abiapuntutzat hartuz. 2.0 webgunearen partaidetza-dinamikek gizarte-jardunak aberasten dituzten plataformak eskaintzen dituzte, instantzia desberdin askotatik gauzatuko den eraikuntza kolektibo batera irekiz.

Honako eskema honetan azaltzen da Euskadi Sarean ildoan gauzatuko den jardun-eredua:



Eredua bi bloke handitan egituratuta dago: alde batetik, burutuko den ekintza mota kontuan hartuta, eta, beste alde batetik, lehentasunez jardungo duen eremuak.



Jardun motaren arabera, Planak honako ekimen hauek barne hartzen ditu:

- Hedapena. Beharrezkoa da herritarrek, enpresek eta Administrazio Publikoek burutzen diren ekimenen existentzia eta hedadura ezagutzea, horien intentsiboki erabili ahal izateko.
- Prestakuntza. Herritarrek eta enpresetako eta Administrazio Publikoetako profesionalek beharrezko jakintzak eduki behar dituzte oinarrizko tresnak erraz erabiltzeko, esperientzia digital segurua eta eraginkorra izan dezaten. Beharrezkoa da, beraz, herritarrengan eragina duten proiektuei lotutako prestakuntza-ekintzak burutzea, herritarren trebakuntza bermatzeko.
- Dinamizazioa. Jakintzaren eta gaitasun-lorpenaren ondoren ezinbestekoa da erabilera bultzatzea, gaitasunak aktibatzea eta horien praktika areagotzea, eta berritasuna ohitura bihurtzea.

- Garapena. Teknologiak eta erabilera bilakatzen diren heinean beharrezkoa da azpiegiturak, araudia, sistemak eta tresnak eguneratzeko ekintzak gauzatzea. Administrazio Publikoen eta enpresen arteko lankidetzaren estua oso garrantzitsua da ingurune aldaketari erantzun bizkorra eta egokia emateko.

Adierazitako jardun-eremuek 2010eko EIGPk bereizitako programei izena ematen diete, hala nola:

- Euskal kulturaren eta euskal kulturaz ondarearen aldeko zerbitzuak.
- Euskaraz erabateko esperientzia digitala ahalbidetzeko zerbitzuak.
- Euskadik kalitatezko helmuga turistikoa gisa duen irudia indartzeko zerbitzuak.



4.2. Euskal kulturaren eta euskal kultura-ondarearen aldeko zerbitzuak

Epigrafe horren azpian barne hartzen diren proiektuek honako hau dakarte:

- Euskal ondare-legatuari **balioa ematea**, sareetan barne hartuz, fondoak digitalizazioaren bitartez babestuz, eta herritarrek eta erakundeek oro har, bertakoek nahiz mundu osokoek, horiekiko duten sarbidea hobetuz.
- Euskal kultur fenomenoak etengabeko **sorkuntzarako eta jarraipenerako plataformen** sorkuntza, hala informazio-zerbitzuen nola kultura bere forma desberdinetan sortzen duten komunitate aktiboak indartzearen ikuspuntutik.

Honako jarduera hauek hartzen dira kontuan:

- Lan-euskarriak identifikatzea eta sortzea.
- Hedatzea.
- Prestatzea eta trebatzea.
- Tresnak garatzea.

Ekintza horien guztien jarraibide komun bat da lankidetzasareak ezarri beharra organismoen eta erakundeen artean, alde batetik, eta kulturaren ikerketan eta sorkuntzan eta bizipenean sartuta dauden pertsonen artean, bestetik.

Ekimen honetan honako ekintza hauek biltzen dira:

1. Museo-sare bat sortzea.
2. Liburutegi-sare bat sendotzea.
3. Eusko Enziklopedia (Eusko Ikaskuntza) Interneten jartzea.
4. Euskal entziklopedia digital bat + kultur baliabide elebidunak sortzea.
5. Kultur ondarea digitalizatzea eta babestea.
6. Kulturaren Euskal Behatokia.
7. Kulturaren atari elkarreragilea: euskal kultur komunitate bat diseinatu, garatu eta egikaritzea Interneten.

4.3. Euskaraz erabateko esperientzia digitala ahalbidetzeko zerbitzuak

Herritarrek Euskaraz jarduteko duten eskubideak eskatzen du, sarea hizkuntzaren ibilgailua izateaz gain, bizitza profesionalaren nola aisialdiaren eremu guztietan erabil dadin errazteko tresnak eta bildumak garatzea.

Epigrafe horren azpian, beraz, honako jardun hauek barne hartzen dira:

- Sarearen ohiko fluxuan Euskara beste hizkuntzekin parekatzea ahalbidetzen duten hizkuntza-tresnak identifikatu eta garatzea (softwarea, bilatzaileak, eta abar).
- Edukiak eta materialak garatzea hizkuntza profesionalki erabiltzeko bizitzaren alderdi desberdinetan: erreferentzia-korpusa, itzultzaile automatikoak, teknologia-garapenak (ahots-errekonozimendua, domotikako aplikazioak eta abar).

Beraz, honako ekintza hauek barne hartzen dira:

- Teknologia-tresnak identifikatzea.
- Hedatzea.
- Prestatzea.
- Ad hoc baliabideak garatzea.

Aurreko ildoan bezala, ikusten da beharrezkoa dela lankidetzaren sareak ezartzea organismoen eta erakundeen artean, alde batetik, eta ikerketan eta teknologia-berrikuntzan sartuta dauden pertsonen artean, bestetik.

Ekimen honetan honako ekintza hauek biltzen dira:

1. Euskararen erreferentzia-korpusa.
2. Euskarako itzultzaile automatikoa.
3. Euskarako bilatzailea.
4. Ahots-teknologiak eta domotika-aplikazioak euskaraz garatzea.
5. Euskarazko on-line tresnak etengabe eguneratzea.
6. Euskarazko softwarea lokalizatzea.



4.4. Euskadik kalitatezko helmuga turistiko gisa duen irudia indartzeko zerbitzuak

Programa honen helburua sarean turismoko jomuga gisa Euskadiren presentzia sendotzea da. Kultur ondare garrantzitsua eta paisaia-aberastasuna duen herri batek, antzinako ohitura eta tradizioekin, herri irekia eta abegitsua, etengabe garatzen eta berritzen ari diren turismo-azpiegiturekin, bere turismo-eskaintza globala munduko erakusleho handiaren eremuan (Interneten) merkatuaren eskaera berriekin bat etorritz eskaintzeko gai izan behar du.


Helburu hori 2006-2009ko Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Planak ezarritakoari lotuta dago, izan ere, etorkizunerako Turismoaren apustua egiterakoan honako hau adierazten baitu: "Euskadik merkatuetan turismo-jomuga gisa duen presentzia handitzea eta hobetzea", bertan hiru jardun-ildo zehaztuz, eta horien artean Euskadik Sarean (Interneten) turismo-jomuga gisa duen presentzia handitzea aipatzen da, gaitasun

transakzionalak inkorporatuz. Eremu honetan, honako bi ekintza hauek zehazten dira:

1. Euskadiko Turismo Atari berria garatzea, edukien kalitatea hobetuz eta funtzionalitate eta zerbitzu berriak txertatuz, turistarentzat eta sektorearentzat erreferentziazko tresna indartsua izan dadin.
2. Turismo-produktu eta -zerbitzuen marketingeko eta merkaturatzeko programak bultzatzen dituzten ekimenak garatzea.



Eremu horretan ere barne hartzen da inplikaturik dauden agente desberdinen artean lankidetzaren sareak ezarri beharra: Euskadiren turismo-hedapen eta -sustapenez arduratzen diren organismoak, entitateak eta turismo-enpresak oro har.





109





Infoegiturak



2.0



5

INFOEGITURAK

5.1. Aurkezpena

Herritarrek, Enpresak eta Euskal Administrazioak edozein lekutan daudela sartuko dira Informazio Gizartearen zerbitzuetara, segurtasun-maila handia duten bide eta gailu askoren bitartez.

Infoegitura terminoak, azpiegiturekin kontraposizioan, ekipamenduaren eremua gainditzen du eta kontzeptuzko edo ereduazko gauzatzek barne hartzen ditu, aplikazioak eta sistemak barne, eta horiek guztiek zerbitzu eta eduki digitalak garatu eta ustiatzeko beharrezko plataformak eratzen dituzte.

Azken urteetan Euskadik ahalegin handia egin du azpiegiturek sortzen, eta hori lorpen handiekin islatuta geratu da, esate baterako aurreko Planean Itelazpiren (Eusko Jaurlaritzaren enpresa publikoa) bitartez egin zen banda zabalaren hedapena, lurralde osoari konektagarritasuna bermatzeko, eta zerbitzu unibertsalaren helburua betetzeko.

Arau-garapenari dagokionez ere aurrerapena oso garrantzitsua eta emankorra izan da, eta Euskadiren eremuan azpimarra daiteke honako hauen promulgazioa: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004/ Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten duen presentzia-eredua arautzeari buruzko ekainaren 8ko 108/2004 Dekretua; eta administrazio-prozeduretan bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua. Estatuaren eremuan, honako lege hauek azpimarra daitezke: 51/2003 legea, abenduaren 2koa, ezintasunak dituzten pertsonen aukera-berdintasunari, ez-diskriminatzeari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa;

11/2007 Legea, herritarren Zerbitzu Publikoetarako sarbide elektronikoari buruzkoa; eta 56/2007 legea, Informazio Gizartea bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Aldi berean garapen garrantzitsuak egin dira infoegitura digitaleko zerbitzu aurreratuei dagokienez, esate baterako, lizenpe martxan jartzea, ziurtapen-zerbitzuak eskaintzen dituen tresna bat, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek sustatu dutena gobernu elektronikoaren garapena bultzatzeko eta indartzeko, herritarrek eta enpresa-sektoreak Administrazioarekin egiten dituzten transakzioen segurtasuna, konfidentzialtasuna, autentikotasuna eta errebokaezintasuna bermatuz.

Martxan jarri den beste infoegitura aurreratu bat KZgunea zentroen sarea da; hasiera batean inklusio digitalaren eremuan jardutea zen bere lehentasuna, baina gaur egun, bere hedapena eta kapilaritatea dela medio, plataforma ezin hobea da herritarrei eta enpresei, batez ere enpresa txikienei, zuzendutako hedadura handiko jardunak gauzatzeko.

Alor horietako egungo egoera egokitzat jo daitekeen arren, inguruan nolabaiteko arriskua sor dezaketen hainbat korrante ikus daitezke. Teknologiarenekin eta Interneteko erabileren bilakaerak nahikoa indarra dute une jakin batean sare-azpiegituren eta sartzeko ekipamenduaren funtsezko aldaketa bat eskatzen duten egoera disruptiboak sortzeko.


Eszenatoki horretan, infoegiturei lotutako jardun-ildo honen helburua izango da herritarrek, enpresek eta Euskal Administrazioak edozein lekutan daudela sartuko dira Informazio Gizartearen zerbitzuetara, prezio merkeekin eta segurtasun-maila handia duten bide eta gailu askoren bitartez.

Honako eskema honetan azaltzen da Infoegituren ildoan gauzatuko den jardun-eredua.

Eredua bi bloke handitan egituratuta dago: alde batetik, burutuko den ekintza mota kontuan hartuta, eta, beste alde batetik, lehentasunez jardungo duen eremuak.

Ekintza motari dagokionez:

- **Hedapena.** Beharrezkoa da herritarrek, enpresek eta Administrazio Publikoek burutzen diren ekimenen existentzia eta hedadura ezagutzea, horien inten-tsioboki erabili ahal izateko.
- **Prestakuntza.** Herritarrek eta enpresetako eta Administrazio Publikoetako profesionalak beharrezko jakintzak eduki behar dituzte oinarrizko tresnak erraz erabiltzeko, esperientzia digital segurua eta eraginkorra izan dezaten. Beharrezkoa da, beraz, herritarrengan eragina duten proiektuei lotutako prestakuntza-ekintzak burutzea, herritarren treba-kuntza bermatzeko.



- **Zaingoa.** Teknologiak eta erabilerak asko bilakatu direnez gero, zaintzako prozesu aktibo bat eduki behar da jardunak berrorientatzeko eta horien gizarte- eta ekonomia-inpaktua handitzeko.
- **Garapena.** Teknologiak eta erabilerak bilakatzen diren heinean beharrezkoa da azpiegiturak, araudia, sistematik eta tresnak eguneratzeko ekintzak gauzatzea. Administrazio Publikoen eta enpresen arteko lankidetzak estua oso garrantzitsua da inguruneko aldaketei erantzun bizkorra eta egokia emateko.

Jardun-esparruei dagokienez, ildo honetan bildutako jardunak bideratzea ahalbidetzen dute:

- Infoegitura aurreratuak irisgarritasunaren, segurtasunaren eta konfiantza digitalaren eremuan.
- Eguneratze teknologikoa.

5.2. Infoegitura aurreratuak irisgarritasunaren, segurtasunaren eta konfiantza digitalaren eremuan

Teknologia eskaintzen dituzten potentzialtasun berriak aprobetxatu beharrik azpiegiturak, ekipamendua, aplikazioak eta sistemak migratu beharra ekarriko du. Berehala egin behar den aldaketarik garrantzitsuena Lurreko Telebista Digitala orokortzeak sortutakoa izango da. Kasu horretan, egungo teknologia analogikoaren mugaeguna dagoeneko ezarrita dago, eta teknologia horrek eskaintzen duen etekin handiena ez ateratzeko arriskua dago, batez ere elkarreragiteko aukera. Harrera-ekipamendua funtsezkoa da funtzionaltasun hori erabili ahal izateko.

Beste kasu batzuetan erabiltzaileek egiten duten teknologiararen erabilerak mugatzen du azpiegituren eta ekipamenduaren bilakaera. Horren adibide bat izan daiteke partikularren artean edukiak trukatzeko sarean erabileraren orokortzea, P2P gisa ezagutzen dena, eta horrek, Internetera konektatutako ordenagailu bakoitzean sartzen eta ateratzen diren informazio-bolumenak berdintzen dituen neurrian, banda-zabaleraren banaketa asimetrikoan oinarritutako egungo komunikazio-protokoloak zaharkituta uzten ditu.

Ilido beretik, konbergentzia digitala deitutakoak, hau da, ikus-entzunezko edukien eta IKTen arteko balizko integrazioak, banda-zabaleraren eskaera handia ekarriko du, eta eskaera horri telekomunikazioen azpiegituren etorkizuneko belaunaldiek erantzun behar dionte.

Arrisku- eta aukera-jario horren aurrean azpiegituren, ekipamenduen eta sistemen bilakaera bultzatu behar da, gizarteak IKTen abantailak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Hala eta guztiz ere, zerbitzu digital aurreratuen erabilera moteltzen duten hainbat alderdi kritiko daude. Inolako zalantzarik gabe horietatik garrantzitsuena da erabiltzaile askok erabat ulertzen ez duten eta zeinaren segurtasunari buruz albiste txarrak jasotzen dituzten bitarteko baten aurrean erakusten duten konfiantzarik eza. Segurtasunik ezaren pertzepzio hori ez dago justifikatuta, gaur egun

ikus-puntu tekniko nahiz juridiko transakzio digital erabat seguruak egitea bermatzen duten mekanismo nahikoak daudelako.

Segurtasunaren etsairik handienak, normalean, egun dauden arriskuei buruzko kontzientziarik eza eta transakzioak eta biltegitratutako informazioak babesten dituzten prozedurak eta tresnak ez ezagutzea dira. Ziurtapen eta sinadura elektronikoa bezalako tresnak, zerbitzu digital aurreratuak erabateko segurtasun-egoeran lortu eta erabiltzea ahalbidetzen dutenak, garatuta eta operatibo dauden arren oraindik ez daude erabat zabaldua gizarte osoan.

Beste alde batetik, zerbitzu digitalen sofistikazio eta konplexutasun handiagoak, horiek erabiltzerakoan segurtasuna bermatzen duten mekanismoen diseinuan eta garapenean berrikuntza-ahalegin bat egitea eskatzen du. Zirkunstantzia horien ondorioz ezin da geldik egon segurtasuna bezalako gai garrantzitsu batekin, esperientzia digital segurua bermatzen duten mekanismoak eta teknologiak bilatzera bideratutako ekintzak areagotuz.

Era berean, "Jakintza Gizartea" honako printzipio hauen gainean eraiki behar da: aukera-berdintasuna, ez-diskriminazioa eta konektagarritasunera koeta edukietarako irisgarritasun unibertsala. Ziurtatu behar da printzipio horiek kontuan hartzen direla euskal herritar guztientzat, eta era berean teknologien aurrerapenak zailtasunak dituzten hainbat kolektibotan duten potentziala ustiatu behar da. *Horien erabilera askotan adinez nagusiak eta/edo ezinduak gizartean normalizatzeari eta integratzeari eta horien bizi-kalitateari lotuta dago.*

Erronka horien guztien aurrean, edozein erabiltzailearentzat irisgarritasun, konfiantza eta segurtasun tekniko eta juridikoko esperientzia digitala bermatzen duten mekanismoen eta tresnen garapena, hedapena eta prestakuntza sustatzea du helburu programa honek, eta era berean azpiegituren, ekipamenduen eta sistemen bilakaera bultzatu behar du, herritarrek, enpresek eta Euskal Administrazio Publikoek edozein unetan Informazio

Gizarteak eskaintzen dituen zerbitzuetatik ahalik eta etekinik handiena lortzeko.

Ekimen honetan honako ekintza hauek biltzen dira:

1. KZgunea zentroen sarea mantentzea.
2. Lurreko Telebista Digitala hedatzea.

Egindako hedadura-planaren arabera, Euskadi osoko biztanleen estaldura 2010ean lortuko da, ETBri esleitutako multiple autonomikoarekiko. Horrek euskal biztanle guztiei aukera emango die TB kontzeptu berri hori gozatzeko, bere ezaugarri nagusiak kalitate hobea eta elkarreragiteko gaitasuna izanik, eta aldi berean telebista-eskaintza handiagoa ahalbidetzen du.

3. Gizarte osoarentzat banda zabalerako sarbide unibertsala mantentzea.

4. Irrati-sare mugikor bat edukitzea Euskadi osoarentzat.

TETRA estandarraren azpian, euskal administrazio publikoen zerbitzura egongo den irradi-sare digital pribatu bat izango da, lurralde-estaldura gorenarekin. Horrek aukera emango du prestazio gutxi dituzten sare analogiko guztiak belaunaldi berriko sare bakar batekin ordeztzeko, eta sare horrek aplikazio asko edukiko ditu agente publiko desberdinetan.

5. Faktura elektronikoa bultzatzea.
6. Txartel Elektroniko Sanitarioa herritar-erabilerekin.
7. IKTetarako Irisgarritasunari buruzko Euskal Behatokia.
8. Konfiantza digitala (Plataformak eta kanpainak).
9. Sinadura elektronikoa.

5.3. Eguneratze teknologikoa

Euskadi Informazio Gizartean 2002-2005 Planean, teknologiari buruzko atalean, honako hau adierazten zen: "IKTak ez dira elementu estatiko bat, izan ere, eremu horretan aurrerapen zientifiko-teknologikoak oso bizkor gertatzen baitira. Jakintza berriaren sorkuntza eta beste inguru batzuetan garatutakoaren kudeaketa gero eta funtsezkoagoak dira testuinguru honetan", eta era berean adierazten zen Plan horren eta 2001-2004ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren estrategien artean helburu hori bermatzeko zegoen lotura handia.

2001-2004ko ZTPak zenbait tresna ezartzen zituen berrikuntza-gaitasuna handitzeko eta Berrikuntzako Euskal Sistemako agenteei Europako eta munduko ingurunean bermeekin teknologikoki posizionatzeko aukera ematen dieten tresna programatiko eta finantzarioak zuzkitzeko. Horrela, 2002-2005eko Euskadi Informazio Gizartean Planari beharrezko euskarri teknologikoa ematen zitzaion.

Zehazkiago, teknologiari buruzko atalean, bere hirugarren funtsezko jardun-arloan, ikerketa estrategikoko arloan, 2001-2004ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren tresna batzuk barne hartzen zituen, zeinak modu naturalean Planaren eremura inkorporatzen ziren.

Berriz ere, Planari beharrezko euskarri eta eguneratze teknologikoa emateko, beharrezkoa da indarrean dagoen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin lotzea, kasu honetan 2010eko ZTP.

Dokumentu honetan, lehen zatian eta hirugarren kapituluaren, Eusko Jaurlaritzak Informazio Gizartean sustapenarekin erlazionatuta prestatutako ekimenak aipatzerakoan, bi planetan konpartitutako planteamenduak eta apustu estrategikoak aipatzen ziren.

Ikuspegiaren lotura hori teknologia-eguneratzeko programa honetan gauzatzen da, eta teknologien eta eremu zientifikoaren garapena du helburu programak, Euskadiri Estatu osoan eta nazioartean informazio-gizartearen zerbitzu aurreratuetako erreferentzia gisa finkatzea ahalbidetuko diotenak. Horretarako Komunikazioak eta Informazioa eta Edukiak identifikatzen dira epe ertain eta luzerako alderdi garrantzitsu gisa.

Eremu zientifiko-teknologikoetan, haririk gabeko sareen monitorizazioa eta kontrola fokalizatzen du, haririk gabeko komunikazioen teknologiak. Zerbitzu digitaletarako nonahiko sarrera uzteko aukera izango da, ziur aski, telekomunikazioen azpiegituren alorrean gertatzen den hurrengo aldaketa handia. Telefono-terminal mugikorrek finkoak linea kopuruan zein bizkor gainditu dituzten ikusita, argi dago hari gabeko teknologiek indar berritzaile handia dutela.

Errealitate birtuala, handiagotua eta mistoa, lengoaiaren teknologiak, edukiak tratatzeko teknologiak, teknologia biometrikoak eta enpresa-aplikazioak, beste askoren artean, industria-hazkundera eta bizi-kalitatearen hobekuntza ekarriko duten aurrerapen gisa agertzen dira.

Hainbat testuingurutan, adibidez Ingurumen Adimenaren testuinguruan, enpresa-aplikazio batzuk identifikatu dira, eta horien izaera estrategikoa eta etorkizuna kontuan izanik, EA Erako "apustutzat" har daitezke. Etorkizuneko erronka horiei erantzunez, ekimen horretan barne hartutako ekintzak EIGPren aplikazio-eremuan I+G+b proiektuen garapena dira.



Erakunde Agenda Digitalak



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

6

ERAKUNDE-AGENDA DIGITALAK

6.1. Aurkezpena

Gero eta konektatuagoa dagoen mundu batean, elkarreragiten duten pertsona eta erakundeen inguruan egindako sare globaletan barne hartutako osagai dinamiko gisa portatzen dira lurralde-guneak. Gainera, eta neurri handi batean gizarte- eta kultura-errealitate desberdinen gero eta elkarreragin handiagotik eratortzen diren eragin askok bultzatuta, lurraldeak erlazio-nodoen inguruan artikulatzen dira, eta horiek zalantzan jartzen dituzte "barnean" eta "kanpoan" kontzeptuak eta tokiko arazoak alderdi askotatik eta eragile desberdinen ekarpenarekin aztertu behar diren arazo konplexu bihurtzen dituzte.

Testuinguru horretan, tokiko agintarien zeregina funtsezkoa herritarren berriazko premiei erantzuteko eta batez ere gizarte-sarearen erlazio-gaitasunak sustatzeko eta horiei laguntzeko eta tokiko eragile desberdinen artean lotura estuen ezarpena sustatzeko, ikuspegi desberdinak lortzeko eta proiektu komunak gauzatzeko.

2005ean Bilbon ospatu zen Informazioaren Gizarteari buruzko Hirien eta Toki Agintarien Munduko II. Goi-bileran zeuden Hiriek, Eskualdeek eta Toki Agintarien Elkarrekin eta Sareek Deklarazio Politiko bat onartu zuten, eta bertan adierazten ziren pertsona guztientzako Informazio Gizarte baten erabateko garapenaren alde lan egiteko hartutako konpromisoak.

Deklarazio horrek Bilboko Dekalogoan barne hartzen du, hau da, Toki Agintariak garapen digitalaren alorrean konpartitzen dituzten printzipio eta balio batzuk, eta Aurreneko Ekintza Plan bat dauka, zeinaren lehen jardun-ildoak zen Tokiko Agenda Digitalak garatzea

Informazio Gizartea garatzeko estrategia komun bat bezala, herritarren premia eta itzaropenei erantzuten dien eta haiekin konpartitzen den proiektu bat bezala, hiri edo eskualde bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak, kulturalak eta instituzionalak kontuan izango dituen eta garapen iraunkorra lortzera bideratutako politikak eta ekintzak indartzen lagunduko duena (hazkunde ekonomikoa, kultura eta nortasuna, gizarte-kohesioa eta ingurumena) eta hirietako eta eskualdeetako biztanleen (batez ere talde kaltetuenen) garapenaren alde egingo duena.

Definizio horretan barne hartuta daude 2010eko EIGPra inkorporatzen den Tokiko Agenda Digitala ekimenaren funtsak:

- Tokiko Agenda Digitala **tokiko garapen iraunkorraren eta herritarren (bereiziki kolektibo kaltetuenen) garapenaren zerbitzura dagoen tresna bat da**. Pertsonen jakintza eta sormena garapenaren funtsezko alderdiak diren mundu batean, ezinbestekoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologia pertsonen premien eta itzaropenen zerbitzura jartzea. Gainera, teknologia horien erabilera adimentsua bultzatu behar da, tokiko gunea osatzen duten eragileek "hurbileko" eta "urruneko" kolektiboak ematen dieten balioa handitzeko bitarteko gisa.
- Tokiko Agenda Digitala ezartzen da **tokiko testuingurutik abiatuz eta bere premien, aukeren eta proiektuen arabera**. Ez dago Informazio Gizarte bakar bat, izan ere, hori eraiki behar da gizartea zer den eta zer izan nahi duen kontuan hartuz.

- Ez da Tokiko Administrazio Digitaleko Plan bat soilik; gainera, **bere helburua da Informazio Gizartea osatzen duten esfera guztiak integratzea**, soluzioak eta zerbitzuak landuz honako alor hauetan: irisgarritasuna eta inklusioa, kultura eta nortasuna, gobernu, demokrazia, osasuna, hezkuntza eta prestakuntza, enpresa-garapena, azpiegiturak eta segurtasuna.
- **Toki Administrazioa elkarren arteko erlazioen nodo batean** kokatzen du, agente publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak-akordio zabalekin. Gainera, gero eta konplexuagoa eta pluralagoa den gizarte batean beharrezkoa da **gizarte-gaiak aztertzea horietan inplikaturik dauden aktoreen inplikazioa eta partaidetzaren bitartez**. Ikuspegi hori bat dator demokraziaren printzipioekin eta balioekin, eta Administrazioen aldetik gobernu-modu irekia eta elkarrizketarako prest dagoena aplikatzea eskatzen du, herritarrek agenda politikoak eratzeko garaian parte har dezaten bultzatzen duena, eta erakunde pribatuek gizarte-erantzukizunaren praktiketan sakondu dezaten eskatzen duena.

Ikuspegi horretatik abiatuz, 2010eko EIGPren Erakunde Agenda Digitala ekimenak hiru **jardun-programa** ditu:

1. **Tokiko Agenda Digitalak bultzatzea**, horien helburua izanik euskal udalerrietan Agenda horien formulazioa eta implementazioa bultzatzea eta laguntzea.

2. **Nazioarteko lidergoa munduan Tokiko Agenda Digitalaren sustapenean**, nazioarteko erakundeek eta tokiko agintarien sareek Tokiko Agenda Digitalak sustatzeko eta munduko Tokiko Agintarien artean ikuspegiak, jakintzen eta esperientzien trukea errazteko martxan jartzen dituzten plataforma eta ekimenetan aktiboki parte hartuz.

Tokiko Agenda Digitalen implementazioan aurrerapenak lortzen diren neurrian, norberaren adibidetik eta esperientziatik Euskal Administrazioek gai honetan bete nahi duten nazioarteko lidergo-posizioa indartzen lagunduko da.

3. **e-Demokraziaren garapenean aurrera egitea**, partaidetza eta baterako erantzukizuna nortasun-adierazgarriak izanik herritarren jakintzari balioa emateko berrikuntzarako eta politika publikoak eraginkorrak izateko.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak 2010eko EIGPri egindako ekarpenak biltzen dira; ekarpen horiek egin dituzte gogoeta eginez teknologia berrien aplikazioak erakunde-irekiera eta erakunde parte-hartzaileen erabaki-prozesuen eraginkortasuna nola hobetu dezakeen eta gune publiko baten eraikuntzaren eremuan eta politika egiteko modu batean herritarren parte-hartzea nola bultzatu daitekeen kontuan izanik.

6.2. Tokiko Agenda Digitalak bultzatzea

Euskadiren gizarte, hezkuntza, teknologia, ekonomia eta kultura arloko garapena bultzatzeko helburuarekin, Tokiko Agenda Digitalak bultzatzeko programak honako helburu hauek ezartzen ditu:

1. Euskadin Informazio Gizartea eraikitzeke prozesura udalen gaitasunak, aukerak, proposamenak eta ekimenak inkorporatzea.

Horretarako komenigarria da udalerrien gaitasun endogenoak indartzea, lan-ereduak eta -metodoak, trebakuntza, baliabideak eta teknologia eskainiz, eta parte-hartze pluraleko guneak indartzea, tokiko aktore desberdinen artean konpartitutako proiektuak eratzeko bide gisa.

2. Infoegituren inplementazioarekin erlazionatutako eskala-abantailak aprobetxatzea eta euskal Administrazioek Informazio Gizartea bultzatzeko politiken barnean martxan jarritako ekimenen kapilaritatea bultzatzea.
3. Lurralde-orekaren eta -kohesioaren alde jardutea, udalerrien lankidetzadynamikak indartuz, pertsonen eta toki-garapenaren zerbitzura dagoen Informazio Gizarte bat eraikitzeke asmoarekin.

Helburua da udalerririk bakar bat ere ez dadila geratu prozesu honetatik kanpo, eta horretarako, ekimen bereziak elkarrekin garatzeko eta esperientzien, zerbitzuen eta soluzioen truke eta diseminaziorako beharrezko lankidetzaguneak bultzatuko dira.

4. Norberaren adibidea eta esperientzia aintzat hartuz, Euskadik mundu osoan Tokiko Agenda Digitalaren sustapenean bete nahi duen nazioarteko lidergoari babesa ematea.

Euskal udalerrietan Tokiko Agenda Digitalen diseinua eta inplementazioa bultzatzeko, lau bektoretan oinarritutako estrategia bat ezartzen da:

1. **Gizarte-ekintzarako eta -partaidetzarako orientazioa bultzatzea.** Agenda Digitalak sortzen dira informazioaren eta komunikazioen teknologien aprobetxamenduaren inguruan egindako partaidetzazko gogoeta estrategiko bat bezala. Agenda Digitala diseinatzeko eta inplementatzeko beharrezkoa izango da:

- Udalerriek Informazio Gizartearen eraikuntzaren alorrean dituzten gaitasun endogenoak indartzea.
- Horri lotuta gizartearen partaidetzarako tresnak eta guneak gauzatzea.
- Jardunaren xede den errealitatea ezagutzea, baina batez ere **ekintzari lehentasuna ematea**. Ildo horretan, aurrediagnostikoak egiteak (diagnostiko zehatzek askotan planen diseinua gehiegi atzeratzen dute), eta inbertitu beharreko ahaleginak bideratzeko garaian hautespen-irizpideak hartzeak (proiektu estrategikoak eta trakzio-proiektuak) Tokiko Agenda Digitalaren ekintzarako lortu nahi den orientabidea erraztu dezakete.
- Gidak, metodoak eta sistemak inkorporatzea Agendak diseinatzeko eta gestionatzeko eta aurrerapena ebaluatzeke.

2. **Lehendik eraikita dagoenaren gainean aurrera egitea.** Azken urteetan euskal Administrazio desberdinek ekimen asko gauzatu dituzte Informazio Gizarte eraikitzeke; horien emaitza gisa gaur egun plataforma, tresna eta infoegitura desberdinak daude, eta horiek kontuan izan behar dira Tokiko Agenda Digitalak bideratzeko garaian.

Horretarako, Tokiko Agenda Digitala honako hauetan oinarrituko da, besteak beste:

- Euskal Administrazio desberdinek inplementatutako Informazio Gizartea bultzatzeko estrategien esparruan inplementatutako infoegiturak.
- Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak bultzatutako Administrazio eta Gobernu Elektronikoko Plan Estrategikoak garatutako edo garatu beharreko baliabideak.
- Foru Aldundiek inplementatutako Toki Administrazioari laguntzeko programak.
- Besteak beste EUDELek eta Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailak bultzatutako INFOUDALA ekimena, euskal landa-inguruko udalerrien kudeaketari laguntzeko.

Bestalde, 21 Tokiko Agendak Euskadin izan duen aurrerapen garrantzitsua (180 udalerrik osatzen dute Udalsarea21, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea) aukera paregabea da Tokiko Agenda Digitalak bultzatzeko.

Ildo horretan, antzekotasun handiak daude bi agenda horien artean, helburuak konpartitzen dituztelako (garapen iraunkorra), Mundu-mailako Goi-bileren ondorioz sortzen direlako eta *ikuspegi globalarekin toki-mailan jarduteko* estrategia berean oinarritzen direlako.

- 3. Aurrerapena gradualki artikulatzea lankidetzaurrerapena bultzatuz.** Estrategiaren laugarren sektoreak, 21 Tokiko Agendak bezala, erreferentzia gisa hartzen du AIDA/AIGA (Arreta, Interesa, garapena, Aplikazioa) gizarte-marketingaren ikuspegia, aurrerapena etapatan planteatuz: Ekimenaren eta IKTek toki-garapenerako eskaintzen dituzten aukeren berri ematea, Tokiko Agenda Digitalaren diseinua babestea udalerrri edo udalerrri-mankomunitate bakoitzean, eta Agenda Digitalen ezarpena babestea eta euskal udalerrri desberdinen artean lankidetzaurrerapena bultzatzea.

Tokiko Agenda Digitala ekimena progresiboki jarri da martxan; helburua da fase bakoitzean udalak atxikitzen joatea eta proiektu pilotuak martxan jartzearen bitartez laguntza-zerbitzuen katalogoa garatzen eta osatzen joatea.

- 4. Euskal Administrazioaren maila desberdinen arteko erakunde-koordinazioa** (Tokiko Agenda Digitala duten udalerrriak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza), laguntza-zerbitzuak errazteko eta Informazio Gizartearen eraikuntzan aurrerapen orekatua eta koordinatua sustatzeko.

6.3. Nazioarteko lidertza Tokiko Agenda Digitalaren sustapenean

Euskal Administrazioak zeregin garrantzitsua betetzen ari dira mundu-mailan Tokiko Agenda Digitalak bultzatzen, eta hiru gertakari garrantzitsu azpimarra daitezke:

1. 2005ean Informazioaren Gizarteari buruzko Hirien eta Tokiko Agintarien Munduko II. Goi-bileraren antolaketa Bilbon.



2. Bilbo 2006ko urriaz geroztik HTGB (Hirien eta Tokiko Gobernuen Batasuna) Informazio Gizartearen Batzordearen lehendakaritzan dago, erakunde hori tokiko agintarien mundu-mailako erakunderik garrantzitsuen da, hiriak, udalerrak eta udalerrien elkarte nazionalak barne hartzen ditu, eta Nazio Batuen onarpena dute solaskide ofizial gisa jarduteko.



3. Eusko Jaurlaritza, UNITARrekin lankidetzan (Prestakuntzarako eta Ikerketarako Nazio Batuen Institutua) garatzen ari da, CIFAL Bilbaoren bitartez, Tokiko Agenda Digitalak sustatzeko programa bat. Gainera, IT4ALLren erakunde sustatzaileetako bat da CIFAL Bilbao; IT4ALL Tokiko Agintarien sare bat da, munduan 1.677 milioi pertsona baino gehiago barne hartzen dituena.



Jardun-ildo horrekin orain arte egindako lanari jarraipena eman nahi zaio eta euskal administrazioak munduan Tokiko Agenda Digitalak sustatzeko funtsezkoak izan daitezkeen nazioarteko guneta eta plataformetan parte har dezaten bultzatu nahi da. Tokiko Agenda Digitalak sustatzera orientatutako ekintza-planak zabaltzeko bidezkoztat jotzen diren nazioarteko lankidetzarako aliantzak eta harremanak bultzatu nahi dira.

6.4. e-Demokrazia

Eusko Legebiltzarrak atal honetan bere planteamendua aurkezten dio 2010eko EIGPri: Euskadiko Agenda Digitala. Euskal erakunde legegileak proposatzen du, planaren barruan, gogoeta egitea teknologia berrien aplikazioak erakunde-irekiera eta erakunde parte-hartzaileen erabaki-prozesuen eraginkortasuna nola hobetu dezakeen eta Planean produkzio-eremuari aplikatzen zaion herritartasun aktiboaren kontzeptua teknologiek errazten dituzten elkarreragiteko aukeren berezkoak diren gune publiko baten eraikuntzaren eta politika egiteko modu baten eraikuntzan nola islatu daitekeen.

Gogoeta horren gakoak dira ordezkartza-erakundeetan egiteko eta antolatzeke moduen eraldakuntza sakon bat defenditzea, herritarrei barne hartzen dituzten prozesuei buruzko informazioa denbora errealean eskaintzeko eta prozesu horietan parte har dezaten errazteko. Abiapuntua da gai publikoetan ere funtsezkoa dela pertsonak eta kolektiboak dituzten jakintza eta ideiak kudeatzea eta operatibobihurtzea. Horiekerakunde-lanean barne hartzeak ordezkartza-erakundeen erabakien eraginkortasuna ere handitzen dute, horien legitimitatea indartzen dute, eta jarduera-eremu guztietan lehiakortasun-abantaila den berrikuntzaren aldeko apustua egiten duen herrialde baten nortasun-ikurra izan behar du.

Eusko Legebiltzarrak azken urteetan Europako Eskualdeetako Batzar Legegilearen Konferentziaren (EEBLK) demokrazia elektronikoaren lan-taldearen koordinatzaile gisa dihardu eta EIGPra aktore gisa inkorporatzen da teknologia berrien erabilera trinkoarekin katalizatu nahi duen erakunde- eta gizarte-gogoeta bultzatzen saiatzeko. Prozesu hori erabat egokitzen da Tokiko Agenda Digitalek demokrazia elektronikoari gordetzen dioten jakintzaren arloan.

Eusko Legebiltzarrak plan honekin lortu nahi duen **helburua**, beraz, teknologia berrien erabilera bultzatzea da, honako hauek lortzeko:

- Herritarren eta erakundeen arteko zuzeneko komunikazioko mekanismoak indartzea, erabakitze-prozesuetarako eta bertan erabiltzen den informaziorako sarbide unibertsala erraztuz, denbora errealean gainera.
- Teknologia berriek eskaintzen dituzten erraztasunek bideratzen dituzten partaidetza-mekanismo berriak esperimentatzea eta sendotzea.
- Printzipio honetan oinarritzen diren zerbitzuen sorkuntza bultzatzea, off line munduan ildo berean hartzen diren neurrien osagarri eta lagungarri baitira.
- Gogoeta hori eta herritarren arteko informazio, partaidetza eta erantzukidetasunerako aukerak hedatzeko neurriak bultzatzea.

Eusko Legebiltzarrak 2003az geroztik EEBLKren demokrazia elektronikoaren lan-taldearen buru dihardu. lan-talde horrek eredu teoriko bat garatu du erakunde-irekiera errazteko teknologia berrien erabilerearen bitartez. Eredu osoa oinarritzen den kontzeptua, hau da, **irekiera**, zenbait gauzaren batura da: gardentasuna, informazioa eskuragarri denbora errealean interesatu guztientzat, eta egun dauden partaidetza-mekanismoak indartzen dituzten edo herritarren eta erakundeen artean solaskidetzarako bide berriak gaitzen dituzten tresnak.

Eredu horren arabera Eusko Legebiltzarrak, bere gobernu-organoen (mahaia) eta Bozeramaileen Batzordearen aho-batasunarekin, bere zeregina eta ikuspegia berriro alineatzeko eta herritarrentzako printzipio horietan oinarrituta dauden zerbitzu berriak sortzeko prozesu bat martxan jarri du, eta aurrerago azalduko den zereginaren azken mailak inplementatzen ditu.

Irekiera sustatzeko erakundeen arteko estrategia hori garatuko da beste maila batzuekin lankidetzan jardunez gogoetarako tailer birtualak eta presentzialak erabiliz; tailer horien zeregin nagusia izango da Tokiko Agenda Digitala (TAD) lankidetzatresnan gauzatutako eredu hobetzea eta eremu horretan jardunbide egokiak sustatzea.

Erakunde-irekierari buruzko gogoeta estimulatzen eta erakundeetan erabaki-prozesuei buruzko beste lankidetzakultura bat katalizatzen, Eusko Legebiltzarrak **bost printzipiotan oinarritzen den kudeaketa-eredu** baten aldeko apustua egiten du:

1. **Irekiera:** Ordezkaritza-erakundeak gardentasunez jardutera eta beren erabaki-prozesuetan partaidetza erraztera behartuta daude. Tokiko eta Eskualdeko Agintariek diseinatzen eta gauzatzen dituzten politiken eraginkortasuna indartuko dute ordezkatzen dituzten borondateen eskura kudeaketa-sistema garden bat jartzen badute, herritarrek bizitza politikoan arduraz parte har dezaten.
2. **Konpromisoa:** Kontzeptu horiek ez dira lortu beharreko helburuak soilik, izan ere, era berean gure ordezkaritza-erakundeen diseinu estrategikoa eta kultura korporatiboa oinarritzat izango dituen funtsa izango baitira. Irekieraren aldeko apustuak aurrekontu-konpromisoak eta balio horiei lotutako antolaketa-neurriak barne hartu behar dituzte.
3. **Proaktibitatea:** Teknologia berriek ahalbidetzen dituzten informazioa eta partaidetza-mekanismoak erabilzaileen neurria eraiki behar dira. Ezinbestekoa da informazioa lortzeko prozesua sinplifikatzea, eta ahal den neurrian zerbitzu proaktiboak ezartzea. Tokiko eta eskualdeko erakundeek jatorrizko informazioa, osatua eta denbora errealean eskaini behar dute, herritarrek eta horiek biltzen dituzten elkarteek definitzen duten eskariaren arabera ordenatuta.
4. **Multikanalitatea:** IKT berriak oso tresna baliagarriak dira printzipio horien aplikazioa errazteko. "Hesi digitalak" behartzen gaitu azpiegiturak ezartzera, hesia murrizten duten prestakuntza politikak sustatzera eta eremu horretan herrialde kaltetuenekin ere lankidetzak ahalbidetzen duten finantza-neurriak gauzatzera. Baina, gainera, Internetek eskaintzen dituen aukerak eta telefonoa, irratia edo telebista bezalako beste batzuk zentzuz konbinatzeko aukera bultzatu behar da.
5. **Prestakuntza balore zibikoetan:** Erabaki prozesuetan parte hartzeko benetako aukerak eskaintzea teknologia hutsa baino askoz gehiago da. Erakundeek truke hori errazteko ahalegina egin behar dute lengoaiak eta prozedurak sinplifikatuz, ekarpen zibikoetatik eratortzen diren emaitzak ahalik eta gehien bisibilizatuz, eta batez ere gazteak erantzukizunaren eta partaidetzaren kulturaren prestaturik.

Eredua, zereginaren eta ikuspegiaren aldetik, ondorengo grafikoak laburbilduta dago:



Prozesu horren azken helburua honako hau izango da: askotariko diziplinei buruzko jakintza biltzea, hobetzeko aukera bihurtzea eta herrialdeari dagokionez, erakundeen eta herritarren arteko harremanari dagokionez, bi norabideko prozesuak antolatzea eta erantzukidetasunari laguntzea, baita politika publikoak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen laguntzeko ere.

Printzipio horiek aplikatzeko interesatuta dauden erakundeek eredu horretan teknologia berriak aplikatzeko **kudeaketa-gida** bat aurkitzen dute eskaintzen duten informazioa gehitzeko (gardentasuna), erabaki-prozesu osoan zehar benetako partaidetza-bideak errazteko eta informazioa aztertzen diren gaiekiko interesa duten edo horiekin lotuta dauden pertsonengandik edo kolektiboetatik erator dadila ahalbidetzeko. Horretarako bilakaera-eredu bat diseinatu da, eta honako maila hauek ditu:

- **Lehen maila:** erabaki-prozesuei buruzko informazio guztia eskuragarri jartzea denbora errealean.
- **Bigarren maila:** informazio hori pixkanaka jakintza bihurtzea gaikako eta/edo lurraldekako segmentazio-tekniken aplikazioaren bitartez.
- **Hirugarren maila:** zerbitzuak kartara edo neurri diseinatzea eta eskaintzea, herritarrak ez daitezen bilatzen ibili. Informazioa jaso nahi duen jardueraremuak hautatzeko eta informazioa aldizka jasotzeko aukera ematen duten tresnak prestatu behar dira.
- **Laugarren maila:** aurreko alderdien baturak aukera ematen du sistema partaidetza kualifikatu batera irekitzeko. Informazioa jasotzeko gaiak aukeratzeko dituztenak, horiekiko interesa dutenak eta gaiari buruzko jakintza dutenak, balio erantsi handiagoko ekarpenak sortzen dituzten erabiltzaile kualifikatuak dira. Horregatik ereduak interesatuta dagoen edozein pertsonarentzat partaidetza irekitzen badu ere, partaidetza kualifikatua bultzatzen du.
- **Bosgarren maila:** erakundeetan jasotzen den partaidetza argitaratu egiten da, baita ordezkari publikoek partaidetza horri ematen dizkieten erantzunak ere. Gainera erabiltzaileek ekarpenak egiten dituztenean beren nortasuna ziurtatzen dute, sistemari bermeak gaineratzeko eta ekarpen balio publikoa handitzeko.

- **Seigarren maila:** ereduak orientabide hauek ematen ditu informazioko eta partaidetzako zerbitzu digitalak sortzeko, baina era berean ikerketa proposatzen du hesi digitala murrizteko. Eredu hori aplikatzen duten erakundeek beren teknologia-garapena amaitzen dute zerbitzu digital horiek informaziorako eta partaidetzarako aukera horiek zabaltzeko politiken babes gisa erabiliz Internet baino irekiagoak diren euskarritan.
- **Testuinguru orokorra:** printzipio horien guztien aplikazioa erantzukidetasuna eta kudeaketakidetasuna bezalako balioak sustatzeko testuinguru batean garatzen da, gizarte-kontzientziarioko programen martxan jartzeak bultzatuta.

Printzipio horien guztien aplikazioak aukera ematen du antolaketa ikuspegia gauzatzeko: ordezkari-erakundeak benetako "kristalezko kubo" eskuragarri eta garden bihurtuz, ordezkari publikoen eta herritarren elkarreraginera irekiak.

Eusko Legebiltzarrak, beraz, Europako eskualdeen biltzar legegileentzat EEBLKren barnean garatzen aritu den lanildoari jarraituz, proposatzen du gogoeta-prozesu bera bultzatzea, autonomia erkidegoaren erakunde-eremuan orokortzea eta off line praktiken, zerbitzu digitalen eta printzipio horiek errealitate bihurtu nahi dituzten hedapen-kanpainen agerpena katalizatzea.



Ezarpena,
jarraipena eta
ebaluazioa

2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi



EZARPENA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

7.1. Bigarren belaunaldiko plan bat

"Bigarren belaunaldikoak" deitutako plan estrategikoak, proiektuen eta beren bultzadaren zentralitatea gaindituz plangintza-prozesuaren antolaketaren elementuak strategiaren helburu bat bezala gaineratzen dituzten planak dira. Plan horien helburua giza garapena eta eraikuntza kolektiboa da, eta balio eskusiboki ukigarrietako emaitzak lortzen dituztenetan lankidetzaren sareak sortzeak eta nahitaez demokratikoa den lidergoak sortzen dituzten etekin ukigarriak inkorporatzen dira.

2010eko EIGPren ereduaren orientazio horrekin bat dator, eta gainera esplizituki, helburu horiekin bat datorren kudeaketa-eredu bat inkorporatzen duen ekimen bat sortuz.

2010eko EIGPan bertan, lantze-prozesuan, agenteen partaidetza zabala bilatu da. Erakundeetako, ekonomiako eta gizarteko agente desberdinen partaidetza eraginkorra ahalbidetzeko, bere lantze-faseaz haraindi, 2010 EIGPa trakzio-proiektuen oinarriko multzo baten inguruan gauzatuko da, eta proiektu bakoitzak gaian inplikaturik dauden agenteen lankidetzaren eskatuko du, era horretan lidergoa konpartituz eta proiektuen garapenak eskatzen ituen zereginetan lagunduz.

Traktore deitzen zaie sinergiak sortzeko gai direlako eta jaurlaritzako sail bat baino gehiago, beste erakunde batzuk eta baita agente pribatuak ere barne hartzen dituelako, Planaren helburuak lortzeko oso garrantzitsuak direlako, eta giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak mobilizatzeko garaian oso baliagarriak direlako.

2010eko EIGPren kudeaketa-eredua definitzeko garaian kontuan izan behar den beste alderdi bat beste ekimen batzuekiko elkarreragina da, zeinak erreferentzia-esparruen atalean xehatuta dauden. Hala eta guztiz ere, horrek sortzen du Sailen eta Programen artean koordinatu beharra, beren helburuen eta potentzialitateen dinamiketan batez ere.

Planak 2008tik 2010era bitarteko jardunaldia du aurreikusitako proiektuak ezartzeko eta garatzeko.

2010eko EIGPri bitarteko eta amaierako ebaluazioa egingo zaio hala bere kudeaketari nola lortzen dituen emaitzei dagokienez. Helburu global gisa kuantifikatutako 12 adierazleko multzoaren lorpen *graduala* balioetsiko dute ebaluazio horiek, baita aurrekontu-baliabideen erabilera egokia balioetsi ere. Adierazle horiek, programen edo proiektuen arabera helburuak dituzten adierazle-multzo batekin batera, baita aurreikusitako finantza-eszenatokiak ere, 2010eko EIGPren kudeaketa-ereduaren aginte estrategiko integratuaren koadroa osatuko dute, eta bi denbora-une horietan horri buruzko azterketa edo balioespina egingo da.

Planaren aginte-koadroaren adierazle-multzoa goitik beheranzko mailen eskema baten arabera eraikiko da, adierazle globaletatik adierazleak ekimenaren, programaren eta proiektuaren arabera finkatuz. Eskema hori plana ebaluatzeko tresna izateaz gain, Euskadin Informazio Gizartean bilakaera aztertzeko tresna bat izango da.

IKTei lotutako dinamismoa eta bilakaera kontuan izanik, Planaren kudeaketa-ereduak Euskadin eta Europar Batasunaren testuinguruan sortzen diren aurrerapenak eta ikuspegi berriak identifikatzeko gai izan beharko du eta zaintza-funtzio bat antolatu beharko du. Funtzio hori ahalbidetzeko tresnak honako hauek izango dira:

1. Aipatu diren gainerako planekin koordinatuta lan egiteko eta horiekin konektatzeko puntuak, Informazio Gizartearekin zuzenean erlazionatuta daudenak.
2. Planean definitutako proiektuen bilakaera eta egikaritzea bera.
3. Planaren egikaritze-esparruan aldizka kontsul-tatuak izango diren adituen ekarpena.
4. Informazio garrantzitsua kudeatzeko euskarri bat sortzea (txostenen jakintza eta jarraipena, estatistikak, programa publikoak, Europako proiektu garrantzitsuak edo jardunbide egokiak). Informazio hori Planaren kudeaketa-testuinguruan kudeatu eta, behar izanez gero, hedatu behar da.



7.2. . 2010eko EIGPren kudeaketa-egitura

Euskadi Informazio Gizartearen Planaren lankidetzaplanteamendua kontuan izanik, zeinak era berean Euskadiko Agenda Digitala eratzen duen, hedapenerako antolaketa-ereduak planaren artikulazioarekin koherentzia bati eutsi behar dio. Sailen partaidetza, Zuzendaritza Batzordearen eta Batzorde Teknikoaren bitartez, 2008-2010eko Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoarekin koordinatzea eta proiektuen kudeaketa funtsezko alderdiak dira 2010eko EIGPk arrakasta izan dezan.

Era berean, Lehendakariaren 8/2005 Dekretuak 10. artikulua c) atalean adierazten du Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokiola euskal gizartearen Informazio eta Jakintza Gizartearen sustapena eta garapena gauzatzea, administrazio eta gobernu elektronikoen alorreko jardunak bazter utzi gabe.


Horren ondorioz, Planaren kudeaketaren lidergoa Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokio. Zehazkiago, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta eginkizunak ezartzen dituen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuak Informazio eta Jakintza Gizartearen arloko erantzukizunak zehazten ditu. Horrela, sailaren sailburuari ematen dio garatzeko eta sustatzeko goizuzendaritza, Berrikuntza eta Energia sailburuordeari

jardunen zuzendaritza eta koordinazioa, eta Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen sailburuordeari hori garatzeko neurriak sustatzea.

Erantzukizun horien arabera, antolaketa-ereduak 4 konpromiso eta esku-hartze maila ditu:

1. Gobernu Kontseilua, hau da, Plana onartzen duen organoa.
2. Zuzendaritza Batzordea, hau da, Planaren jarraipena egiten duen organoa.
3. Batzorde Teknikoa, hau da, Planaren egikaritza koordinatu eta tutelatzeaz arduratzen dena. Aipatu diren arrakasta-alderdien kudeaketa gauzatzen den maila da.
4. Idazkaritza Teknikoa definitutako egituraren nodo zentrala da, Zuzendaritza Batzordearen eta Batzorde Teknikoaren arteko erlazioa bermatzen duelako. Planaren kudeaketa-organo iraunkorra da, eta horretarako planaren garapen egokia bermatzen duten beharrezko baliabideak hornituko ditu.

Ondorengo grafikoan, 2010eko EIGPren martxan jartzea eta garapena gidatuko duen kudeaketa-egitura agertzen da:



Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordea 2010eko EIGP kudeatzeko eta gainbegiratzeko organoa da. Zuzendaritza Batzordea jaurlaritzaren sailtako arduradun politikoek osatzen dute, sailordetza-mailan, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburua da buru.

Kudeaketa-ereduan hainbat zeregin esleituta ditu, hala nola:

- Plana Gobernu Batzordeari aurkeztea, bertan onartzeko.
- Ebaluazio- eta jarraipen-txostenak onartzea.
- Plana berrikustea eta aldaketak eta/edo zabalkuntzak proposatzea.

Batzorde teknikoa

Batzorde Teknikoa 2010eko EIGP maila operatiboan koordinatzen duen organoa da. Batzorde horretako kideak dira sailtako arduradunak, zuzendaritza-mailan, baita Idazkaritza Teknikoko arduradunak ere. Berrikuntza eta Energia sailburuordea da batzorde horren buru.

Batzorde Teknikoaren funtzioak honako hauek dira:

- Lehen instantzian balidatzea Idazkaritza Teknikoak egindako lanak, baita idazkaritzak bere funtzioak garatzerakoan sortu dituen edukiak ere (jarraipen-txostenak, adierazleen panelak, eta abar).

- Idazkaritza Teknikoaren eskariz, EIGPn barne hartutako jardunak ingurune sozial, ekonomiko eta teknologikoaren bilakaerara egokitzeko eta Planari esleitutako aurrekontu-baliabideen aprobetxamendu egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea.
- Idazkaritza Teknikoari Planaren eta bere proiektuen jarraipen eta egikaritzarekin erlacionatutako gaietan aholku ematea eta laguntzea.
- 2010eko EIGPn barne hartutako proiektuei lotuta sail desberdinen artean jakintzak eta esperientziak trukatzeko foro gisa baliagarri izatea.
- Jarraipen-txostenak egitea, hala barnean erabiltzeko nola argitaratuak izateko.
- Proiektu desberdinak garatuko dituzten arduradunei eta lan-taldeei aholkularitza teknikoa eskaintzea, proiektuen kalitatea bermatzeko abiapuntuko helburuen eta zehaztapenen arabera, baita horiek guztiak 2010eko EIGPren jarraibide orokorrekin bat etor daitezten lortzea.
- Teknologia-zaintzako zereginak egitea, ezarritako helburuengan eta aribideko proiektuetan eragina izan dezaketen joerak behatzeko xedez, eta batzuk eta besteak joera horiek zehaztutako etorkizuneko eszenatokira egokitzeko jarraibideak ematea.

Idazkaritza Teknikoa

Idazkaritza Teknikoa 2010eko EIGPren eta bere proiektuen (hala sail batek gidatzen eta egikaritzen dituen proiektu bereziak nola traktoretzat definitzen diren eta sail bat baino gehiago edo beste agente mota bat barne hartzen dituzten proiektuak) aurrerapen eraginkorra eta homogeneoa bermatzeko beharrezkoak diren lan guztiak gauzatzear arduratzen den organoa da. Idazkaritza Teknikoa Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzari dagokio.

Idazkaritza Teknikoaren funtzioak honako hauek izango dira:

- Planaren kudeaketa-ereduaren agente-koadroaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Informazio Gizartearen estatistika-adierazleen jarraipena egitea hala Euskadiren eremuan nola erreferentziarako beste eremu batzuetan: (Estaturik, Europa, herrialde aitzindariak).
- Lankidetzak estua eta eraginkorra izatea hirugarren erakundeen agentzia eta organismoekin, datuak elkartrukatzeko eta erabaki-zentro nagusiei buruzko lehen eskuko informazioa edukitzeko.
- Komunikazio Plan bat prestatzea eta horren jarraipena egitea, beharrezkoak diren ekintza guztiak garatuz, inplikaturako agenteen partaidetza aktiboa sustatuz eta edukien hedapenerako euskarri-tresnak (webgunea, buletinak, eta abar) mantenduz.
- Zuzendaritza Batzordearen eta Batzorde Teknikoaren bilkurak proposatu, antolatu eta koordinatzea, baita horien garapen egokia eskatzen duten idazkaritza-funtzioak egitea ere.

Proiektuen kudeaketa: proiektu bereziak edo trakzio-proiektuak

Aurreko Plana sail batek kudeatzen eta egikaritzen zituen programa berezien bitartez eraiki zen, eta saila zen programa horien diseinuarekin eta egikaritzearekin erlazionaturako alderdi guztien erantzule. Inplikazio sektoriala eta ez hain zeharkakoa duten proiektuak dira, eta plan honetan ez dute kudeaketa bereizirik behar.

2010eko EIGPk era berean zenbait proiektu barne hartzen ditu traktore deituraren azpian, agente publiko bat edo pribatu bat baino gehiago barne hartzen dituztenak, eta oso garrantzitsuak dira Planaren helburuak lortzeko eta giza baliabide eta baliabide material gehiago mobilizatu behar dituzte.

Trakzio-proiektuen kudeaketak eskatzen du partzuergoaren ideian oinarritutako kudeaketako berariazko eredu bat artikulatze, Europako proiektuak antolatzen diren bezalaxe:

bazkide-multzok proiektuari lotutako jarduera-multzok estaltzen du, jarduera bakoitzari dagozkion aurrekontuak esleitzen dira, informazioko eta hedapeneko jarduerak barne, zereginak periodifikatzen dira eta bazkide bat izendatzen da lider gisa jardun dezan. Bazkide liderra zuzenean Idazkaritza Teknikoarekin erlazionaturako da tutoretza, jarraipen, euskarri eta laguntza funtzioak bideratzeko.

Kudeaketaren ikuspegi berritzaile horretatik, trakzio-proiektuek garapen-egoera berri honetan Informazio Gizartearen eraikuntza kolektiboko proiektuak izateko bokazioa dute.

Planean definitutako trakzio-proiektuak bizitza osoko ikaskuntzako programaren proiektuak dira, eta 2010eko ikastetxea programaren proiektuak, inklusio-ekintzak, Metaposta proiektua eta Administrazioak gidatutako enpresa berritzaileentzako inpaktu handiko proiektu integralak.

2.0

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10


1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

7.3. Komunikazio Plana

2010eko EIGPri lotutako Komunikazio Planak lortu behar du Euskadik aurrerantz egotea Informazio Gizartean lider diren Europar eskualdeen artean. Beraz, beharrezkoa da pertsona bakoitzak Informazio Gizartean aurrera egiteko maila indibidualean, kolektiboki edo profesionalki eskura dituen eta izango dituen programen eta baliabideen berri ematea.

Era berean, Komunikazio Planak lan egin behar du Informazio eta Jakintza Gizartean zailtasun handienak dituzten edo posizioak galtzen joateko arriskua duten gizarte-kolektiboak 2010eko EIGP proiektuetara erakartzeko eta sentsibilizazioan lan egiteko, eta hori lortzeko komunikazioko euskarri, kanal eta mezu desberdinak konbinatu behar ditu.

Komunikazio Plana kudeaketa-ereduaren pieza motoretako bat da, eta horregatik Planaren Idazkaritza Teknikoak gidatu eta orientatuko du.



903 893 863
332 220 400

032
383

Planaren
finantzaketa

8



2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

8

PLANAREN FINANTZAKETA

Euskadi Informazio Gizartean Plana osatzen duten proiektuen egikaritzak aurrekontu-esparru arrunta gainditzen duen finantza-ahalegina egitea eskatzen du, aurreko EIGPren ekintzen egikaritzan ikusi zen bezalaxe.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuek 2002az geroztik aparteko fondo batzuk barne hartu dituzte Planaren helburuen lorpenera bideratuta.

Berriz ere, 2010eko EIGPren proiektuen garrantziak eta tamainak eskatuko dute beren indarraldian zehar aparteko fondo batzuk zuzkitzea, hau da, 2008. urtetik 2010. urtera bitartean.

2007ko azaroaren 15ean egin zen Plangintza eta Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuan onartu zenez gero, 2010eko EIGPren proiektuetara bideratzea aurreikusita

dagoen aparteko finantzaketa 144.993.200 euro izango da 2007-2001 aldirako. Aparteko finantzaketa horretatik abiatuz, Planaren guztizko zenbatekoa 285.435.200 euro da.

Kopuru horiek Euskal Administrazioak Planari egindako ekarpena dira, Planak beste erakunde edo agente publiko edo pribatuetatik bidera dezakeen baliabide-mobilizazioa edozein izanik ere. Horrela, adibidez, Eusko Legebiltzarrak aurreikusi du 2007-2011 aldian 2.070.000 euro bideratzea bere irekiera-tresnak kudeatzeko eta demokrazia elektronikoaren alorrean erakundeen arteko edo nazioarteko lankidetzak mantentzeko.

Ondorengo taulan zehazkiago adierazten dira aipatu kopuruak, barne hartzen dituen ekimen, programa eta proiektu desberdinen arabera.

2010eko EIGP-REN FINANTZAKETA GLOBALA

| | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | Euro GUZTIRA |
|------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|-----------------|
| Herritar aktiboak | 17.035.500 | 21.557.500 | 25.012.500 | 28.747.500 | 11.800.000 | 104.153.000 |
| Enpresa berritzailea | 11.389.000 | 16.628.400 | 17.424.800 | 17.986.000 | 18.365.000 | 81.793.200 |
| Euskadi sarean | 370.000 | 1.200.000 | 3.000.000 | 2.100.000 | | 6.670.000 |
| Infoegiturak | 12.200.000 | 22.490.000 | 22.637.200 | 20.141.800 | 10.000.000 | 87.469.000 |
| Erakunde agenda digitalak | | 150.000 | 350.000 | 350.000 | | 850.000 |
| EIGPren komunikazioa eta kudeaketa | | 1.500.000 | 1.350.000 | 1.350.000 | 300.000 | 4.500.000 |
| GUZTIRA | 40.994.500 | 63.525.900 | 69.774.500 | 70.675.000 | 40.465.000 | 285.435.200 |
| Aurrekontu arrunta | 29.494.500 | 30.331.500 | 31.134.500 | 32.081.500 | 17.400.000 | 140.442.000 |
| Aparteko aurrekontua | 11.500.000 | 33.194.400 | 38.640.000 | 38.593.800 | 23.065.000 | 144.993.200 |

2.0

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi



2.φ

euskadiko agenda digitala
agenda digital euskadi

www.euskadi.net